

Bill Evans Espaloian

Euskal Herriko saio bakarra egin zuten

KULTURA, 22-23



Lehenengo garaipena Eskoriatzarendako

Saskibaloitako taldeko neskek 53-56 irabazi zuten Errioxan

KIROLA, 15

Hip-hop festa

Bete egin zuten gaztetxea Arrasaten

KULTURA, 24



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko azaroaren 7a • 1. urtea • 77. zenbakia • 0,90 euro

Zainduko duten 'adiskide' berriak ditu Arantzazuk

Fraideak gutxitzen ari direla eta, Arantzazuren etorkizuna bermatuko duen elkarte sortu dute

Frantziskotarrak kezkatuta daude Arantzazuren etorkizunarekin. Hori horrela, Adiskideak izeneko elkarte bat sortu dute. Dagoeneko ia 700 bazkide ditu –eliz gizon zein laiko– eta zapatuan aukeratu zuten lehenengo zuzendaritza batzordea. Arantzazuren nortasuna gal ez dadin eta garai berrietara egokitzeke egingo dute lan. **2-3**

ELKARTEAREN HELBURUA
Arantzazu osatzen duen hirukoaren –erlijioa, natura eta kultura– etorkizuna bermatzea du helburu

ADISKIDEAK
Arantzazu maite dute eta Euskal Herri guztiko ia 700 kide daude dagoeneko elkartearen

GARAI BERRIAK
Arantzazuren nortasuna galtzen laga nahi ez izateaz gain, garai berrietara egokitu nahi dute

LEHENENGO BATZARRA
Bederatzi lagunez osatutako lehenengo zuzendaritza batzordea onartu zuten zapatuan

Barruan futbol gehigarria



AITOR LIZARRALDE

UDAK ETA MONDRAK BINA BERDINDU ZUTEN DERBIAN

Neurketa gogorra espero zen eta horrela izan zen. 600 ikusleren aurrean jokatu zuten atzo, domeka, Ibarren derbia UDak eta Mondrak. Denetarik egon zen; joko ona, tentsio uneak eta lau gol. Mondrak aukera gehiago sortu zituen, baina UDA aurretik joan zen markagailuan. Azkenean, binako berdinketa. **12**

Itxi egingo dute gaur Elgeta-Elorrio errepidea **7**

Eraikuntzako istripuak saihesteko lanean ari da Ikerlan **6**

Bergarako Udalak Seminarioko jolaslekua erosiko du

Ezohiko osoko bilkura egingo du gaur Bergarako udalbatzak, 19:00etan, Estatuko Ekonomia eta Ogasun Ministerioari erosi nahi dioten Errege Seminarioko jolaslekuaren harira. Akordiora iritsi dira Ministerioarekin eta 741.000 euro ordaindu beharko dizkio: 235.000 dirutan, eta, gainerakoa, Udalak jolaslekuaren azpian egin nahi dituen 24 garaie emanda. **7**

Kalitatezko ametsak

bede®


Koltxoi dendak

27
27
20 urtez amets egiten

ZARUGALDE 25 • ARRASATE • Tel.: 943 77 18 35

GEUREAN

- 14 arrasatearrek jarri zuten postua zapatuan baserritarren azokan | 4
- Etxea errentan eman nahi duten jabeendako batzarra bihar, Arrasaten | 9



Mikel Olaberekin
jardun dugu Ahots
Kooperatibista
taldearen helburuen
gainean | 5

ADISKIDEAK ELKARTEAREN SORRERA



MARLUJO DEGRACIAS

Ehun bat adiskide hurreratu ziren zapatuan Gandiaga Topagunean egindako lehenengo batzarra.

ARANTZAZU | ZAPATUAN EGIN ZUTEN LEHENENGO BATZARRA; BAITA BEDERATZI LAGUNEZ OSATUTAKO ZUZENDARITZA BATZORDEA OSATU ERE

Arantzazuren etorkizuna bermatuko duen Adiskideak elkarteak eratu dute

Ia 700 bazkide ditu eta zapatuan onartu zuten lehenengo zuzendaritza batzordea. Fraideak gutxitzen ari direla eta, Arantzazuren nortasuna gal ez dadin egingo dute lan

Monika Belastegi

Arantzazu hiru ardatzen inguruan osatuta dago: natura, erlijioa eta kultura. Eta frantziskotarrak kezkatuta daude hiruko horren etorkizunarekin, Iñaki Beristain frantziskotarrak azaldu digun moduan: "Arantzazuren etorkizuna fraideen aldetik ez da batere segurua, gutxitzen goaz, eta ez dugu Arantzazuren nortasuna galtzen utzi nahi. Galtzen

ez lagatzeaz gain, nortasun hori garai berrietara egokitu eta garatu nahi dugu. Gizarte honi dagozkion moldeak behar ditu. Baina esan bezala, fraideok gutxitzen goaz, eta gu bukatzean zer gertatuko da Arantzazurekin? Laguntza beharrean gaude".

Horren haritik, Adiskideak izeneko elkarteak eratu berri dute, Arantzazuren eta haren misioaren etorkizuna bermatzeko: santutegiarena, kultura topagunea-

rena eta ingurune natural bikainarena.

2001. urtean hasi ziren Adiskideak elkarteak sortzeko ahaleginean, V. mendeurrenarekin batera, eta duela hilabete pasatxotik, baimen guztiak jaso eta elkarte izaera du. Dagoeneko ia 700 adiskide ditu -Euskal Herri guztikoak, gehienak gipuzkoarrrak badira ere- eta zapatuan, lehenengo zuzendaritza batzordea aukeratu zuten Gandiaga Topagunean egindako batzarrean.

LEHENENGO BATZORDEA

Ehun bat adiskide batu ziren zapatuko batzarrean eta bederatzilagunez osatutako lehenengo batzordeari oniritzia eman zioten. Lehendakaria Angel Iturbe Oñatiko alkate ohia da.

Ekainera arte jardungo du

batzorde horrek; ondoren, hauteskundeak egingo dituzte-eta, berria osatzeko. Zapatuko batzarrean adostutakoaren arabera, oraingo batzordeak lan ildoak

Zapatuan egindako batzarrean onartu zuten lehenengo zuzendaritza

Bake eta Adiskidetzako zentro berrian jarriko dituzte lehenengo indarrak

zehaztu eta planifikatu egingo du ekainera bitartean. Iñaki Beristainek azaldu duen moduan "indarrak zertan jarri behar ditugun ikusteko, elkarteak kideek zertan lan egin nahi duten zehazteko eta lan ildoak markatzeko" garaia da orain.

BAKE ETA ADISKIDETZAKO ZENTRO BERRIA

Lehenengo zuzendaritza batzordea aprobetxatuz, eskaera berezia ere egin zuten Beristainek, fraideen aldetik, adiskideei batzarrean: hasierako indarrak sortzen diharduten Bake eta Adiskidetzako zentroan erabiltzea. Askotariko istiluak -politikoak, sozialak... - askatzeko zentroa izatea nahi dute, eta "proiektua oso aurreratuta" dagoela eta "laster" egingo dela prest gehitu zuten.

ADISKIDEAK ELKARTEAREN SORRERA

• ADISKIDE EGITEKO ARRAZOIAK



RUPER ORMAZA |
BERMEO

"Ze Arantzazu nahi dugun
amesteko garaia da"

"Bazkide zergatik egin galdera-
ren erantzuna erraz ulertuko du
Arantzazuren zaleak. Jende asko
dago Arantzazurekin lotura

estua duena: erlijioagatik, natu-
rarengatik, kulturarengatik...
izan dezake lotura. Menua oso
zabala da. Hala, Euskal Herrian
bere lekua du Arantzazuk eta
eguneratu, gaurkotu egin behar
da.

Orain arte fraideak izan dira
gehiengoa baina denborak alda-
tzen doaz, gutxitzen doaz. Hortaz,
garaia da laikook fraideekin bate-
ra, berriz amestu dezagun ze
Arantzazu nahi dugun.

Daukaguna mantenduz Eus-
kal Herriak dituen erronka
berriei zer eskain diezaikegun
pentsatzeko garaia da. Denbo-
rak aldatzen doaz eta eliza guz-
tiona nola egin pentsatu behar da,
garai berrietara egokituz, gaur-
kotuz, eguneratuz.



ARANTZAZU ORMAZABAL |
DONOSTIA

"Arantzazurengatik ahal
dudana egiteko prest nago"

"Ume-umetatik sentitzen dut
Arantzazurekiko lotura, ez baka-
rrik izena hala dudalako. Beti
pentsatu dut gurasoek zerbaite-

gatik jarri zidatela eta izen hori.
Aitak hemen ikasi zuen eta hiru
urte eta erdi nituenetik etorri
izan naiz; gurasoekin lehenengo,
eta gerora, neu. Gaur egun aita
hilda dago eta pentsatu nuen
berak nahiko zukeela ni elkar-
teko kide egitea. Are gehiago, sei
ilobetatik hiru ere bazkide egin
dira.

Gaurko batzarrera etorri naiz
jakiteko zer nahi duten guk Aran-
tzazurengatik egitea, zer egin
dezakegun haren alde. Ni ahal
dudana egiteko prest nago. Gau-
za asko dago egiteko, gainera, eza-
rritako hiru arlotan: fedean, kul-
turan eta naturan. Gehiago ikus-
ten dut neure burua fedean edo
kulturan baina edozer egiteko
prest nago".

• ADISKIDE IZAN NAHIEZ GERO

NOLA EGIN BAZKIDE? Hiru modu daude: www.arantzazu.org hel-
bidean dagoen datuen orria beteta; adiskideak@arantzazu.org hel-
bidera mezua bidalita edo 943 71 70 17 telefono zenbakira deituta,
zein 943 71 70 18 zenbakira faxa bidalita. Urteko bazkide kuota 30 euro
da banakoendako; enpresendako, berriz, 300 euro. Arantzazuri lagun-
tzeaz gain, hainbat onura izango ditu bazkideak.

BAZKIDE IZATEAREN ONURAK. Bazkide eginez gero, adiskideek
jasoko dute adiskide-nortasuna adieraziko duen txartela, *Arantzazu*
aldizkaria doan, musika kontzertuetarako sarrerak erdi prezio-
an, eta hilerio meza bat ere egingo dute hildako adiskideen alde. Horre-
kin batera, Arantzazuko webgunean dagoen adiskideen zerrendan
agertuko da bazkidearen izena.

IÑAKI BERISTAIN | FRANTZISKOTARRA

"Askotariko kideak daude, denak ez dira fededunak"

M.B.

**Iñaki Mendiguren da Adis-
kideak elkartearen bultza-
tzaileetako bat eta zuzen-
daritza batzordeko kide.
Elkartearen nondik-norako-
ak azaldu dizkigu.**

Zer da Adiskideak elkartea?

Arantzazuk etorkizunari
begira ematen duen urratsa.
2001ean hasi ginen antolatzen,
bosgarren mendeurrena ospa-
tzen ari ginela.

Zein da elkartearen helburua?

Azterketa sakonak egin ditu-
gu Arantzazuren gainean. Hala,
Arantzazuren etorkizuna frai-
deen aldetik ez da batere segu-
ria, gutxitzen goazelako. Bes-
talde, uste dugu Arantzazu frai-
deak baino askoz gehiago dela
eta, jende sare bat sortu beha-
rra zegoela etorkizuna bermat-
zeko. Eta hori egin nahi izan
dugu adiskideekin. Gainera, uste
dut, Arantzazun, Euskal Herriak
parte hartu izan duela era asko-
tara eta bidezkoa dela, gainera,
parte zuzena hartzea bere proiektu-
tuetan eta aurrerako bideetan.
**Etorkizuna diozu. Ze inplikatzan
du horrek?**

Uste dut gaur egun Arantzazu
ulertzen dela Euskal Herrian,
askoren artean, baketzeko eta
adiskidetzeko zentro bezala. Eta
hori, gu, fraideok bukatzean,
bukatu egin behar da? Fededun
asko dator hona Arantzazuren
moldearekin, estiloarekin iden-
tifikatzen delako. Gu bukatzean
hori bukatu egin behar da? Bes-
tetik, Arantzazuk duen inguru-
ne naturalaz goatzera jende
asko dator. Nork zainduko du
hori guztia gu ez gaudenean?
Kultura ondarea ere bada.
Horren guztiaren aurrean, iru-
ditzen zaigu garrantzitsua dela
talde bizi batzuk sortzea esan-
dako guztiaren gainean ardura
izango dutenak.

**Dagoeneko 700 bat adiskide baza-
rete. Gipuzkoarrak izango dira
gehien.**

Bai. Euskal Herri guztikoak
daude, baina gipuzkoarrak dira



MONIKA BELASTEGI

gehienak: ehunetik gora oñatia-
rrak; Arantzazu elkarteak beste
ehun eta piko... Bizkaikoak ere
badira hainbat; denetarik dago.
**Adiskideak zer eman diezaioke
Arantzazuri?**

Antolatutako proiektuen
arabera lan egitea nahiko genu-
ke. Ez litzateke ona izango bakoit-
zak bere aldetik lan egitea. Esa-
terako, Basilikan, domeketako
liturgiarako jendea prest balego

laguntza emateko ondo egongo
litzateke. Baina badakit, adiski-
deetako askotxo ez direla fede-
dunak, eta horiek nahiago izan-
go dute Gandiaga Topaguneko
kultura proiektuetan laguntzea...
Adiskideen profila askotarikoa
da eta hori oso pozgarria da gure-
tzat. Hain justu, Topagunearekin
eta Misterioa eraikinarekin iru-
dikatu nahi izan dugu Euskal
Herriak bizi duen aniztasuna.

**"Arantzazuren
etorkizuna
bermatzeko sortu
da elkartea"**

**"Bidezkoa da
herritarrek parte
zuzena hartzea
Arantzazun"**



BergaraCars



Zure konfiantzazko multi-marka kontzesionarioa

BMW 120 D BERRIA
BMW 320 I BERRIA
BMW X3 2.0 BERRIA
MINI COOPER BERRIA
MB ML 320 BERRIA
AUDI A4 2.0TDI BERRIA

Pablo Irizar

Aitziturri 1 • Bergara

T: 943 76 18 71 • F: 943 76 58 22

www.bergaracars.com
bergaracars@yahoo.es

VW TOUAREG R.5 2004
VW TOUAREG V10 2004
BMW 320 D 2005
BMW 530 D 2003
BMW M3 2003
AUDI A3 TDI 2003



Ortuari eta frutetan egon zen aukerarik zabalena zapatuko azokan.

AITOR LIZARRALDE

Kalitate bermerik ziurrena, bertako baserritarrena

Arrasateko Baserriko Produktuen azoka egin zuten zapatuan, herriko baserritar eta nekazariak sustatzeko helburuarekin

J. B.

Herriko produktuei eta bertako baserritarrei bultzada eman eta promozionatzeko azoka egin zuten zapatuan Arrasaten. Udalen eta Ibai-Arte merkatarien elkartearen egitasmoz, Baserriko Produktuen hirugarren azoka izan zen, herriko baserritar eta nekazarien 14 saltokirekin. Musakola, Bedoña, Uribarri, Gesalibar eta Meatzerreka auzotatik ekarri zuten generoa. Dagoeneko urteroko azoka bihurtu da udagoieneko hau. Azoka xumea izan bazen ere, kalitatezko produktuak aurki zitezkeen bertan, kalitatezkoak.

Sebero Altube plazan ipini zuten azoka, ohiko merkatu plaza oso gertu. Plaza eguna egubakoitzean izan bazen ere, jende ugari gerturatu zen zapatuan herriko nekazariak zer zekarten ikustera eta bide batez, eguneko erosketak egitera. Ortuariak, ezta, fruta, txakolina, txerrikiak edota lore sikuak aurkitu zitezkeen, baina arrakasta gehien ogiak izan zuten zapatukoan, askok azoka ikusi eta ogia erosteko aprobetxatu zuten goiza-eta. Aipatutako ortuko produktuez gain, Jakion koo-

peratibak ere erakustokia ipini zuten eta Mendi Nekazaritza Elkar-teak informazio stand-a ipini zuten, euren ekintza eta helburuen gaineko argibideekin.

URTERO, UDAGOIENEAN

Udalak eta merkatariek bertako baserritarren produktuak eza-

gutsera emateko egitasmo moduan sortu zuten orain dela lau bat urte azoka hau.

Lehenengo saiakera horren ostean, iaz egin zuten azoka bigarren aldiz. Aurtengoarekin urteroko ohitura sortu gura dute Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomikorako Zerbitzuko arduradunek eta horregatik, datozen urteetan, sasoi honetan, urri amaieran edo azaro hasieran, egingo dute berriz azoka hau, udazkeneko azoka moduan-edo.

• ASKO SALTZEN DUZUE AZOKAN?



LURDES ETA BASILI | MIETZA BASERRIA

“Oso ondo ari da gaurkoan jendea erantzuten, lehen orduetatik gainera. Gaur batez ere buzkantzak eta odolosteak saldu ditugu gehien eta baita ortuariak ere. Genero ederra ekarri dugu eta asko gabil-tza saltzen gaurko azokan”.



MAITE | ARANGUREN BASERRIA

“Ogi asko saltzen da gaurkoa moduko egunetan, beharbada, erosteko errazena ere badelako. Gero eta gehiago erosten du jendeak”.



AITOR LIZARRALDE

Energia premiari eta urritasunari buruzko informazioa dago paneletan.

“Kontsumitu ez duguna da energiari garbiena”

J. B.

Energia modu zentzudunean erabiltzen ikasi eta baliabide berriztagarriak ezagutzeko, erakusketa ipini du Jaurlaritzak Arrasateko Maiatzaren lehena plazan.

Aritza Zorrakino da erakusketaren arduraduna eta energia aurreztu eta etorkizuneko beharrei buruz informatzea da instalazioaren helburua. “Gaur egun ditugun erregai fosilak noizbait ahitu egingo dira eta erakusketarekin bestelako baliabide berriztagarriak ere badaudela ohartarazi gura genuke. Hala ere, jakina da energiari garbiena kontsumitzen ez duguna dela”. Honen harira, etxean

argindarra eta energia aurrezteko aholkuak ematen dituzte bertan, batez ere haur eta gazteei zuzendutakoak

Datorren astean Bergaran ipiniko dute erakusketa hau.

Gomendioak

- **ETXETRESNAK**
A motakoak, erosi, erdia baino gutxiago kontsumitzen dute.
- **DUTXA ERABILI**
Heren bat gastatzen da.
- **SUKALDEAN**
Eltzei estalkiak ipini beroak ihes egin ez dezan.

• DARDO TXAPELKETA, BERGARAN



AITOR LIZARRALDE

GORKA UNZUETAK JASO ZUEN LEHEN SARIA

Lam3 enpresak antolatutako dardo txapelketa jokatu zen egubakoitzean Bergarako Ziripot tabernan. Giroa ez zen makala izan. Hogeita hamar lehiakide inguruk hartu zuten parte txapelketan eta honako hauek jaso zuten saria: Gorka Unzueta jaso zuen lehengo; Asier Aranak, bigarrena eta Ander Muguruzak, berriz hirugarrena.



MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATI
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045



SEIN
grupa taldea

Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

Ahots Kooperatibista taldeko kide da Mikel Olabe. Iritzi korrante kritiko horren barruan, kooperatibismoaren baloreak bete daitezzen ari dira eta horretan dihardute 2001a ezker.

Dagoeneko ehun bat behargin ari dira Ahots Kooperatibistaren inguruan; hiru hilean behin buletina ateratzen dute, 900 ale banatzen dituzten MCCren hainbat egoitzatan, eta

“poliki-poliki behargin gehiago ari da interesatzen iritzi korrantean jarduteko”. Kontseilu Sozialeko kide ere izan da eta zortzi urteren ostean “txanda pasa” egin du.

MIKEL OLABE | AHOTS KOOPERATIBISTA TALDEKO KIDEA

“Kooperatiban ere esplotazioa izugarria da, batez ere katean”

Marijo Deogracias

Zertara dator Ahots Kooperatibista?

Lehenengo eta behin argi laga nahi dugu Ahots Kooperatibista apaltasun osoz sortzen dela, baina ez genukeela zuzendaritzaren karaokea izan gura. Autokritikak izateko sortu gara, eta gure iritziak argi eta garbi plazaratzeko. Une honetan MCCn horrelako korrante bat egotea enpresa talde handi bat den neurrian gauza handia da, batez ere, debalde eta gure denbora librean arituko dena. Beharrezkoa da talde sozial legez aritzea Kooperatiba demokratiko baten; berezko eskubidea dauka, gure arautegian ere jasotzen delako horrelako ekimenak sortzeko aukera. Hortik aurrera, gure asmoa –beti egon izan baitira horrelako korranteak, gorabeherak tarteko– autokritika egitea da.

Zerk eraman zaituzte taldea osatzera?

Langileon egoera sozio-laboralera hobetu egin nahi dugu, lana gizatiartu egin nahi dugu. Bestetik, kooperatibaren baloreak gaurkotu eta indartu egin nahi ditugu. Enpresaren pragmatismotik urrundu nahi dugu.

Lan baldintzak salatu dituzue, baina enpresa pribatuekiko alde-rik izango da ba?

Ez dut uste paralelismorik egin daitekeenik bien artean. Guk, erabat errealek ez izan arren, erabakitze guneak ditugu. Egia da kooperatibismoak bi gauza oso ondo egin izan dituela: 80ko industria krisia nahiko ondo gainditu, batetik, eta lanpostuak sortu eta eustea, bestetik. Hala ere, kritikoak ere izan beharra daukagu eta lau puntu nagusitan oinarritzen gara: Hasteko, lana enpresa kapitaliste-



M.D.

Mikel Olaberekin aritu gara Ahots Kooperatibista taldeari buruz.

tan legez egiten da kooperatiban ere eta esplotazioa izugarria da katean; gainera, osasun profesionalak errekonozitzeke daude, batez ere, psikosozialak; eta enkargatuekiko hartu-eman bertikalegiak garatu dira. Bigarrenez, erlazio merkantilistak bere horretan onartzen dira –aldi baterako kontratu mordoa dago– eta deslokalizazioa egiten da, inolako kode etiko barik –beste herrialdeetan ere kooperatibistetan aplikatzen diren arauak bete behar dira edo laguntza sozialak eman behar dira...–. Hirugarrenik, kooperatibaren ideiak guztiz debalaturik daude eta balio gutxi ematen zaio hartu-eman pertsonalei. Laugarrenik, erabaki-

guneak ditugun arren, zuzendaritzak mekanismo asko ditu asanbladetan nahi duena erabakitzeke.

Hori dena hobetu egin daiteke eta hori dugu helburu, ahal dugun neurrian hobetu.

MCCren 50. urteurrena ospatzen ari dela egin duzue jendaurrekoa.

Apaingarria litzateke nahi eta egin dugula esatea, baina kasualitatea izan da. Taldea bizi osoan kooperatiban aritu garen jendearekin eta gazteekin eratu dugu; baina ez da batere erraza izan taldea eratzea, jendeak ez duelako inolako markarik izatea nahi korrante kritiko bateko kide legez; guk bizi izan genituen, hein baten, kooperatibis-

moaren baloreak, baina gazte gehienei arrotz egiten zaizkie eta berreskuratu egin nahi ditugu.

MCCko zuzendaritzarekin hartu-emanik izan duzue?

Batzarra eskatu genuen aspaldi, baina ez dugu erantzunik jaso. Organo sozialekin egoten gara informazioa zabaltzeko. Ahots Kooperatibistak sindikatu sena dauka?

Ez; parekotasuna izan dezakegu zentzu baten, baina sindikaturik ez dago kooperatibetan eta kooperatiben zuzendaritzak ez du sindikaturik nahi mugimenduaren barruan; enpresa mistoetan izan dira esperientzia batzuk eta sindikaturik ez dago gaur egun. Hala ere, elkarrengandik ikasterik badaukagu.

“Ideiak guztiz debalaturik daude eta balio gutxi ematen zaie hartu-eman pertsonalei”

“Deslokalizazioa egiten da, inolako kode etiko barik, kooperatibismoaren arauak bete barik”



LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA

Begietako mikrokirurgia:

Kataratak: Miopia / Hipermetropia.

Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatuak

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Arrasate eta Eskoriatza arteko tartea 6,3 kilometro izango ditu eta Eskoriatza-Arlabane, 10,4.

AP-1en Arrasate-Eskoriatza tartea esleitu berri dute

2008ko urtarrilerako zabalik egongo da; baita Eskoriatza-Arlaban tartea ere Nestor Arana Bidegiko zuzendariaren esanetan

A.G.

AP-1 autobideko lanak "martxo onean" doaz Nestor Aranak, Bidegiko Zuzendari Orokorrak, zapatuan egindako agerraldian esan zuenez. 2006. urteko asmoen berri ematean, egiteko geratzen diren Eskoriatza-Arlaban tartea eta Arrasate-Eskoriatza tartea aipatu zituen. Lehenengo 2004an esleitu zuten, 75 milioi euroko aurrekontua du eta 2008ko urtarrilerako bukatuta egongo da.

Arrasate-Eskoriatza tarteari dagokionez, astean esleitu dute. Hala, Dragados, Construcciones Moyua, Obras Subterráneas eta Geotunel enpresek osatutako aldi baterako enpresa batasunak eraikiko du. 55 milioi euroko aurrekontua du eta Aranaren esanetan 2008ko urtarrilerako martxan egongo da hori ere.

Arrasate iparra-Eskoriatza tartea 6,3 kilometro izango ditu eta elementu aipagarri gisa: bi tunel -bata, Apotzagan (330

metro) eta, bestea Izurietan (260 metro) eta bi zubibide -Basa-goitin (250 metro) eta Arbizelain (560 metro).

INBERTSIOARI AURRE EGIN

Aranak azaldu zuenez, Bidegiren 2006rako inbertsio politika 1.200 milioikoa da eta horietatik 400 bat dagozkie AP-1 autobideari. Aranaren esanetan, inbertsio horrek justifikatu egiten du autobidea erabiltzeagatik kanonak kobratzea. Izan ere, "25 urte beharko dira, kanonekin kobratzen denarekin, egiten ditugun inbertsioei aurre egin ahal izateko". Bestalde, gogora ekarri zuten elkarteak autobideen kargu egin zenetik, 2003an, tarifak %50 arte gutxitu direla.

Eraikuntzako lan istripuak saihesteko proiektu europarrean ari da Ikerlan

Europako sei herrialdeetako eraikuntza enpresendako simulagailuak sortu dituzte Ikerlanekoek

A.G.

Van Trainer proiektuak eraikuntza enpresetan behar egiten duten langileak behar bezala prestatzea du helburu. Horretarako arlo horretan egiten diren lanetan hezi nahi dituzte

langileak, baina propio sortutako simulagailuen bitartez. Ekimena Ikerlan-Ik4k zuzentzen du eta ia 2.500 euroko aurrekontuarekin ari dira. Eurekin batera elkarlanean ari dira Espainia, Italia, Portugal, Eslovakia eta Poloniako eraikuntza enpresen elkarteak eta Alemania, Italia, Portugal eta Nafarroako eraikuntzarako makina egileak.

SIMULAGAILUAK

Van Trainer proiektuak plataforma bat sortu nahi du langileek eraikuntza enpresako makinekin hasi aurretik behar

bezalako heziketa izateko eta horretarako sortu nahi ditu simulagailuak: atzeraka dabil-tzan hondeatzeko makinak, dumperrak, igogailuak eta aire-plataformetako lanak egiteko balioko dute.

Oraingoz lan arriskutsuak identifikatzen aritu dira Ikerlan-IK4koak eta 2006ko urte erdirako izan nahi dute gertu simulagailu plataforma. Orduan hasiko dira Van Trainer programakoak Europa osorako hezikuntza bateratua eskaintzen eraikuntzan ari diren langile guztiei, arrisku bako lan metodologiarekin.



AITOR LIZARRALDE

Giro polita egon zen Muniben atondu zuten jolas lekuan.

Parte-hartze handia izan zuen EHBEk Bergaran

A.G.

Euskal Herria Bere Eskola (EHBE) ekimena Bergaran izan zen joan zen zapatuan. Munibe plazan egin zuten ekitaldia ekimenaren bultzatzaileek eta hainbat bergararrek ekarpenak egin zituzten ekimenari, tartean, Maite Aristegik eta Juan Martin Elexpuruk ipuin bana, Ekaitz Alustizak bertsoa eta Unai Azkareteko komikia. Umek bikain pasatu zuten tailer eta jolasekin

eta eurek egindako marrazkia ere gehitu zuten EHBEren ekarpen gisa. Horixe izan zen Euskal Herrian zehar herririk herri jasotzen ari den ekarpenen artean, Bergaran egin zitzaiona.

Goizean jende gutxi hurbildu zen Munibe plazara, baina eguerdian giro itzela egon zen eta jende asko batu zen plazan.

Eguenean 2006rako gertu egongo den Euskal Curricularen gaineko hitzaldia egin zuten EHBEk, kultura etxean.



AITOR LIZARRALDE

Arartekoa eta Aldundiko ordezkariak, ikastetxeko arduradunekin batera.

Iñigo Lamarca Arartekoak ireki zuen kurtsoa UNEDen

J. B.

Iñigo Lamarca Arartekoaren irekitze-hitzaldiarekin eman zioten hasiera egubakoitzean UNED, urrutiko hezikuntzako unibertsitateko ikasturte berriari. Aurtengoarekin, 30 urte beteiko ditu Bergarako zentroak. Ikasturtea hasi bada ere, matrikulazio epea hilaren 15era arte egongo da zabalik ikasketak guttiararako.

DIPLOMA BANAKETA

Ekitaldian, ikasturtea inauguratu eta aurten ikasketak amaitu dituztenei diplomak banatu zitzaizkien. Hain zuzen ere, 50 ikasle baino gehiago graduatu dira aurreko ikasturtean. Iaz 2.000 ikasle baino gehiago matrikulatu ziren Bergarako ikaste-

txean eta aurten ere ikasle kopuruari eustea espero dute arduradunek eskaintzen dituzten 34 unibertsitate-titulazioetan.

LAN ESKAINTZA

Aramaioko
Dukiena Jatetxeak,
**ZERBITZARIA
ETA
SUKALDARIA**
behar ditu.

Interesatuok deitu:
945 44 50 86

Seminarioko jolaslekua erosi nahi du Bergarako Udalak eta garajeak egin

Ezohiko osoko bilkura egingo dute gaur Ogasun Ministerioari erosi nahi dioten Seminarioko jolaslekuaren gaiaren harira

Monika Belastegi

Errege Seminarioko jolaslekua erosi nahi du Bergarako Udalak. Estatuko Ekonomia eta Ogasun Ministerioa da haren jabe eta erosketarako akordiora iritsi dira. Hori horrela, ezohiko osoko bilkura deitu du Udalak gaur, 19:00etan, udalbatzak erosketa onar dezan.

Jolas-parkeak 4.822 metro koadroko azalera du eta Udalak 741.000 euro ordaindu beharko dizkio Ekonomia eta Ogasun Ministerioari: 235.456 euro dirutan ordainduko dizkio eta gainerakoa, hau da, 505.543 euro, jolaslekuaren azpian eraikiko dituzten 24 garaje emanda. Izan ere, Udalak 235.456 euroko kopuruarekin igorri zion jolaslekuaren balorazio txostena Ministerioari. Balorazio txosten horri erantzunez, 741.000 euroko beste bat jaso zuen bueltan Ministeriotik. Hori horrela, 235.456 euro dirutan eta gainerakoa garajeetan ordaintzea adostu dute.

APARKALEKUAK JOLASLEKUAREN AZPIAN

Jolaslekuaren azpian egingo dituzten aparkalekuei dagokienez, publikoak izango dira, bai-



AITOR LIZARRALDE

Aranzadi ikastolako umeez erabiltzen dute astean jolaslekua. Ferietarako eta aparkaleku gisa ere erabiltzen da.

na oraindik zehazteke dago, Udaleko iturrien esanetan, zenbat solairuko aparkalekua izango den, zenbat autorentako lekua izango duen, nola funtzionatuko duen...

Jakinek den gauza bakarra da –erosketa hala adostu dutelako– Estatuari emango dizkion 24 garajeak lehen solairuan egongo direla, eta publikoetatik aparte, eremu itxi batean.

ERAIKINA ERE ESTATUARENA Seminarioa ere Estatuarena da. Gaur egun UNED zentroa eta Aranzadi ikastola daude han, besteak beste. Denbora da Udalak eskuratu nahi duela eta badi-rudi denbora gutxi falta dela Ogasun Ministerioak eraikina UNEDeko patronatuari –Udalak, Kutxak, UNEDek eta Diputazioak osatzen dute– emateko. UNEDeko zuzendari Alvarezek egubakoitzean egindako agerraldian esan zuen: “Katearen azken maila baino ez da falta”.

741.000 euro ordaindu beharko ditu Udalak jolaslekuarengatik

Dirutan eta jolasleku azpian egingo dituzten garajeekin ordainduko dute

Labur

Helikopteroz jaitsi zuten atzo bergarar bat menditik

Domeka eguerdian, ordu batako aldera, Bergarako emakume bat erreskatatu zuen Ertzaintzako Mendi taldeak helikopteroz Elgetako Eguarditza mendi inguruan, Aixola urtegitira ematen duen aldean. N.A.G. 43 urteko bergararrak orkatila okertu zuen. Zaurituak berak egin zuen SOS Deiakera hots; izan ere, ezin izan zuen bere kabuz menditik jaitsi. Bestalde, Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, autoz igotzeko aukerarik ere ez zegoen lurraren egoerarengatik eta helikopteroz jaitsi behar izan zuten. Arazorik gabe egin zuen Ertzaintzak erreskatea eta Galdakaoko ospitalera eraman zuten.

Elgeta-Elorrio errepidea itxi egingo dute gaur, astelehena

GI-2632 errepidean, Elgetatik Elorriora doan bidea, itxi egingo dute gaur, astelehena, han egiten ari diren lanak direla eta. Hor-taz, Kanpanzarrerako bidea hartzeko gomendatu dute Foru aldunditik.

Elorrio eta Eibar Arrasaterako bidearekin lotuko dituen biribilgune berriaren lanak egiten ari dira Elgetan eta Salvador kaletik ezingo da autoz igaro lanek iraun bitartean.

Biribilguneak Elgetako saihebidetako sarrera egingo du. Lanak otsailean hasi zituzten eta hil honetan amaitzekoak dira. Saihebidetako 411 metro ditu eta 1,2 milioiko aurrekontua. 3,5 metroko bi karril ditu bideak.

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

Etenik gabeko programazioa | Informatiboak orduoro | Programazio berria



- Asturias edo Kantabrian egonaldia: bi lagunendako hiru egun / bi gaueko egonaldia Eroski Bidaiek agentziaren eskutik.
- TVC-Berthen telebista: 14 hazbeteko telebista. Arrasateko Hiper Eroskiren eskutik.

GOITBk programazio berria aurkeztu du. Hala, bidali saio berri baten izena -txartela batez edo SMS bat bidaliz-, eta sari hauen zozketan sartuko zara.

Sari hauetakoren bat irabazi nahi duzu?

Txartel hau moztuta honako helbidera bidali:
GOIENA/GOITB • 132 posta-kutxa • 20500 Arrasate

Saio berriaren izena:

Izen-deiturak:

Tel.:

Helbidea:

Herria: Posta-kodea:

Edo SMS bidez: GTB (hutsunea) SAIOA BERRIAREN IZENA 7505 zenbakira.

Baldintzak: Nahi beste txartel edo mezu bidali ahal izango dira. Txartelak jasotzeko azken eguna: azaroak 9. SMSak jasotzeko azken eguna: azaroak 11. Irabazleen izenak azaroaren 14ko Asteleheneko Goienkaria-n kaleratuko dira. Ez dira fotokopiarik onartuko.

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!





BERANGO

LOOS
ALTZARI INTEGRALAK

DEKORAZIOA, SUKALDEAK

Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate

Muebles

Kabía

Altzariak

4 URTE
interes barik

Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70



Albiste izango da

ARRASATE | BIHAR, 19:00ETAN

Etxea errentan eman nahi duten jabeendako bilera informatiboa

Batzar informatiboa deitu dute, etxebizitza errentan eman nahi duten jabeen zuzenduta dagoen Bizigune programa azaltzeko eta hedatzeko asmoz. Bihar, martitzena, izango da, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

Etxebizitza Hutsaren Gipuzkoako arduradun Javier Calditok eta Arrasateko Udaleko teknikari Nerea Lazpiurrek emango dituzte etxebizitzak errentan emateko nondik norakoak azalpenak batzarraren. Luis Laskurain Suradesako gerentea ere izango da batzarraren.

ARRASATE | IZENEMATEA ZABALIK DAGO

Elkarlana eta gizarte boluntariotza jorrazteko ikastaroa antolatu dute

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako gobernu kanpoko erakundeek prestakuntza ikastaroa antolatu dute hirugarrenegoz, zuzenean eragiten diguten arazo global eta tokikoei buruzko eztabaida eta hausnarketa sustatu nahian. Munduko arazo nagusien zergatiari buruz hausnartzeko interesa dutenei zuzenduta dago. Eskolak zapatuetan izango dira, azaroaren 26an hasi eta martxoaren 11ra arte, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara ordutegian. Informazio gehiago edo izena emateko jo: ISF Arrasateren egoitzara (Bañez Doktorea 1, behea); deitu 943 77 17 38 zenbakira edo isfarrasate@euskalnet.net helbidera idatzi. Ikastaroaren prezioa 30 euro da (materiala eta kafea barne).

ARRASATE | GAUR HASI ETA HILAREN 12RA ARTE

Zientzia eta Teknologiaren Astean estufaren bilakaera, Monterronen

Gaur, astelehena, hasi eta hilaren 12ra arte, Zientzia eta Teknologiaren Astea da EAEn, Saretek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareak antolatuta. Horren harira, *Petrolio estufaren garaitik ingurune adimenaren garaira arte* izeneko erakusketa antolatu du Fagor Etxetresna Elektrikoak. Informazio panelak, ikus-entzunezkoak eta berogailuen bilakaera gertutik ezagutzeko hainbat tresna jarriko dituzte. Monterronen egongo da ikusgai, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara ordutegian.

Irekiera ekitaldia 19:00etan izango da eta han egongo dira, besteak beste, Fagor Etxetresna Elektrikoak eta Ikerlaneko ordezkariak; baita Arrasateko alkate Ignacio Lakuntza ere.

ARRASATE | 09:30EAN, LAUBIDE PLAZAN

Euskal Jolasen topaketa egingo dute martitzenean DBH 3koek

Martitzenean Euskal Jolasen topaketa egingo dute DBHko 3. mailako ikasleek. Euskal Soin Jardueren barruan lantzen dihardute euskal jolasak eta helburua da ikasleen arteko harremana bul-tzatzea, lehia motibatuzko tresna gisa erabilita.

09:30ean hasiko da topaketa eta 12:30ean bukatuko da. Eguraldi ona eginez gero, Laubide plazan izango da, eta txarrarekin, Uarkape pilotalekuan. Bestalde, Arizmendiko eta Mesedetako ikasleek hartuko dute parte. Egingo dituzte frogak dira, besteak beste: lokotzak jaso eta artoa aletu, hankapoteak, boloak, toka, soka tira...

ANTZUOLA | HIRU HILABETE EGONGO DA ITXITA

Buztinzuri kalearen beheko aldea itxi egingo dute gaur ibilgailuentzat

Gaur, astelehena, itxi egingo dute Buztinzuri kalearen beheko aldea azpiegitura eta zoladura lanak egiteko. Hori horrela, eta arazoak ekiditeko asmoz, Udalak eskatzen die gidariei erabil dezatela Sagasti kalea.

Bestalde, lanok irauten duten bitartean Ondarrerako pasabidea noranzko bakarrean erabiliko da. Buztinzuriko etxeetako oinezkoendako pasabidea mantendu egingo dute, baina kontrako espaloia, berriz, ez. Gainera, eskolako sarbideko eskaileretako pasagunea moztu egingo dute. Udalak aurreratu duenez, lanok hiru hilabete inguru iraungo dute.

Hitzorduk



ELIZBARRUTIAREN HELBURUEN BERRI EMANGO DU GOTZAINAK | Arrasatera etorriko da Joan Maria Uriarte gaur, astelehena

Donostiako Gotzaina, Joan Maria Uriarte, eta Bikario Nagusiak batzar bereziak egiten ari dira hainbat herriko pastoralgileekin, eta gaur, astelehena, Arrasateko Mesedetako mojen ikastetxean egingo dute batzarra, 20:00etan. Horregatik, gaur ez da mezarik izango.

Gotzainak elizbarrutiaren bost urteko egitaraua azalduko du, pastoral eraberritzerako proposamenak aurrera eramateko prozesua aurkeztuko du eta pastoralgileekin elkarrizketa irekia egingo du. Hortaz, pastoralgile guztiak daude bereziki deituta, baita interesa duten fededun guztiak ere.

ARAMAIO |

• **Alaiak erretiratu elkarteak bazkideak omenduko ditu**
Egubakoitzean, hilak 11, egingo dute omenaldi hori, eta honako egitaraua antolatu dute: 12:00etan, meza; 14:00etan, bazkaria eta, bukatzeko, sari banaketa. Izena emateko azken eguna bihar, martitzena, duzue. 5 euro sartu behar dira Euskadiko Kutzako kontu baten.

ARETXABALETA |

• **Erretiratuen bidaian izena eman daiteke bihar arte**
Bihar, martitzena, da erretiratuen bidaian izena emateko azken eguna Basotxoko bulegoan, 11:00-12:30. Elizondora joango dira hilaren 15ean, martitzena.
• **Langileendako ikastaroak daude aukeran Institutuan**
Jardunean dauden langileei zuzendutako ikastaroak antolatu ditu Aretxabaleta Institutuak. Elektromekanika, metal eraikuntza, tresneria elektronikoa eta automobilgintza arloko ikastaroak dira. Izena emateko, deitu 943 79 79 00 telefonora.

ARRASATE |

• **Yoga ikastaroa Sanatana Dharma Yoga Eskolan**
Eskolak dira astelehen eta eguaztenetan, 09:30-11:00 (Mai-

te da arduraduna, 635 71 06 16), eta martitzen eta eguenean, 18:30-20:00 eta 20:15-21:45 (Ana, 943 78 31 26). Deitu 21:00etatik aurrera. Eskola dago Erguin kaleko 2.ean.

BERGARA |

• **Tours-eko San Martin eguna ospatuko dute Azkunetan**
Ospakizun hori izango dute Azkunetan, Angiozar auzoan, egubakoitzean, azaroak 11.
• **Bergarako egutegian publizitatea egiteko aukera**
Bergarako Udala 2006ko egutegia egiten hasi da, eta han publizitatea ipini nahi duten herriko dendari, ostalari, enpresa, talde, ikastetxe eta abarrei dei egiten die. Interesa dutenek Udal Euskara Sailera deitu behar dute (943 77 91 71). Azaroaren 11, egubakoitza, da mugaeguna.

DEBAGOIENA |

• **Elkarlan eta boluntariotza hezteko ikastaroa**
Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako GKEal giza arazoetaz hausnartzeko eta boluntariotzarako prestatzeko ikastaroa antolatu dute azaroaren 26an hasita, sei zapatuan, goiz eta arratsaldean. Arrasaten izango dira eskolak. Argibideak, 943 77 17 38 telefonoan edo isfarrasate@euskalnet.net helbidean.

• Sahararen eskubideak

aldarrikatzeko agerraldia
Sahararen autodeterminazio eskubidea eskatzeko agerraldia egingo dute hilaren 12an Madrilan, eta Debagoieneko Nubi elkarteak hara joateko dei egiten du. Gipuzkoatik joango den autobuserako izena emateko, deitu 626 34 50 09 telefonora; Arabako telefonoa da 945 14 78 53. Argibide gehiagorako, deitu Nubi elkartearen zenbakietara: 685 72 48 16, 685 72 48 17 edo 685 72 48 18.

• Aisialdi begirale ikastaroa, Gurutze Gorriak emana

Aisialdi begirale ikastaroa emango du Gurutze Gorriak azaroaren 26tik ekainaren 18ra, Mankomunitatean. 200 orduko ikastaro hori 15 asteburutan emango dute. Izene-mate epea azaroaren 19 arte dago zabalik Elorregi auzoko euren egoitzan. Informazio telefonoa da 680 64 80 14, eta e-posta helbidea, altodeba@cruz-roja.es.

• OÑATI |

• **Bihar, martitzena, Guraso Eskolako lehen jardunaldia**
Bullying fenomenoaren gaineko lehen jardunaldia egingo dute bihar, martitzena, Guraso Eskolakoei kultura etxean, 14:45-16:15. Jorge Madiariaga psikologoak gidatuko du saioa.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Oinezkoak ere kontuan hartu behar dira

Bergaran, Agirrebeña tabernaren ondoko zubiaz kexu dira hango bizilagunak. Azaldu dutenez, oso estua da eta ez du oinezkoendako espaloirik. Horrez gain, errepidea gurutzatzeko ez dago zebraiderik "eta autoak abiadura handian ibiltzen direnez, arriskutsua da bidea gurutzatzea. Hori horrela, zebraiderik eta ibilgailuek abiadura murrizteko zoruan irtenuneak jartzea eskatzen dugu". Udalean ere egin dute eskaria idatziz, baina "ez digute jaramonik egin", gehitu dute.

• Txakur gorotzekin bueltaka

Beste txistu bat iritsi da gurera, txakur gorotzak direla eta. Antzuolatik iritsi zaigu txistua eta gure irakurleak dioenez, "herrian geroz eta txakur gehiago dagoela sumatu dut aspaldian, baina ez zaunka egiten dutelako, baizik eta jabeak lotsagabe hutsak direlako. Kanean ibiltzea geroz eta arrisku-tsua goa bihurtzen ari da, hainbeste txakur gorotz tarteko. Txakurrek egin beharrekoak egin behar dituzte, beste guztiok moduan. Ondo legoke, baina, txakur jabeak gizalegezkoak balira eta euren herikideekiko gutxieneko errespetua izango balute.

Udaletxera joatea ere pentsatu dut, isun sistemaren bat edo jarri dezaketengalderazera. Hala ere, gizakumearen ontasunean sinesten jarraitu nahi dut eta pentsatu dut, zorte pixka batekin, txakur jaberengalderaz geroz txakur gorotzen bat zapalduko duela eta berearen gorotzak jasotzen hasiko dela eta horrela, besteek eredu jarraituko dutela...

Ze mundu zoragarria litzatekeen horrela arituko bagina guztiok.

Baina... Ai! Zer da zapaldu dudana hau!"

Sarean harrapatuta

'Aupa Etxebeste!' eta azpitoluak

Aupa Etxebeste!, mende honetan euskaraz egin den lehenengo filma, ikusgai ez ezik hizpide ere izan dugu azken asteotan. Ikusleek eta kritikak harrera beroa egin diote, oro har, Asier Altuna eta Telmo

Esnalen filmari, baina euskarazko bertsiotik orijinala gaztelaniazko azpitoluarekin emateak ika-mika ere sortu du. Azpitoluen gaiaren inguruan eztabaida izan da *Goiena.net*-en. Hemen iritzi batzuk.

AZPITITULUEK IKUSLEA UXATZEN DUTE

Praktikotasun aldetik eta ahalik eta ikusle gehien lortzeko, nik uste dut hobe dela Espainian filma gaztelaniaz bikoiztuta ematea. Beharbada egia da azpitoluak hobeto gordetzen dutela filmaren izaera eta nortasuna, baina nor ez da beldurtzen oraindik "jatorrizko bertsiotik, azpitoluarekin" iragarkitxoak ikusten duenean? Horrek ikusle asko uxatzen ditu. Euskal Herriko zein Espainiako ikusleok ez dugu azpitoludun filmak normaltasunez ikusteko kultura eta ohi-turarik.

Nik ulertzen dut azpitoluak ondo daudela kasu batzuetan, baina filmak ahalik eta ikusle gehien izan ditzan bikoizketa askoz hobea da. Euskal zinema zabaldu nahi bada, uste dut kanpoko ikusleei ahalik eta erraztasun gehien eman behar zaiela.

Marije / www.goiena.net

HEMEN EGINDAKO FILMA EUSKARAZ

Japonian egindako filma hemen azpitoluarekin ikustea bai, edo hemengo Japonian. Baina euskaraz egin den filma hemen gaztelaniaz dauden azpitoluarekin ikustea? Non bizi gara? Nori begira.

Ines / www.goiena.net

EUSKARA BULTZATU BEHAR DUGU

Ez nago zurekin ados Marije. Hizkuntza normalizazioan elkarbizitzen ikastea da niretzat oinarria. Munduan gure hizkuntzari balore propioa eman behar diogu. Aurretik azaldu diren arrazoi arabera orduan, ez al da hobe soilik ingelesera bikoiztea? Hala mundu guztiak ulertuko luke eta ikusle pila bat izango litzuke.

Berdina gertatzen da estatuko beste hizkuntza batzuekin ere.

Bartzelona futbol taldeko presidenteak katalanez hitz egiten du komunikabide guztietan eta azpitoluak jartzen dituzte. Aldiz, Egibar hitz egiten irtetzen bada gaztelaniaz egiten du.

Martxelina / www.goiena.net

ERDARAZ DAUDENEI ERE AZPITITULUAK JARRI

Ines, bikoiztuta ez, baina azpitoluarekin bai. Galdetzen duzu ea non bizi garen. Bada, Comunidad Autonoma Vasca-n, bi hizkuntza ofizialekin eta euskara ez dakiten pertsonaz inguraturik. Hor-taz, ongi ikusten dut euskarazko filmei gaztelaniazko azpitoluak jartzea eta gustatuko litzaidake erdarazko film guztiei euskarazko azpitoluak jartzea.

Tarantinobasc. / www.goiena.net

AZPITITULUENA ETB-REN SOLUZIOA IZAN DAITEKE

Printzipioz, berdin dit nola ikusi edozein film, garrantzitsuena filma da eta ez hizkuntza. Baina argi dudana da behin egiten den euskal filma ez dudala gaztelaniaz ikusiko. Patetikoa iruditzen zait azpitoluak jartzea, horretarako gaztelaniaz jarri eta kito! Hala ere, azpitoluak jartzearena ondo iruditzen zait, adibidez ETB1entzako, orain dela urte batzuk egiten zen moduan.

Jone / www.goiena.net

www.goiena.net

Aupa Etxebeste! filma azpitoluarekin jartzea ondo iruditzen zaizu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera


Halaxe erantzun digute

Zientzia eta teknologiaren astea da EAEn. Etorkizunean ze lotura izango dute gizakiek eta makinek



JUAN FELIX GARTZIA | FAGORREKO I+G+B-KO ZUZEN.

Makinak beti gure menpe egongo dira, gure lana errazteko daudelako eta inoiz ere ez guri agintzeko. Gure bizitza, modu batean, erosoago bihurtzeko dira makinak. Hau da, ondo funtzionatuko dute, gure aginduetara egongo dira beti eta guri lanik eman gabe funtzionatuko dute.



NURIA HERRASTI | IKERLANEKO IKERLARIA

Etorkizunean hobetu egingo dira gizaki-makina arteko harremanak. Makinek gure esaldi, keinu, aurpegiko keinu eta gure egoerak baloratu eta interpretatuko dituzte, eta horren arabera erreakzionatuko dute eta gurekin komunikatuko dira gure esanak beteaz.



ANDRES POBLACION | SARETEK-EKO ZUZENDARIA

Gailu elektronikoko ikusezinak izango ditugu eskura, giza itxurako robotak izango ditugu lagun, giza-makina sinbiosia erabatekoa izango da protesi bidez eta Adimen ingurumenari esker, gizakia lan gogorrenetatik aske geratuko da giza faktorea indartuz eta gizakia sistemaren zentro bihurtuz.



ASIER IBAIBARRIAGA | ZERMIK INGENIERITZAKO ZUZEN.

Aisialdia bihurtu zaigu gure bizitzaren ardatz eta etxetik kanpo bagaude prestatu gabe utzi dugun afaria, garbigailua, berogailua... teknologiak ahalbidetuko digu gertu izatea. Presaka eta erositasunaren bila bizi gara, nahi ditugun gauza denak nola egin asmatu ezinda.



Egunkarietako harribitxiak

AGUR BARRA-KODEARI?

Ilararik itxaron gabe supermerkatuko kutxan ordaintzeko aukera ematen dute; aukeratutako alkandorak dendako zein jakarekin konbinatu erabakitzen laguntzen dute edo erositako oilaskoa zein baserritan hazitakoa den jakiten laguntzen dute. Halako txip zoragarriak ei daude merkaturatzeko prest.

'Deia'
2005-11-06



DIRU MERKEAREN AJEA

Ekonomia adituek denbora daramate Europako Banku Zentralak interes tasak noiz igoko dituen aurreikusi nahian, eta 2006rako apustuak nagusitzen ari dira. Euroguneko ekonomia susperraldi herrenari eta inflazio indartsuari erreparatzen diete, baina emaitzak ere irakurketa ezberdinak dituzte. Egia ziur bakarra da EBZko presidentek duela giltza. EBZk diruaren balioa zenbat eta gehiago igo,

orduak eta gehiago hazten da ia beti euriborra, eta hilerok ordaindu beharreko kuota ere bai. Analistek aurreikusi dute orain %2an diren interes tasak 2006an apurka igotzeari ekingo diola EBZk, eta bada data abendura aurreratu duenik ere. Egoera berrira egokitzen ari da merkaturak, eta 12 hilabeterako euriborra azken bi urte eta erdiko maila altuenera iritsi da urrian.

'Berria'
2005-11-06



Tira, tira...



Merkea! Eskulan merkea, lagun!

Tasio 'Gara' | 2005-XI-06

Egunkarietan irakurri dugu

'El Mundo'

MAREA BELTZA

Hau 68ko maiatza da, baina beste kolore batekoa. Etorrin gehiago dago eta seguru asko, gose handiagoa. Egia esan, manifestazioan ateratzen direnak Pariseko hil biziak dira. Horregatik da hain arriskutsua kutsatze efektua. Hil biziak asko direlako, gizarte burgesak eta politikari megalomanoek uste dutena baino askoz gehiago.

James Andrews
2005-11-06

'Deia'

PARIS, EUROPARENDAKO ABISUA

Nicolas Sarkozy Barne Ministroak uste du talde islamiar erradikalek edo antolatutako taldeek manifestazioak manipulatu egiten dituztela. Arrazoia izan dezakeen arren, egia dena da, aspaldi nabari zela gutxien duten horiek ez zeudela pozik. Eta argi ikusi zen, adibidez, ikastetxeetan belo arabiarra eramatea debekatu zenean.

Editoriala
2005-11-06

'Gara'

BOLBORAREN LORRATZA NOLA GERATU

Ez da ahaztu behar, ondoeza ez dagoela bakkarririk periferia beroetan; gogoratu, bestela, zein nabaria izan zen ondoez hori soldaten erosteko ahalmena galtzean egindako greban. Testuinguru horretan, itsulapikoa zabaltzeak aukera eman diezaioke Frentea Nazionalari eta eskuma larritu egin da 2007ko hauteskundeei begira.

Editoriala
2005-11-06

'Berria'

ALDIRIETAN

Ez diote iraganari begiratu, ez dira gertatzen ari denaren arrazoiak peskizari hasi, ez dute galdetu "zer egin dugu gaizki?". Lehendabizi egurra eta gero gerokoak. Sutan zeuden, eta orain frantsesek hainbeste goratzen zuten eredu solidarioak hartu du su izkina guztietatik, agerian jarritz zabor gehiago zuela uste zuten distira baino.

Anjel Lertxundi
2005-11-06

Zorroztailea



No future

Atzo aurkeztu zituzten Bilbon RIP taldeari buruzko DVDa eta CDa, egileak eta bizirik dauden taldeko bi kideak hantxe zirela .../... Batetik RIP punk talde arrasatearraren gaineko dokumentala .../... Bestetik CDan biltzen dira RIPen 14 kantu.

'Goienkaria' | 2005-11-04

Jota Jota Arrieta

Anakronia. Nola aldatzen diren gauzak, kamarada. Hona garai baten genuen leloa: *No future*. Leloak gu. Hogeita bost urte geroago hemen gaude atzera begira, adurra dariola (darigula), garai haietan eginikoak loriatzen. Hortaz bada, etorkizuna egon bazeon. Behar bada leloa zuzenean zelako ezin orain disimulatu (Carpe diem esan nahi genuen, baina latinez ez genekien eta beste atera zitzaigun...).

Akronia. Gauza bera, ezin disimulatuarena, gertatzen zaie gure herrian lanean fin-fin ari diren bizpahiru spray-komandori. Mezu zuzenegiak jartzen dituzte, eta hauek, jakina, earto erretratzen dituzte egileak (euren kalterako gehienetan). Esate baterako, XXXek 4 egun daramatza gose eta egarri greban azken bi hilabete-

tan (?). Esango nuke XXXen egoera larriari (gose grebak beti dira egoera larriak) seriotasuna kentzen diola pintadak. Pintada eta kantada.

Ukronia. Ez dira aurrekoak, baina, spray-komando bakarra. Non eta Eskoriatzan, noiz eta XXI. mendean, laborantza eta abeltzaintza zer diren ia ahazturik daukagun gizarte honetan, honatx pintada mordoxka ur eta larre libreak eskatuz!, horratx besteren bat Felix Likinianoren izena goraiapatuz (eta izana, on se supose).

Aurrerago Oteiza handiaren otoizlabur bat. Egia esateko Proudhome "jabetza oro lapurreta da" esaldiaren falta sumatu dut, baina hala ere hunkitu egin naute. Bada oraindik poesiako beta munduan. Izango dugu etorkizunik utopiara begiratzen badugu: Future on (eta ona gainera).

"Hona garai bateko leloa: No future. Leloak gu. Hogeita bost urte geroago hemen gaude atzera begira, adurra dariola"

"Bada oraindik poesiako beta munduan. Izango dugu etorkizunik utopiara begiratzen badugu: Future on (eta ona gainera)"

KIROLA

- Verkol Aloña taldeak 18-18 berdindu du etxean jokaturako lehen neurketa | 14
- Mugarri Alkesako mutilek puntu bategatik galdu dute Durangon | 15



Mikel Etxabe
futbolariarekin
jardun genuen
atzo, Ipurua
futbol zelaian | 21

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

UDA

2-2

MONDRA

UDA | Eriz, Raul Sanchez, Torres, Armandariz, Iturbe (Jon Iregi, 33. min.), Arenaza, Orueta (Cocho, 39. min.), Arrieta (Kepa, 85. min.), Arriaga (Unamuno, 72. min.), Garcia eta Espinosa.

Mondra | Zabaleta, Mercader, Etxeberria (A. Garmendia, 73. min.), Alarcia, Laspiur, Rueda, Garai (Maikel, 80. min.), Ander Bereziartua, Aritz Bereziartua (Heriz, 70. min.) (Aranbarri, 90. min.), Iker Lopez (Argider, 86. min.) eta Josu Zubikarai.

Golak: 1-0 Espinosa (13. min.), 1-1 Laspiur (47. min.), 2-1 Arriaga (70. min.), 2-2 Maikel (83. min.).

Epailea | Juan Ramon Casanova jauna. Apartekorik ez. Epaitzeko neurketa gogorra zen. Bi jokalarik kanporatu zituen.

Bestelakoak | 600 ikusle Ibarren. Hotz egiten zuen, baina animoak azkar berotu ziren ikusleen artean. Giro ona egon zen harmailetan.

Bikain

Igor Arenaza eta Iker Lopez
Ondo aritu ziren bi jokalariek, bakoitza bere taldearendako. Igor Arenazak lehen zati bikaina egin zuen UDAREndako. Mondrako Iker Lopez azkar eta argi ibili zen aurrealdean.

Kaskar

Aldageletako istiluak

Behin norgehiagoka amaituta eta jokalariek aldageletara zihoazela istiluak sortu ziren zenbait jokalariren artean pasilloan. Irainak izan ziren. Laster amaitu zen tentsio unea, baina itsusia izan zen.

Esandakoak

"Taktikoki partidu oso ona egin dute Mondrako jokalariek. Etxean berdinketa lortzea ez da emaitza oso ona guretako".

IGOR ARENAZA |
UDAKO JOKALARIA

"Tentsio handiko partidua izan da. Puntu bakarra lortu dugu gaur, baina urrezkoa da etxean garaipenak lortzeko gauza bagara".

ANDONI AZKARGORTA |
MONDRAKO 2. ENTRENATZAILEA



AITOR LIZARRALDE

Gogotsu aritu ziren bi taldeetako jokalariek. Iban Espinosak (argazkian 1.goa eskumatik) sartu zuen lehenengo gola.

FUTBOLA | 600 LAGUN ELKARTU ZIREN IBARRAN UDA-MONDRA DERBIA IKUSTEKO

Neurketa ikusgarria egin zuten Mondrak zein UDAK

Mondrak aukera gehiago sortu zituen, baina UDAK egin zituen golak aurretik. Azkenean, berdinketarekin amaitu zen tentsio handiko partidua

Larraitz Zeberio

Polita izan zen atzoko derbia. Alde batetik giro polita sortu zelako Ibarren elkartutako 600 ikusleen artean, eta bestetik UDAK zein Mondrako jokalariek dena ematen ikusi genituelako futbol zelaian.

Neurketa hasi eta minutu gutxira estreinatu zuen markagailua UDAK. Hasieratik fisikoki joko gogorra egiten ikusi genituen bi taldeetako jokalariek eta etxeko taldearen aukera 13. minu-

tuan iritsi zen. Iban Espinosak egin zuen Aretxabaletako taldearen lehen gola. Arenazak bidali zuen baloia area barrura. Piruk Ibani pasatu zion eta honek zuzenean sarera bidali zuen.

Ez zen gol gehiagorik ikusi lehen zati osoan. Mondrako jokalariek buru-belarri saiatu ziren. Sarritan hurbildu ziren UDAREN areara, baina ez zuten jaurtiketetan zortetik izan. Lehen zatirean amaieran hasi ziren animoak berotzen Ibarren. Tartean Iker Laspiur eta Erikoren arte-

ko hika mikak izan ziren. Bestalde, UDAKO entrenatzaile Felix Reciok bi aldaketa egin behar izan zituen lehen 45. minutuetan Iturbek eta Oruetak min hartu zutelako.

Denetarik egon zen partiduan; joko ona, tentsio unek eta lau gol

Partidu gogorra aurreikusten zen eta horrela izan zen. Jokalariek oso gogotsu aritu ziren

TENTSIOAK GORA EGIN ZUEN
Bigarren zatia benetan polita izan zen ikusteko. Mondrako jokalariek gogotsu irten ziren zelaira eta berehala lortu zuten berdintzea. Iker Laspiurrek egin zuen arrasatearren lehen gola.

Aukera gehiago ere sortu zituen Mondrak, baina UDAK aurreratu zen berriz ere markagailuan. Igor Arriagak egin zuen aretxabaletarren bigarren eta azken gola.

Azken 15 minutuak istilutsuak izan ziren. Hamar jokalariekin jokatu zuten bi taldeek epaileak Iker Laspiur eta Igor Arenaza kanporatu zituelako.

Mondrak 83. minutuan lortu zuen berriz berdintzea. Muxi ordezkatzera irten berritako Maikel Hernandezek egin zuen taldeak behar zuen bigarren gola.

PREFERENTE MAILA



AITOR LIZARRALDE

Unai Arregik, 10. zenbakiarekin, penaltiz sartu zuen lehenengo gola.

Aloñak uste baino gehiago sufritu zuen irabazteko

ALOÑA MENDI
2-1
HONDARRIBIA

Aloña Mendi | Elgarresta, Sanchez (Garai, 59. min.), Losada (Zubia, 45. min.) Elgarresta, Igartua, Roberto (Aramendi, 93. min.), Arregi (Henry, 76. min.), Olalde, Barrena, Arregi II.a (Astigarra, 70. min.) eta Astola.

Hondarribia | Amiano, Berasaluze, Gari, Joseba, Poli, Eneko, Nogueira (Balda, 78. min.), Reteigi (Amunarriz, 71. min.), Elberdin (Egoitz, 60. min.), Ibai eta Patxi.

Golak: 1-0 Unai Arregi (penaltiz, 17. min.) 1-1 Patxi (20. min) 2-1 Roberto (69. min.).

Epailea: Ibañez jauna. Aloñari 7 txartel hori atera zizkion eta Hondarribiari 2.

Arantzazu Ezkibel

Aloña Mendik asko sufritu behar izan zuen garaipena lortzeko domekan Azkoagainen. Hondarribiak partidua bere gain hartu zuen eta Aloña baino gehiago izan zen zelaian.

ALOÑA HONDARRIBIAREN JOKORA MOLDATU ZEN

Hondarribiak zelaian erdi indartsuagoa atera zuen eta hori dela eta Aloñak bere jokoa moldatu behar izan zuen.

Lehenengo zatiko 16. minutuan, epaileak Aloñaren aldeko penaltia adierazi zuen. Unai Arregik hartu zuen penaltia jaurtizteko ardura eta ez zuen huts egin. Baina pozak gutxi irauan

zuen; 20. minutuan Patxi berdinketaren gola sartu zuen-eta.

Hondarribiak aurretik jartzeko aukera polita izan zuen partiduko 30. minutuan. Epaileak penaltia adierazi zuen kanpoko taldearen alde, baina ez zuten baloia sareetan sartzea lortu.

Aloña bigarren golaren bila zebilen eta horretarako baloi luzeak jokatzen saiatu zen. 37. minutuan, Igartuak area barruan izandako falta ez zuzena jaurti zuen baina ez zuen asmatu.

Bigarren zatian gauzak nahiko berdintsuak izan ziren. 69. minutuan Robertok kornerretik ateratako baloia errematatu eta 2-1 jarri zuen markagailuan. Azkenean, beraz, entseaturako jokaldietan etorri ziren Aloñaren golak.

Bergarak ez zuen lortu baloia sareetan sartzea

ELGOIBAR
3-0
BERGARA

Josu Zubiaren mutilek joko ona egin zuten. Zelai erdiaren jabe egin ziren eta baloia ongi mugitu zuten partidua guztian.

PENALTIA HUTS EGIN ZUTEN

Ondo jokatu arren, zapatuan zoria ez zuten alde izan bergarrek. Elgoibarkoak hiru aldiz iritsi ziren atera eta hiruretan gola egin zuten. Atsedenean 2-0 aurretik zihozten etxeok. Bigarren zatian, bergarrek penaltia izan zuten alde. Hala ere, ez zuten baloia sareetan sartu eta hiru puntuak Elgoibarren geratu ziren.

Arantzazu Ezkibel

Zapatu arratsaldekoa aukera askoko partidua izan zen arren, Bergarak ez zituen aprobetxatu eta azkenean Elgoibartik esku hutsik etorri zen.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK

| | |
|-------------------------|-----|
| Zestoa-Allerru | 6-3 |
| UDA-Mondra | 2-2 |
| Touring-Berio | 0-0 |
| Pasaia-Irun 1902 | 2-1 |
| Oriko-Anaitasuna | 2-1 |
| Aloña Mendi-Hondarribia | 2-1 |
| Idiazabal-Trintxerpe | 1-5 |
| Beti Gazte-Hernani | 1-4 |
| Mutriku-Zarautz | 3-2 |
| Ordizia-Real Union | 2-1 |

SAILKAPENA

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|-----------------|---------|----|---|---|---|----|----|
| 1. Real Union | 27 | 11 | 9 | 2 | 0 | 23 | 10 |
| 2. Aloña Mendi | 25 | 11 | 8 | 2 | 1 | 23 | 11 |
| 3. Ordizia | 25 | 11 | 8 | 2 | 1 | 17 | 6 |
| 4. Mutriku | 21 | 11 | 7 | 4 | 0 | 18 | 14 |
| 5. Aretxabaleta | 21 | 11 | 6 | 2 | 3 | 21 | 11 |
| 6. Pasaia | 21 | 11 | 5 | 0 | 6 | 20 | 12 |
| 7. Mondra | 20 | 11 | 6 | 3 | 2 | 20 | 12 |
| 8. Trintxerpe | 17 | 11 | 5 | 2 | 4 | 17 | 15 |
| 9. Touring | 15 | 11 | 4 | 4 | 3 | 19 | 19 |
| 10. Zarautz | 14 | 11 | 4 | 5 | 2 | 21 | 14 |
| 11. Idiazabal | 12 | 11 | 2 | 3 | 6 | 14 | 17 |
| 12. Berio | 12 | 11 | 2 | 3 | 6 | 13 | 13 |
| 13. Zestoa | 12 | 11 | 3 | 5 | 3 | 15 | 16 |
| 14. Hernani | 11 | 11 | 3 | 6 | 2 | 11 | 20 |
| 15. Beti Gazte | 10 | 11 | 2 | 5 | 4 | 13 | 17 |
| 16. Hondarribia | 10 | 11 | 2 | 5 | 4 | 11 | 19 |
| 17. Oriko | 9 | 11 | 2 | 6 | 3 | 13 | 25 |
| 18. Anaitasuna | 8 | 11 | 2 | 7 | 2 | 9 | 16 |
| 19. Irun 1902 | 7 | 11 | 1 | 6 | 4 | 9 | 23 |
| 20. Allerru | 5 | 11 | 1 | 8 | 2 | 6 | 23 |

HURRENGOAK

| |
|------------------------|
| Allerru-Real Union |
| Mondra-Zestoa |
| Berio-UDA |
| Irun 1902-Touring |
| Anaitasuna-Pasaia |
| Hondarribia-Oriko |
| Trintxerpe-Aloña Mendi |
| Hernani-Idiazabal |
| Zarautz-Beti Gazte |
| Ordizia-Mutriku |

Bigarren Erregionala

Antzuolak lehen zatian utzi zuen erabakita neurketa

URKI
2-5
ANTZUOLA

esan digu Jose Luis entrenatzaileak. "Igoerako postuetan sartu nahi dugu orain. Ilusio handia daukagu".

ATSEDENERAKO 0-3

Lehen zatian erabakita utzi zuen Antzuolak Urkiren aurkako norgehiagoka. Hiru gol egin zituzten Antzuolakoek lehen 45 minutuetan. Etxekoak baino gehiago izan ziren uneoro.

Ibai Azkaratek bi gol egin zituen Antzuolarendako. Gainerakoak Aitor Berraondok, Bolinagak eta Jon Godoik egin zituzten.

Bigarren zatian hasieran egin zuen lehen gola Urkik. Jarraian laugarrena eta bosgarrena egin zituen Antzuolak. Amaitzeko bost minutu falta zirenean egin zuen bigarrena Urkik.

Partiduko protagonista, zalan-tzarik gabe, epailea izan zen. Oso mutil gaztea. Antzuolaren aurkako hiru penalti adierazi zituen eta bi jokalarik kanporatu zituen.

Hala eta guztiz ere, debagoiendarren nagusitasuna nabarmena izan zen eta garaipenak ez zien ihes egin. Datorren astean derbia izango dugu 2. erregional mailan: Antzuola - UDA.



PABLO OLALDE

Antzuolako taldeak emaitza onekin bukatu du 1. itzulia.

Asteleheneko Goienkaria

Fin dabilta Antzuolako mutilak. Zapatuan 2-5 irabazi zioten Urkiri eta sailkapeneko lehen postuetan amaitu dute txapelketako lehen itzulia. "Emaitza onak lortu ditugu lehen itzuli honetan",

• EMAKUMEZKOEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Azken unean lortu zuen berdintzea Verkol Aloñak

Garaipenaren bila irten ziren oñatiarrak, baina atzetik ibili ziren markagailuan



Olatzek, ezkerrean, partidu ona egin zuen.

AITOR LIZARRALDE

VERKOL ALOÑA 18-18

UPV ASKARTZA

Verkol Aloña | Maialen G, Maialen B., Nagore, Itsaso, Jone (4), Ainhoa D., She-rezane (1), Ainhoa U. (6), Cristina, Saioa (1), Erixe (2), Olatz (4), Maite eta Ane.

UPV Askartza | Ainhoa (3), Irune, Andra (3), Idoia (7), Begoña, Aixa (3), Garazi, Jerusalem (2), Leire, Amaia, Nagore eta Jaione.

Golak bost minuturo: 0-1, 1-3, 2-4, 4-5, 5-7, 6-9. Atsedena. 9-11, 11-11, 12-12, 14-14, 15-15 eta 18-18.

Larraitz Zeberio

Etxean jokaturako lehen neurketa berdindu egin zuten zapatu arratsaldean Verkol Aloñako neskek. UPV Askartza ez da talde gogorra eta garaipena lortzeko itxaropenarekin irten ziren kantxara oñatiarrak, baina atzetik ibili ziren ia neurketa osoan.

Askartzako jokalaria handiagoak ziren, baina ez askoz ere azkarragoak jokoan. Etxekoek, ordea, motel hasi zuten partidua eta konturatu orduko lau goleko aldea zuten kontra markagailuan. Lehen 30 minutuak nahiko aspergarriak izan ziren Zubikoan bildutako ikusleendako. Erritmo motela eta itxurazko jokaldi gutxi izan ziren.

BIGARREN ZATIA HOBETO
6-9 emaitzarekin amaitu zuten lehen zatia Oñatikoe. Bigarren zatiaren hasieran, ordea, itxura hobea eman zuen Verkol Aloñak hasieratik beretik.

Olatz eta Ainhoa Unamuno nabarmendu ziren bereziki erasoan eta taldeak baloi lapurreta asko egin zituen. Zirrargarria izan zen neurketa amaiera, bi tal-

deak berdinduta zeuden eta markagailuan. Oñatiarrek galdutako aldea murriztea lortu zuten partiduen amaierarako hamar minuturen faltan, eta zenbait unetan aurretik ere izan ziren markagailuan.

Azkensegunduetan jokatu zen berdinketa. Askartza aurretik zen, baina penalti bati esker berdinketa egin zuten etxekoek.

• SENIORRAK

Bergarak 31-23 galdu zuen Ormaiztegin

A.E

Bergarako senior mailako mutilek ezin izan zuten punturik eka- rri domekan Ormaiztegitik. Partidu txarra jokatu zuten eta azkenean 31-23 galdu zuten.

HASIERATIK ATZETIK

Ormaiztegiko taldea gehiago izan zen partidu hasieratik. Lehenengo zatiaren amaieran 5 goleko aldea zuten etxekoek eta bergarrei zaila egin zitzaizen alde hori murriztea. Orokorrean joko txarra egin zuen talde mahoneroak; atzean eskas ibili ziren eta aurrean bizitasuna falta izan zitzaizen.

• GAZTEAK

Arrasatek erraz gainditu zuen Bergara: 27-32

A. E

Arrasateko Gatz-Museoa taldeak bost goleko abantailaz irabazi zion zapatu arratsaldean Labe-garrietan jokaturako derbia Bergarari

Mondragoetarrek talde indartsuagoa direla argi utzi zuten. Atsedenera 14-18 heldu ziren, aurretik. Defentsan oso ondo aritu ziren, inongo zulorik utzi gabe. Bergarrek berriz, defentsan ondo aritu arren, aurrealdean bizitasuna eta zehaztasuna falta izan zuten. 6 metroko jaurtiketak hobetu beharra dute bergarrek, bereziki hegaleko jaurtiketak.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Lehen minutuak zailak izan ziren

FORD MUGARRI 25-19

URNIETAKO

Larraitz Zeberio

Emaitza onak lortzen ari dira Andoni Arandoren mutilak. Asteburu honetan beste garaipen bat eskuratu dute Urnietako taldearen aurka.

Nahiko neurketa berdindua izan zen joko mailan, nahiz eta etxekoak beti aurretik joan.

AMAIERA ONA

Partiduko lehen minutuak izan ziren gogorrenak Arrasatekoendako. Atsedenera aldeko lau puntuko tartearrekin iritsi ziren, baina kosta egin zitzaizen abantaila hori zabaltzea.

Bigarren zatian lasaiago ibili ziren markagailu aldetik baina kantxan lan handia eginda. Urnietak ez zuen ezer oparitu. Ondo aritu ziren erasoan eta baloiak gelditzen aipagarria izan zen Arrasateko atezainaren lana.

“Taldea ondo dabil”, esan zigun partidu amaieran Jon Lonbide jokalaria. “Oraindik, ordea, bada zer hobetu. Defentsan, esaterako, lan handia dugu egiteko”.



Ford Mugarrikoek lan ona egin zuten defentsan.

AITOR LIZARRALDE

Emaitzak

MAILAZ MAILA

NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA
Verkol Aloña-UPV Askartza 18-18

LEHENENGO TERRITORIALA
Ormaiztegi -Bergara 32-24
Arrikruz Oñati -Elgoibar atzeratua
Ford Mugarri Arrasate-Urnieta 25-19

BIGARRENGO TERRITORIALA
Arrasate Eskubaloia Atsedena

GAZTE MUTILAK
Aloña-Mendi Atsedena
Bergara-Gatz Museoa 27-32

GAZTE NESKAK
Verkol Aloña-Eharia 14-13
Bergara-Arrasate 39-01

KADETE MUTILAK
Egia-Aloña-Mendi 29-27
Donibane-Gatz Museoa-Jakion 32-23

KADETE NESKAK
Leitzarano-Verkol Aloña 04-14

• SENIOR NESKAK

Oñatiarrek 35-40 galdu zuten etxean

Denboraldia txarto hasi dute Aloñako neskek. Hiru partidu jokatu dituzte eta hirurak galdu. Hala ere, taldeak hobera egin du nabarmen

ALOÑA MENDI
35-40
LASARTE

Aloña Mendi | Arregi (4), Agiriano (2), Irureta, Orueta (2), Maiztegi (2), Lopez, Raket (7), Urmeneta, Legaristi (2), Urkia (2), Arzamendi (2) eta Barrera (12).

Lasarte | Perez (10), García (4), Corbacho, Lopez (2), Redondo (7), Bermejo (6), Castro, Alonso (4), Landa (5) eta Tobajas (2).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 12-9. Bigarren laurdena 21-22. Hirugarren laurdena 29-33. Laugarren laurdena 35-40.


eta lehen laurdena bukatu orduko 12-9 aurreratu ziren. Aloñako alde 12 puntuko partziala izan zen, beraz.

ALOÑA DEFENTSAN SENDO

Banakako defentsa jokatu zuten oñatiarrek eta oso emaitza onak lortu zituzten. Atzealdean sendo aritu ziren. Lasarteko taldeak baloia mugitzeko zailtasunak izan zituen, Aloñakoek ez zuten zulo-rik utzi-eta. Hala ere, aurkariek kanpoko jaurtiketa asko saskiratu zituzten. Oso jaurtitzaila onak zirela erakutsi zuten Zubikoa kiroldegian.

Aloñako neskenentzat aurrealdean gauzak bestela izan ziren. Sare azpiko jaurtiketa asko huts egin zituzten; zehaztasun gutxi izan zuten.

Jokoari dagokionez, baloia mugitu eta espazioak eratu behar-rean, Lasarteko defentsa apur-tzen ahalegindu ziren. Jokaldi askotan lortu zuten sare azpira baloiarekin heltzea, baina azken momentuan konfiantza gutxi erakutsi zuten oñatiarrek euren buruarengan eta jaurtiketa oso garbiak huts egin zituzten. Eta



AITOR LIZARRALDE

Aloñako neskek jaurtiketetan huts asko egin zituzten

horrelakoetan badakigu zer gertatzen den.

ZEHAZTASUN FALTA

Atsedenera puntu bat azpitik iritsi zen Aloña; 21-22. Bigarren zatia nahiko berdindua izan zen. Aloñak aldea murriztea nahi zuen, baina jokalariek konfiantza gutxi erakutsi zuten euren buruarengan eta ez zuten asko jaurti saskira.

Partidua bukatzeaz zela, Alo-

ñak 6 jaurtiketa libre izan zituen bere alde baina lehenengo Nerea Urmenetak eta gero Estik huts egin zuten eta ez zuten jaurtiketa bat bera ere sartzea lortu. 6 puntu hauek eskuratuz gero, emaitza beste bat izango zatekeen.

Aloñako entrenatzaileak adierazi digunez, taldeak asko hobetu du. Asteaz zehar lan gogorra egiten ari dira neskek eta hori kan-txako jokoan nabari egiten da.

• 2. MAILA NAZIONALA

Eskoriatzak ligako lehen bi puntuak lortu zituen zapatuan

S. AS. HERMOSILLA
53-56
ESKORIATZA

A. E

Eskoriatza bi punturekin itzuli zen zapatuan Errioxatik. Javi Corbalen neskek ligan partidurik irabazi gabe zeuden oraindik. Beraz, gustura ekarri zituzten bi puntuak etxera.

ASKO SUFRITUTAKO PARTIDUA

Azkenean emaitza ona izan bazen ere, partiduan sufritzea tokatu zitzaizkien Eskoriatzako neskei. Partidua nahiko berdindua izan zen. Lehenengo partziala 16-11 etxeko aldekoa izan zen. Eskoriatzak joko ona egin zuen. Defentsan ondo aritu ziren, batez ere baloi galera gutxi izan zituzten. Hala ere, jokaldi samur batzuk huts egin zituzten eskoriatzarrek.

Bigarren partziala 13-13 izan zen eta hirugarrenean 7-14 aurreratu ziren Eskoriatzako neskek. Partidua berdinketarekin amaitu zenez, luzapena jokatu behar izan zuten. Javi Corbalen neskek fisikoki ondo iritsi ziren amaierara eta hori dela eta 5-8 nagusitu ziren luzapenean.

Aipatzekoa da luzapenean Olatzek sartu zituen hiruko saskiratzak. Horiei esker, markagailuan aurrea hartu eta partidua irabaztea lortu zuten. Azkenean, garaipena lortu zuen Eskoriatzak eta bi puntuak ekarri zituzten.

Arantzazu Ezkibel

Aloñako neskek lo hasi zuten partidua. Lehenengo minutuetan Lasarteko taldea 0-9 aurreratu zen markagailuan. Alde handia atera zioten oso denbora gutxian etxeko taldeari, eta oñatiarrek alde hori gaundituko ez zutela ematen zuen. Hala ere, Aloñak erantzuten jakin zuen

• LEHEN MAILA

Durangotik ezin garaipenik ekarri

TABIRAKO BAQUE
79-78
MUGARRI ALKESA

etan Durangokoek alde egin zuen zoriak.

JOKO ONA EGIN ZUTEN

Ander eta Beñat baja dira oraindik ere Mugarrri Alkesan. Hala eta guztiz ere, lan ona egin zuten Zurutzaren mutilek.

Lehen laurdenaren amaieran lau puntu aurretik ziren Durangokoak. Zonakako defentsa egitea erabaki zuten orduan Arrasatekoek eta erabaki ona izan zen, partidua berdintzea lortu zuten eta. Tamalez, atsedenerako emaitza aurkakoa zen berriz ere, 44-41.

Hirugarren laurdenaren hasieran lortu zuten Arrasatekoek aurretik jartzea. Lan ona egin zuten bai defentsan zein erasoan, eta za-



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Taula azpian ondo mugitu ziren arrasatearrak.

pi puntuko aldea zabaldu zuten. Zoritxarrez, Durangokoek erre-akzionatzen jakin zuten eta pixkanaka zulo hori murriztea lortu zuten. Lasaitasunak ez zuen, beraz, asko iraun Arrasatekoendako.

Neurketako azken uneak

gogorrak izan ziren benetan, oso lehiatuak. Azken uneotan, ordea, Durangokoak hobeto aritu ziren eta saskiratze gehiago egin zituzten. Mugarrrikoek izan zituzten aukerak, baina kale egin zuten zenbait jaurtiketetan.

Asteleheneko Goienkaria

Bi partidu galdu dituzte denboraldi honetan Mugarrri Alkesako mutilek eta biak Durangoko Tabirako Baque taldearen aurka.

Markagailuak erakusten duen moduan neurketa berdindua izan zen. Edonork irabaz zezakeen, baina azken segundo-

Emaitzak

| MAILAZ MAILA | |
|------------------------------|----------|
| LEHEN MAILA | |
| Tabirako-Mugarri Alkesa | 79-78 |
| NESKEN BIGARREN MAILA | |
| Hermosilla-Eskoriatza | 53-56 |
| SENIOR MUTILAK | |
| Ogiberri-Candy | 69-53 |
| Urteza-Aloña Mendi | 48-64 |
| SENIOR NESKAK | |
| Aloña-Mendi-Lasarte-Oria | 35-40 |
| GAZTE MUTILAK | |
| Easo A - Mugarri Alkesa | 93-52 |
| Araneta-Easo B | 36-61 |
| Aloña Mendi-Internacionak | 51-67 |
| GAZTE NESKAK | |
| Aloña Mendi-Internacionak | 33-34 |
| Bera Bera-Eskoriatza | 23-57 |
| KADETE MUTILAK | |
| Intxaurrondo-Mugarri Alkesa | 66-50 |
| Aloña-Mendi | Atsedena |
| KADETE NESKAK | |
| Bergara-Bera Bera | 41-93 |
| Eskoriatza-Ilba Grafikak | 22-33 |

Eskola kirola

BERGARA

Gol asko ikusi genituen benjaminek jokatu zituzten partiduetan

Ipintza institutuko jolaslekuan benjaminek areto futbolean jardun zuten

Bergara, Antzuola eta Elgetako taldeak aritu ziren elkarren aurka buru-belarri

Talde gehienak elkarrekin jokatzen duten neska-mutikoz osatuta zeuden

Geaxi Ezpeleta

Goizean goiz jaiki eta lehenengo partiduak ikustera hurbildu ginen Bergarako Ipintza institutura zapatuan. Baloia dantzan zebilen neska-mutikoen oinetan gu heldu ginenerako. Hotzari aurre eginez alde batetik bestera korrika zebiltzan gaztetxoak.

Batzuk galtzen eta besteak irabazten, baina denak jokatze-gogo izugarriarekin; ez zuen inork zelaitik kanpo begira egotarik nahi.

Elgetakoak ari ziren Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxearen aurka. Norgehiagoka polita. Hala ere, galtzaileak triste antzean zebiltzan, gol asko sartu zizkietela eta. Gaztetxoek erdi haserreek irribarreak sortzen zituzten bertan zeuden helduen aurpegietan.

Lehenengo partiduak amaitu orduko berotuta eta hasteko prest zeuden dagoeneko bigarren txandakoak. Laster hasi ziren hauek ere jo eta ke irabazteko ahaleginan, entrenatzaileen aginduak jarraituz.

ANTZUOLARREK PARTIDUA HERRIAN BERTAN

Zapatu goizerako hitzordua bazuten ere, ez ziren Antzuolako bi taldeak Bergarara hurbildu. Talde biak herri berekoak izanik partidua barikuan herrian bertan jokatzea erabaki zuten-eta.



GEAXI EZPELETA

Antzuola B. Amaia, Ane, Leire, Itziar, Ainhoa, Unai, Jon eta Mikel, daude argazkian.



GEAXI EZPELETA

Mariaren Lagundia B. Unai, Izar, Aitor, Christian, Jokin A., Amaia, Idoia, Jokin G., Jon eta Mikel, daude argazkian.



GEAXI EZPELETA

Elgeta. Naia, Maialen, Uxue, Maria, Goizaldi, Ibane, Adrian, Jon eta Josu, daude argazkian.



GEAXI EZPELETA

Aranzadi 3. Joanes, Asier L., Vesco, Asier E., Julen, Aitor, Andoni, Jokin, Imanol eta Iñigo, daude argazkian.

• NOLA KONPONTZEN ZARETE AURKARIEKIN?



MARIA, UXUE ETA MAIALEN | ELGETA

“Gehienetan ez gara oso ondo moldatzen. Nahiz eta askotan ez ditugun ezagutu ere egiten. Batzuetan golak sartzen dizkigutenean barre egiten digute eta guri hori ez zaigu batere gustatzen”.



VESCO ETA ASIER | ARANZADI 3

“Batzuetan gaizki eta besteetan ondo konpontzen gara. Hala ere, gehiegi ez gara haserretzen. Gu baino jokalaria txarra-koak direnean moldatzen gara ondoen”.



CHRISTIAN ETA IZAR | MARIAREN LAGUNDIA B

“Gaur oso ondo. Askogatik irabazten gozelako eta horrek umore oso onez jartzen gaituelako. Dena den, oraintxe bertan ezagutu ditugu”.



ANDONI | ARANZADI 3

“Aurkarien arabera hori. Ez gara denekin berdin konpontzen. Ondo, lagunak eta jatorrak direnean”.

FUTBOLA 05/06 DEBAGOIENEAN



Baloia jokoan da

Debagoieneko futbol taldeen gainera gehigarria duzue hau. Preferente mailatik hasi eta beheko mailetan diharduten talde guztien argazkiak aurkituko dituzue barruan. Azaleko jokalaria da UDA taldeko Jon Unamuno.

AZALA: MAITENA ARANA / ARGAZKIA: AITOR LIZARRALDE

%30 BEHERAPENA

[ZAP. WALKING HOMBRE] THOLCKE | ADIDAS

LEHEN PSP: ~~59,95€~~

PROMOZIOA

41,95€



www.forumsport.com

SPORTLAND
FORUM SHOPS
KIROLA ZEURE ESKURA

SPORTLAND ARRASATE
Garibai Etorbidea, 2-6

*Autumn
Winter
05*



IBARREKO TALDE NAGUSIAK

DEBAGOIENEN TALDE NAGUSIAK AZTERGAI

Partidu gehienak irabazita, goiko postuetan hasi dute denboraldia

Preferentekoak lehen zazpien artean daude; Bergara bigarren doa lehen erregionalean

Irati Agirreazaldegi

Ibarrean hiru taldek dihardute preferente mailan: Mondra, Aloña Mendi eta UDA. Bestalde, iaz mailaz jaitsi eta lehen erregional mailan dihardu Bergarak. Denboraldi hasiera ona egin dutela esan genezake. Saikapenean goiko postuetan daude.

GOI GOIAN

Aloña Mendi saikapeneko lehen postuetan dago; eta erakutsi duen joko onak eman dio toki hori. Gogor entrenatzen dihardute eta gainera postu guztietarako jokalaririk onak dituzte; beraz, horrela jarraituz gero, denboraldi amaie-

ran ere aurre samarrean izango direla pentsa genezake.

UDAk ere talde giro eta joko onaren ondorioz bost partidu irabazi ditu, bi berdindu eta beste bi galdu: lehena eta Touring-en aurka jokaturakoa. Behetik gorako bidean doala dirudi.

Mondra UDArengandik oso gertu dago saikapenean. Sei partidu irabazi ditu eta bi segidan galdu ostean berriz ere lehen martxari heldu dio.

Bergarak maila bat beherago hasi du denboraldia, baina lehen erregionaleko saikapenean goian dago. Hala ere, saikapenak ez die buruhauste handirik ematen; joko ona egitea eta talde moduan sendotzea dute helburu.

Aipatzekoa da, era berean, taldeak erakusten ari diren joko polita lortzeko entrenatzaileek egiten duten lana. Aurten izan da aldaketarik arlo horretan: iaz Mondran jardundako Josu Zubia Bergaran da orain; Igor Gordobil Bergararik Mondrara pasa da; UDak Neka Galanen ordeztu Felix Recio du entrenatzaile eta Oñatik, iaz bezala, Aitor Orueta.



UDAk eta Aloña Mendik jokatu zuten preferente mailako ibarreko lehen derbia; UDak irabazi zuen 3-0.

GOIENKARIA

• ENTRENATZAILEEN IRITZIAK



AITOR ORUETA | ALOÑA MENDI

“Gure helburua da ahalik eta azkarren 45 puntu eskuratzea”

“Taldea oso orekatua osatu dugu denboraldi honetarako. Asteazken zehar, entrenamenduetan gogor egiten dugu lan eta partiduetan entrenamenduetan bezala jarduten saiatzen garenez hori jokoan islatzen da. Denboraldi hasieran gol asko jaso genituen, baina pixkanaka gure joko orekatuz joan da eta defentsan egindako lan onari esker gero eta gol gutxiago jasotzen ari gara. Gure helburua da ahalik eta azkarren 45 puntu eskuratzea, horrek esan nahi baitu salbatuta gaudela. Urtarrilean muga horretara iritsiko bagina hurrengo hilabeteak ahalik eta puntu gehien eskuratzeko aprobeztatu genituzke; horrela saikapenean gorago egoteko. Oraingoz hori dugu helburu, 45 puntu eskuratzea, eta hortik aurrera joango gara beste helburu zehatzagoak ipintzen taldeari”.



IGOR GORDOBIL | MONDRA

“Jokalarien artean giro ona dago; eta joko ona egitea da gure helburua”

“Orain arte jokaturako partiduekin oso pozik gaude. Taldeak erakutsi duen jarraera eskertzekoa da. Jokalarien artean oso giro ona sumatu dut eta, era berean, ikasteko gogotsu daude denak. Preferente mailan talde guztiak nahiko parekatuta gaude jokoari dagokionez, eta gure nahia eta asmoa goian egotea bada ere, zaila da esaten zer gertatuko den. Kanpotik gauza asko entzun ditugu; besteak beste, igotzeko aukerak ditugula, gure taldea indartsua dela... Baina nik hori esaten dutenei pazientzia izan dezaten eskatuko nieke. Entrenatzen gogor dihardugu eta hankak ez ezik burua ere bere lekuan dugula erakutsiko dugu. Partidu guztietara asmo bera eraman ohi dugu buruan: joko ona egitea; eta helburu hori asmo hutsean gera ez dadin irabaztea”.



FELIX RECIO | UDA

“Konformatuko ginatete lehen sei edo zazpi taldeen artean saikatuta”

“Pentsatu bezala hasi dugu denboraldia; saikapan taulan erdialdean gaude, eta aurrerago ikusiko da zein bide hartzen duen taldeak. Iaz jaitsierako postuetatik oso gertu ibili ginela kontuan hartuta, aurten joko hobea egin nahi genuke. Hala ere, jokatu ditugun partiduetan gainontzeko taldeen joko ezagutzeko aukera izan dugu eta orain da ordua ahal dela pixkanaka gora egiteko. Hala ere, gure helburua ez da mailaz igotzea. Izan ere, badi-ra gure mailan aukera handiagoa duten taldeak. Konformatuko ginatete lehen sei edo zazpi taldeen artean saikatuta, eta gorago bada, hobe. Orain artean partidu guztiak jokatu dituen jokalaririk batek lesio larria izan du, eta ezingo du bi hilabetean jokatu. Baina horrelako beste ezustekorik ez, gure maila emango dugu”.



JOSU ZUBIA | BERGARA

“Aurtengo denboraldiko asmo nagusia taldea sendotzea da”

“Nahiko talde berria dugu denboraldi honetan. Kanpotik etorriak batzuk, gazte mailatik talde nagusira pasa direnak besteak... Hortaz, gure asmo nagusia da taldea sendotzea eta behin helburu hori lortuta ahal bada gora egitea. Denboraldia hasi baino ez dugu egin eta saikapenean nahiko goian gaude. Abendura bitarteko epea ipini dut jokoari martxa hartzeko, eta hortik aurrera gogor saiatu beharko dugu. Gure mailan 16 talde daude; erdiek nahiko joko ona egiten dute eta beste erdiek makalago dihardute. Beraz, talde eskasagoi irabazi egin behar diegu eta beste aurka puntu batzuk behintzat eskuratu. Jokalaririk ez dituz inola ere presionatu nahi aurten mailaz igo behar dugula esanez, errealistak izan behar dugu. Izan ere, talde bakarrak du aukera hori”.

IBARREKO TALDE NAGUSIAK



Mondragon Futbol Elkartea

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Jon Altzola, Aritz Bereziartua, Kepa Mercader, Jon Mondragon, Iker Laspiur eta Oier Zabaleta.
Erdian, ezkerretik eskumara: Ander Ruiz de Azua, Andoni Azpiazu, Markel Gonzalez, Iban Aranguren (prestatzaile fisikoa), Igor Gordobil (entrenatzailea), Andoni Azkargorta (bigarren entrenatzailea), Kepa Barbarias, Julen Heriz, Josu Zubikarai eta Gotzon Urtzelai.
Behean, ezkerretik eskumara: Iban Garai, Ekain Garin, Aitor Alartzia, Julen Aranbarri, Julen Garmendia, Iker Lopez, Illart Etxebarria, Ander Bereziartua eta Ruben Rueda.

Taldea

PRESIDENTEA

Jose Luis Azkarate

ENTRENATZAILEAK

Igor Gordobil

Andoni Azkargorta (2. entrenatzailea)

Iban Aranguren (prestatzaile fisikoa)

FISIOTERAPEUTA

Larraitz Madariaga

ATEZAINAK

Mikel Mondragon

Ander Ruiz De Azua

Oier Zabaleta

ATZELARIAK

Aitor Alartzia

Argider Arana

Kepa Barbarias

Markel Gonzalez

Iker Laspiur

Kepa Mercader

Ruben Rueda

ERDILARIAK

Jon Altzola

Julen Aranbarri

Ander Bereziartua

Illart Etxebarria

Iban Garai

Arkaitz Garmendia

Maikel Hernandez

Jon Loiti

Gotzon Urtzelai

Josu Zubikarai

AURRELARIAK

Andoni Azpiazu

Ekain Garin

Julen Garmendia

Iker Lopez



Aloña Mendi Kirol Elkartea

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Jon Ander Elgarresta, Xabier Camino, Jon Igartua, Iñigo Idigoras, Iker Maiztegi, Unai Moia eta Sergio Gil.
Erdian, ezkerretik eskumara: Aitor Orueta (entrenatzailea), Iñigo Arregi, Jokin Garai, Aitor Lopez, Iban Astola, Xabier Elgarresta, Iker Aramendi, Aritz Garmendia, Roberto Idigoras eta Ismael Egaña (bigarren entrenatzailea).
Behean, ezkerretik eskumara: Mikel Sanchez, Iñigo Zubia, Aratz Losada, Iker Olalde, Julen Barrena, Unai Arregi eta Jagoba Martin.

Taldea

PRESIDENTEA

Jabier Azpiazu

ENTRENATZAILEAK

Aitor Orueta

Ismael Egaña (2. entrenatzailea)

DELEGATUA

Jabi Ugarte

SENDAGILEA

Juan Ramon Barrena

FISIOTERAPEUTA

Oier Irizar

ATEZAINAK

Jon Ander Elgarresta

Sergio Gil

Iñigo Idigoras

ATZELARIAK

Aritz Agirre

Julen Barrena

Jon Igartua

Aitor Lopez

Aratz Losada

Iker Maiztegi

Iker Olalde

ERDILARIAK

Unai Arregi

Iban Astola

Xabier Elgarresta

Jokin Garai

Aritz Garmendia

Mikel Sanchez

Iñigo Zubia

AURRELARIAK

Iker Aramendi

Iñigo Arregi

Jon Astigarraga

Henry Bazan

Xabier Camino

Roberto Idigoras

Unai Moia

IBARREKO TALDE NAGUSIAK



UDA Kirol Elkartea

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Gaizka Eriz, Oxel Erostarbe, Rober Alonso, Iban Espinosa, Jon Torres, Erik Gartzia, Endika Kotxo eta Dani Galan.

Erdian, ezkerretik eskumara: Igor Arenaza, Jon Unamuno, Haritz Igartua, Jabier Etxeberria (delegatua), Felix Recio (entrenatzailea), Joseba Gonzalez, Hegoi Arrieta eta Raul Sanchez

Behean, ezkerretik eskumara: Unai Armendariz, Igor Arriaga, Imanol Rodriguez, Juan Nuñez, Iker Orueta, Jon Iregi eta Gorka Iturbe.

Taldea

PRESIDENTEA

Jokin Antxia

ENTRENATZAILEAK

Felix Recio

Kepa Azkue (2. entrenatzailea)

DELEGATUA

Jabier Etxeberria

ATEZAINAK

Iban Da Silva

Gaizka Eriz

ATZELARIAK

Unai Armendariz

Oxel Erostarbe

Jon Iregi

Gorka Iturbe

Raul Sanchez

Jon Torres

Jon Unamuno

ERDILARIAK

Igor Arenaza

Hegoi Arrieta

Erik Gartzia

Joseba Gonzalez

Haritz Igartua

Juan Nuñez

AURRELARIAK

Rober Alonso

Igor Arriaga

Iban Espinosa

Endika Kotxo

Iker Orueta

Imanol Rodriguez



Bergara Kirol Elkartea

Goian, ezkerretik eskumara: Ander Sesma, Iñaki Corral, Martin Ibañez, Eloi Crespo, Mikel Otero, Imanol Cabanillas, Txomin De Vega, Ignacio Dobao, Mikel Gallastegi, Andoni Rodriguez, Haritz Agirre, Alberto Laskurain (fisioterapeuta) eta Julio Hernandez.

Behean, ezkerretik eskumara: Unai Arana, Unai Agirre, Alex Abajo, Eldin Zivojevic, Bittor Gomez (delegatua), Neka Galan (bigarren entrenatzailea), Iñaki San Jose (presidentea), Josu Zubia (entrenatzailea), David Canas, Josu Agirrezabal, Jon Urteaga, Lutxi Herzog (delegatua), Gorka Martinez eta Andoni Nafarrete.

Taldea

PRESIDENTEA

Iñaki San Jose

ENTRENATZAILEAK

Josu Zubia

Neka Galan (2. entrenatzailea)

FISIOTERAPEUTA

Alberto Laskurain

DELEGATUAK

Bittor Gomez

Lutxi Herzog

ATEZAINAK

Julio Hernandez

Ander Sesma

ATZELARIAK

Haritz Agirre

Josu Agirrezabal

Unai Arana

Txomin De Vega

Mikel Gallastegi

Andoni Nafarrete

Jon Urteaga

Eldin Zivojevic

ERDILARIAK

Alex Abajo

Unai Agirre

David Canas

Eloi Crespo

Gorka Martinez

Mikel Otero

Andoni Rodriguez

AURRELARIAK

Imanol Cabanillas

Iñaki Corral

Ignacio Dobao

Martin Ibañez

MONDRAGON FUTBOL ELKARTEA

ELKARTEAREN NONDIK NORAKOAK

Hiru talde sailkapeneko lehenak eta besteak, aurre samarrean

Orain arteko joko mailari eutsiz gero, denboraldi amaieran talde guztiek Mondra leku onean utziko dutela uste du presidenteak

Irati Agirreazaldegia

Denboraldi honetan hartu du Mondrako presidente kargua Jose Luis Azkaratek. Hala ere, ondo ezagutzen ditu elkarteko taldeen gorabeherak, eta hark egin digu denboraldi hasieraren gainbegiratu: "Taldea gehienek txukun ekin diote. Hiru talde, nor bere mailako sailkapeneko lehen postuan daude; eta gaitzako taldeak ere aurre samarrean dira oraingoz".

Talde nagusia, preferente mailakoa, izan du hizpide lehe-

nengo. "Sailkapenean aurre samarrean dago eta oraindik partidu gutxi batzuk baino ez ditu jokatu". Benetan ondo ikusten du taldea presidentek: "denboraldi honetan ez bada hurrengoan hirugarren mailara igoko dela uste dut. Maila handiko jokalariek daude taldean, eta gai izango dira horretarako".

Ohorezko gazte mailakoek ez dute denboraldia batera ondo hasi; hala ere, egoerari "buelta emango diotela" uste du Jose Luis Azkaratek. "Oraindik jokalaririk batzuk berriak dira taldean, baina denboraldian aurrera egin ahala sailkapenean gora joango dira seguru aski; hala nahi genuke behintzat".

Bigarren gazte mailako taldea eta kadete mailakoa, nor bere ataleko sailkapenean aurre samarrean daude, eta horrenbestean gustura.

Indartsuen nesken taldea hasi da, Jose Luis Azkarateren esanetan: "Taldea polita osatu dute eta neskak denboraldi honetan emaitza onak lortzeko gai izango direla uste dut".

Infantil mailako taldeak ere ongi hasi du 2005-2006 denboraldia sailkapeneko lehen postue-



OHOREZKO MAILAKO GAZTEAK

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Edorta Bolinaga, Robert Buendia, Ander Sanchez, Gorka Fernandez, Julen Losada, Ander Arantzabal eta Unai Errasti.

Erdiko ilaran, ezkerretik eskumara: Oier Arregi, Markel Crespo, Ander Del Campo, Unai Ugalde, Gorka Ibarquen, Gorka Jurado, Ibai Lakuntza, David Zaitegi (entrenatzailea) eta Nevado (bigarren entrenatzailea).

Behoko ilaran, ezkerretik eskumara: Mikel Bogajo, Markel Maestre, Jokin Iria, Erik Okon, Jon Etxabe eta Beñat Corcuera.

"Preferente mailako taldea laster hirugarren mailara igoko dela uste dut"

"Jokalariek eta entrenatzaileak gogotsu daude; ilusioa nabaritu dut talde guztietan"

tan; futbol zortzian diharduten infantil mailakoak eta alebin mailakoak, berriz, hasi baino ez dira egin, eta aurrerago ikusiko da euren jokoa nolakoa den.

Guztira, zortzi talde daude Mondraren baitan, ahalik eta joko onena egin eta zaleei futbol gozagarriena eskaintzeko gertu.

ELKARTEAN GIRO ONA

Mondra elkartean giro ona sumatu du Jose Luis Azkarate presidentek: "Jokalariek eta entrenatzaileek gogotsu ekin diote denboraldiari, eta ilusioa nabaritu dut talde guztietan. Zenbait entrenatzaile berriak dira eta lehengoak beste batzuk, baina denak gogor dabilta lanean".

Giro ona eta gogoia, ordea, ez dira nahikoa Mondraren neurriko kirol elkarte bati eusteko, dirua ezinbestekoa da. Denboraldi honetarako 156.260 euroko aurrekontua dute. "Dirua lortzeko lan handia egin behar izaten da: babesleak bilatu, dirulaguntzak lortu, zozketa txartelak

saldu... Eta, hala ere, ez da nahikoa. Izan ere, gastu asko ditugu. Jokalarien bidaietan diru asko gastatzen dugu, baita eurei ordaintzen dizkiegun primetan ere", esan digu Azkaratek.

Hala ere, diruak diru eta lanak lan, gogoz hasi du denboraldia Mondraren zuzendaritza berria osatu duen taldeak. Presidente Jose Luis Azkaratek esan digunez, "hamaika lagun berri gara zuzendaritzan; eta futbolerako ez dakit nolako hamaikakoa osatuko genukeen baina lanerako gogorik behintzat ez zaigu falta guri; ezta jokalariei eta entrenatzaileei ere. Denboraldia nola hasi duten ikusita jokalariei indarrak ematea baino ez zait geratzen; orain artean egin duten antzera lan eginez gero Mondraren izena leku onean utziko dute".



JOSE LUIS AZKARATE |
MONDRAGO PRESIDENTEA

Berriak gara zuzendaritzan, ni neu presidente karguan eta gainontze-koak aldamenean; guztira hamaika lagun.

Berriak, baina ez horregatik lanerako gogorik gabeak. Lan handia egin zuten gure aurrekoek, eta eurek zabaldu dutako bidetik emango ditugu orain guk pausoak. Ibilbidea hasi baino ez dugu egin eta oraindik galdu samar gabiltza, baina ilusioak argituko digu bidea.

Bazkide berrien beharrean

Bazkide kanpian egin ditugu ahaleginik handienak. 450 bazkide inguru ditugu egun, eta horrek ez dago elkarteari bultzada handia emateko modurik.

Mondragon Futbol Elkartek 100etik gora jokalaririk ditu eta euren gogoia ez ezik herritarren animuak eta dirua ere beharrezko zaizkigu; bestela zaila da maila honetako elkarte bat aurrera ateratzea.

Arrasatearrei esan gura nieke futbola gustuko izanez gero, ez dagoela herriko taldea sustengatzea baino gauza hobirik, beharra ere badaukagu eta; beraz, egin daitezela bazkide.

Bazkideen beharra ez ezik beste kezka batzuk ere

baditugu zuzendaritza berriko kideok. Eta denboraldiari ekin diogun honetan kezka eta arazo horiei irtenbidea ematen ahaleginduko gara. Pixkanaka, aurtan ez bada datozen urteetan.

Futbol zelai berriaren miran gara, zain. Irailean hasi zituzten lanak eta 2007ko maiatzerako dago ipinita amaitzeko data.

Beharrezko zaigu (eta batik bat jokalariei eta entrenatzaileei) zelai berria izatea.

Belar naturala du oraingo futbol zelaiak, eta hainbat taldek entrenatzeko erabiltzen dutena, handiaren aldamenean, dagoena zahartu egin da urteen joanean. Harri txintzarrez betea dago.

Gainera, Atxabalpen argirik ere apenas daukate iluntzen duenean entrenatzeko zein partiduak jokatzeko.

Gure nahia da euren ahalegina ipintzen duten jokalariei merezi dituzten moduko baliabideak ematea; ganorazko futbol zelaia, esaterako.

Gogor lan egin behar dugu, bai. Baina horretarako gertu gaude zuzendaritzako kideok. Mondrak merezi duela uste dugulako sartu gara zuzendaritzan; eta nik presidente kargutik eta beste hamar lagunekin taldearen alde jardungo dugu lanean.

Gure jarduna, denboraldia bezala, hasi besterik ez da egin; eta geroak esango du nola jardun dugun.



Mondragon F. E.

- **SORRERA:** 1966
- **BAZKIDEAK:** 450
- **TALDE KOPURUA:** 8
- **AURREKONTUA:** 156.260 euro
- **FUTBOL ZELAIA:** Atxabalpe

MONDRAGON KIROL ELKARTEA



BIGARREN MAILAKO GAZTEAK

Goian, ezkerretik eskumara: Iban Torres, Eñaut Iturbe, Mikel Irazabal, Stefanos Amallobieta, Hector Hernandez eta Robert Buendia.

Erdian: Marino Yuste, Endika Arregi, Josu Lopez, Aitor Iregi, Mikel Larrea, Joseba Etxagibel, Julen Bilbao, Haritz Alonso, Jurgun Barrionuevo, Kepa Otxoa eta Eneko Irastortza.

Behean, ezkerretik eskumara: Antxon Osinaga, Jonathan Tierno, Xabier Pavon, Ander Arexolaleiba, Aitor Etxagibel eta Oier Arregi.



LEHEN MAILAKO KADETEAK

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Xabi Aranbarri, Adei Mondragon, Josu Oleaga, Urko Perez, Alex Uranga eta Imanol Del Pozo.

Erdian: Gabi Elorriaga (entrenatzailea), Adrian Fernandez, Mikel Davila, Aitor Moreno, Iker Sanchez, Markel Gonzalez, Imanol Arantzabal eta Igor Galdos Txibi (entrenatzailea).

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Jon Ibarguen, Andoni Arriaran, Julen Sanz, Aitor Rodrigues, Hodei Uranga eta Jorge Santiago.



LEHEN MAILAKO INFANTILAK

Goian, ezkerretik eskumara: Ander Axpe, Asier Perez, Mikel Gonzalez, Asier Murguzu, Xabi Lasaga eta Jokin Muxika.

Erdian, ezkerretik eskumara: Ramon Arkauz (entrenatzailea), Beñat Peña, Jon Bastera, Txomin Gallastegi, Mikel Serrato, Jon Ander Aguriondo, Josu Bastera, Unai Perea eta J.R. Zabaleta (entrenatzailea).

Behean, ezkerretik eskumara: Aitor Zeziaga, Jon De Andres, Andoni Aizpurua, Aitor Azkarate eta Kevin Barranca.



FUTBOL 8-KO INFANTILAK

Goian, ezkerretik eskumara: Ander Iñurrieta, Aitor Bedia, Lander Roteta, Lander Ajuuria eta Gorka Maria.

Erdian, ezkerretik eskumara: Nerea Pedrosa (entrenatzailea), Asier Rioja, Gorka Martin, Iñigo Aranburu eta Maitane Aranburu (entrenatzailea).

Behean, ezkerretik eskumara: Iker Senar, Josu Herrera, Alain Sanchez, Iker Ruiz de Azua, Xabi Arrizabalaga eta Mikel De la Maza.



ALEBIN MAILA

Goian, ezkerretik eskumara: Raul Leiba (entrenatzailea), Xabi Ormaetxea, Ekain Eriz, Jokin Mendizabal, Jon Agirreurreta, Eneko Estrella, Jokin Berezibar eta Jose Luis Azkarate (presidentea).

Erdian, ezkerretik eskumara: Mikel Balantzategi, Mikel Prieto, Julen Madinabetia, Julen Etxabe, Beñat Burgi eta Asier Urtzelai.

Behean, ezkerretik eskumara: Danel Gartzia, Ibon Carmona, Andoni Izagirre, Asier Larrea eta Ander Murua.



MAILA TERRITORIALEKO NESKAK

Goian, ezkerretik eskumara: Rakel Modino, Javier Lopez (bigarren entrenatzailea), Nerea Arizmendiarieta, Maitane Gallastegi, Leire Sanchez eta Iñigo Zabalo (entrenatzailea).

Erdian, ezkerretik eskumara: Ane Lur Garin, Aitziber Alonso, Nerea Pedrosa, Sokoa Azkarate, Aritz Etxabe eta Maitane Roa.

Behean, ezkerretik eskumara: Izaskun Aranbarri, Vanesa Dacosta, Alaine Roa, Maialen Lopez, Maialen Segovia eta Eider Gonzalez.

ELKARTEAREN NONDIK NORAKOAK

Hasieran askotariko emaitzak lortuta, helburuak ere denetarikoak

Iaz mailaz jaitsi ostean, aurten erregional mailako taldea ongi dabil; beste taldeek askotariko emaitzak lortu dituzte

Irati Agirreazaldegia

Zortzi talde ditu aurten Bergara Kirol Elkartek futbol sailean; eta denboraldi hasiera askotarikoa izan da taldeontzat.

Iaz mailaz jaitsi ostean, aurten oso ongi hasi du denboraldia lehen mailako erregional taldeak. "Nahiko lan dauka entrenatzaileak. Izan ere, oso jokalaririk gutxi gelditu dira iazko taldetik; eta denbora pixka bat behar du taldea ohitzeko eta sendotzeko.

Hala ere, joko polita egiten ari dira. Denboraldia luzea da eta sailkapeneko goi postuetan mantentzen saiatuko gara eta amaieran azken esprinta jotzen; bakarra igotzen delako mailaz", dio Iñaki San Jose presidentek.

Gazte mailako taldeek ez dute batere ongi hasi denboraldia. Hala ere, San Josek uste du "poliki-poliki hasiera kaskar honi buelta" emango diotela.

Infantil mailakoekin gainean ez dago asko esatekorik. Bi talde

daude eta joko ona erakutsi dute batzuek; besteek, aldiz, aurreko denboraldiko maila mantenduz dihardute.

Ohorezko mailako kadeteen taldea irregular dabil. "Batzuetan irabazi besteetan galdu, horrela hasi du denboraldia eta ez da erraza izango maila mantentzea", San Joseren esanetan.

Bigarren mailako kadeteak sailkapenean erdialdean daude, hiru partidu irabazi, hiru galdu eta bat berdinduta.

NESKA GUTXI

Iñaki San Josek esan digu neska gutxi animatzen direla futbolean jokatzeri eta taldeak osatzeko zailtasunak izaten dituztela. "Bi talde ditugu, eta bateko eta beste jokalariekin taldeak osatuz aurrera egingo dugu".

Irabaztea denek nahi izaten dute, baina San Joseren esanetan, "helburu nagusia, azken finean, jokatzea da eta futbolariekin eta kirolaz gozatuz ongi pasatzea eta lagunak egitea.



IÑAKI SAN JOSE |
BKE-KO PRESIDENTEA

Kirol-gune berriaren miran

Udalarekin harremanetan dihardugu eurekin, bilera bat egin nahi dugulako. Hainbeste aldiz entzun eta oraindik gauzatzen ez den kirol-gunearen gainean hitz egiteko garaia da.

Futbol zelaia gurea da, eta bertan zelai txiki berria ipini dugu orain; baina hori ez da nahikoa. Bergara Kirol Elkartean ez da futbola bakarrik sartzen eta pilotan, eskubaloian zein saskibaloian jokatzen dutenei ere eman behar zaizkie erraztasunak.

Hori ekarriko luke, hain zuzen ere, kirol-gune berriak: toki bakarrean kirol asko egiteko aukera. Gainera, kontuan hartu behar da ikastetxeetatik gertu egongo

litzatekeela, eta hori ere abantaila da, dudarik gabe.

Beraz, hori da gure helburu nagusia epe laburren begira; kirol-gunea egiteko asmoak aurrera egitea.

Helburu hori ez da bakarrik elkartearendako onuragarria, herri guztiarendako baizik. Beraz, uste dugu Udalak babestu beharreko asmo bat dela.

Baina asmo horrek aurrera egin dezan herritarren laguntza behar bada, zer esanik ez elkarteko zuzendaritzarena.

Futbol arloan 15-16 laguneko talde polita dugu eta denon artean hainbat gauza egiten ari gara, elkarrean berez sumatzen den giro ona indartzeko.

Esaterako, taberna konpontzeko lanak amaitu ditugu, eta horretan aurrekontuaren zati garrantzitsu bat eman arren, patrimonio modura geldituko da; beraz, inbertsio polita izan dela uste dut nik.

Bestalde, kirol-gune berriaren esperoan gauden bitartean, instalazioetan hainbat berrikuntza egin ditugu; aurrez aipatutako zelai txikia, adibidez.

Laburbilduz, esango nuke denboraldi hau amaitzerako gure nahia dela Udala Bergara Kirol Elkartearekin batzartu, eta, adostasun batera helduta, denon artean gai izatea kirol-gunearen proiektua lehenbailehen bideratzeko.

Bergara, K.E.



Bergara KE

- **SORRERA:** 1952
- **BAZKIDEAK:** 400
- **TALDE KOPURUA:** 9
- **AURREKONTUA:** 150.250 euro elkarte guztiarendako.
- **FUTBOL ZELAIA:** Agorrosin



OHOREZKO MAILAKO GAZTEAK

Goitik ilaratik hasita, ezkerretik eskumara: Jon Soto, Nathan Olabarria, Ander Amasorrain, Unai Aldanondo, Abel Maestre (entrenatzailea), Unai Uribealzo, Asier Crespo, Borja Gonzalez, Julen Hurtado, Jokin Baltzategi eta Igor Retolatza.

Behoko ilaran, ezkerretik eskumara: Iban Casquero, Antxon Ugalde, Jon Gartzia, Iker Zabaleta, Arkaitz Perez, Ander Macho, Aitzol Gomez de Segura, Jokin Oregi eta Yerai Valdepeñas.



LEHEN MAILAKO GAZTEAK

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Iker Gonzalez, Mikel Amoros, Ander Retolatza, Jon Ormazabal, Antxon Ugalde, Unai Ormaetxea, Gorka Larrañaga, Jon Garitano eta Ander Plazaola.

Behoko ilaran, ezkerretik eskumara: Xabier Urrutia, Julen Iñurrieta, Eneko Maguregi, Andoni Gomez, Antonio Galeano *Toñin* (entrenatzailea), Iñaki San Jose (presidentea), Luis Mari Urrutia (delegatua), Gaizka Martzan, Ander Garitano, Andoni Sasiain, Andoni Gartzia eta Xabier Linazisoro.

BERGARA KIROL ELKARTEA



OHOREZKO MAILAKO KADETEAK

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Jokin Lazpiur, Jon Ugarte, Markel Ilzarbe, Mikel Larrañaga, Ander Zangitu, Diego Elkoroiribe, Andoni Urrutia, Unai Agirre, Mikel Labaka, Gabriel Guerra, Jon Arrese, Julen Gorrotxategi eta Javi Oregi (entrenatzailea).

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Carlos Gorrotxategi (entrenatzailea), Asier Gonzalez, Xabi Moñux, Eneko Gabilondo, Julen Cid, Aitor Oregi, Iñaki Igartua, Iñigo Macho eta Ibon Labaien.



BIGARREN MAILAKO KADETEAK

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Gorka Prat, Jon Patxi Aiastui, Mikel Agirregomezkorta, Josu Gorosabel, Andoni Iturbe, Jon Ugarte, Iñaki Mardaras, Julen Mendizabal eta Aitor Iruin.

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Mikel Oteitza, Unai Rodriguez, Mikel Elkoroiribe, Josu Iñarra, Andoni Olabarria, Iñaki San Jose (presidentea), Aitor Gorosabel (entrenatzailea), Oier Aperribai, Ismael Navas, Jon Zangitu eta Jon Linazisoro.



LEHEN MAILAKO INFANTILAK

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Aitor Miner, Igoitz Retes, Asier Beitia, Asier Kortabarria, Gorka Elkoroiribe, Beñat Rezusta, Ayoub Aboubi, Xabi Gabilondo, Lander Ugarte eta Aitor Konti.

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Ekaitz Regorigo, Mikel Jimenez, Aitor Etxaniz, Julen Eguren, Joserra Lasa (entrenatzailea), Iñaki San Jose (presidentea), Andoni Badiola, Asier Lazpiur, Iñaki Olaortua eta Eneko Oiangueren.



FUTBOL 8-KO INFANTIL MAILA

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Julen Untzueta, Adrian Gorostitza, Andoni Gorrotxategi, Ander Franco, Aitor Lazkano, Josu Irizar eta Andoni Santamarina.

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Mikel Gorrotxategi, Iker Gillamon, Eneko Pascual, Oskar Saratsua, Haritz Diez eta Markel Lopez.



SENIOR MAILAKO NESKAK

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Mireia Mendizabal, Garazi Aritzaga, Jone Oregi, Maialen Hernandez, Garazi Larrea, Estitxu Lobato, Daiana Rico eta Iratitz Salegi.

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Nerea Madariaga, Iratí Iñurrieta, Maite Aristegi, Mikel Gotzon Fernandez (entrenatzailea), Iñaki San Jose (presidentea), Miren Berraondo, Olaia Zengotitabengoa eta Maite Quintanilla.



FUTBOL 8-KO NESKAK

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Marina Retolatza, Garazi Aritzaga, Maialen Arregi, Mikel Gotzon Fernandez (entrenatzailea), Maite Arantzabal eta Mireia Larrañaga.

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Oihane Lasa, Mireia Lamariano, Amaia Santorcualto, Olaia Zengotitabengoa eta Ane Vicente.

ELKARTEAREN NONDIK NORAKOAK

Preferente eta infantil mailakoak bikain eta besteak, jokalaria faltan

Talde nagusiak eta infantil mailakoak espero baino hobeto hasi dute 2005-2006 denboraldia

Irati Agirreazaldegia

Aloña Mendi elkarteko futbol saila ondoen ezagutzen dutenatariko bat da Jabier Azpiazu. Izan ere, 31 urtez dihardu lanean elkarteko zuzendaritzan.

Azpiazuk egin digu denboraldi hasieraren kontakizun laburra Oñatiko taldeei dago kienez.

Preferente mailako taldeak "uste baino hobeto" hasi du denboraldia Azpiazuren esanetan. "Aurtengo apustua izan da taldea batez ere herriko jokalariekin osatzea, nahiz eta kanpotik batzuk ekarri ditugun. Eta ikusi dugu jokalaria hauek ongi jokatzen dihardutela eta emaitza onak lortu dituztela orain artean. Orain arteko jokoari erreparatuta badirudi ongi jarraituko dutela, baina hori oraindik ikusiz dago".

JOKALARI GUTXI

Azpiazuk esan digu futbol saileko beste bi taldetan arazo bat dutela: jokalaria kopurua nahiko murrizta dela, hain zuzen ere. "Gazte mailan eta kadete mailan dago arazoa. Orain arte zortea



Iñigo Zubia, Aritz Garmendia eta Unai Moia preferente mailako jokalaria; euren taldeak ongi hasi du denboraldia.

izan dugu, baina lesioren bat gertatuko balitz taldeak herren gertatuko lirake".

Hala ere, arazoak arazo jokalaria euren onena ematen saiatzen direla esan digu Azpiazuk. Gazte mailako taldeak makalal-

di txiki bat izan badu ere, orain sailkapenean erdialdean dago eta hor mantentzeko ahalegina egingo omen dute.

Kadete mailakoek, ordea, joko polita erakutsi arren, emaitzak ez dituzte aldeko.

INFANTIL MAILAKOAK OSO ONGI

Txikienean ere maila "bikaina" erakutsi dute Azpiazuren esanetan: "Iaz mailaz igo ziren, eta aurtengo ere oso ongi jokatzen ari dira, espero genuena baino askoz hobeto".

"Aurtengo apustua izan da batik bat herritarrekin osatzea preferente mailako taldea"

"Gazte eta kadete mailako taldeek jokalaria kopuru murrizta dute; eta hori arazoa da"

"Nesken taldea irregular dabil, baina talde handien aurka gogotsu jokatzen du"

Nesken taldea sailkapenean erdi inguruan dabil, baina euren jokoa "irregularra da" presidentearen hitzetan. "Talde handien aurrean indarra atera eta gogotsu jokatzen dute; motelagoekin, ordea, badirudi lasaitu egiten direla. Zaila da aurreikustea zer lor dezaketen".

Denboraldi hasierari begiratu egin ostean, Azpiazuk zera esan digu: "Preferente mailako taldeari eta infantil mailakoari ezin zaie gehiagorik eskatu; uste zena baino gehiago ematen ari direlako. Besteei, ordea, lagundu baino ezin diegu egin".

Konpromiso falta

go eta serioago batean eutsi eta erantzun beharko lioketela uste dut.

Edozelan ere, taldea sentitzen dute hainbat gaztek eta euren inguruan gabiltzanoei esker osasuntsu dago Aloña Mendi. Gogor entrenatzen eta jokatzen dute. Emaitzak direnak direla, duten guztia emateko prest azaltzen dira zelaian asteroko partiduetan, baita entrenamenduetan ere.

Joko onari zaleek ere ongi erantzuten diote. Nik uste dut Aloña Mendik badituela jarraitzaileak eta mantentzen dituela urteak joan eta urteak etorri.

Hori nabaritzen dut kanpoko beste futbol zelai batzuetara jokatzen joan eta

partidua ikusten jenderik ikusten ez dudanean. Orduan konturatzen naiz benetan Oñati herri futbol-zalea dela. Mondraren kontra jokatutako partiduan, esaterako, jende multzo polita batu zen harmailetan.

Gainera, zale horiei eusteko eta jende gehiago zaletzeko aurtengo berrikuntza bat egin dugu. Preferente mailako jokalariek eskatuta, gazteendako (25 urtetik beherakoendako) sarrerak merkatu egin ditugu; sei eurotik hiru eurora. Horrela, futbol partiduetan hemendik aurrera gazte gehiago izango dela iruditzen zait.

Zaleak asko izan arren, bazkide kopuruak urtean-urtean beti egin ohi du

zertxobait bada ere behera; baina zaleak eta bazkideak beti izango ditu Aloña Mendiko futbol sailak.

Aurtengo 31 denboraldi egingo ditut Aloña Mendiko zuzendaritzan eta 17 urte, berriz, Federazioan. Esan nezake poz adina lan eman didala futbolak.

Presidente gisa denetarik egin dut: zuzendaritzako lanak, entrenamenduak ikustera joan, lagundu, kantinan lan egin, arbitro eta epaile lanetan ibili txapelketetan...

Hala ere, osasunak eta etxekoek lagatzen didaten artean futbolari lotuta jarraituko dudala esan izan dut beti. Futbola izan dut eta izango dut betiko zaletasun.



JABIER AZPIAZU | ALOÑAKO PRESIDENTEA

Aloña Mendiko futbol saileko presidente naizen aldetik hitz bakar batean laburtuko nuke zein den denboraldi honi eta datozen urteei begira gure behar handienetarikoa bat: konpromisoa.

Gazteak batik batik taldean sartzen dira, baina ez dute lotura esturik elkartearekiko. Erraz lagatzen dute futbola eta guk futboleko jarduteko ematen diegun aukerari beste modu sendoa-



ALOÑA MENDI

- **SORRERA:** 1949
- **BAZKIDEAK:** 620
- **TALDE KOPURUA:** 5
Urtea amaitu aurretik beste hiru talde izango dituzte.
- **AURREKONTUA:** 95.000 euro
- **FUTBOL ZELAIA:** Azkoagain

ALOÑA MENDI KIROL ELKARTEA



GAZTE MAILA

Goian, ezkerretik eskumara: Unai Madariaga, Mikel Kortabarria, Josu Juaristi, Asier Ugarte, Jon Goñi. Harriet Aiala eta Gorka Otamendi.

Erdian, ezkerretik eskumara: German Losada (delegatua), Mikel Palacios, Xabier Carpintero, Oskar Maiztegi (bigarren entrenatzailea), Juan Inazio Garai (entrenatzailea), Xabier Alberdi, Asier Sanchez eta Aitor Jimenez.

Behean, ezkerretik eskumara: Mikel Uribeetxeberria, Carlos Ortiz, Xabi Agirre, Andoni Jimenez, Andoitz Biain eta Antonio Matilla.



KADETE MAILA

Goian, ezkerretik eskumara: Mikel Aginagalde, Bittor Altuna, Ibai Urrutia, Julen Aramburu, Endika Ruiz, Beñat Alberdi eta Ruper Aiala.

Erdian, ezkerretik eskumara: Jose Ramon Urkia (delegatua), Alberto Millas, Iker Lamas, Jon Aizpeurrutia (entrenatzailea), Iñaki Ugarte (masajista), Jokin Biain (bigarren entrenatzailea), Ibai Osa, Mikel Saiz eta Jabi Osa (delegatua).

Behean, ezkerretik eskumara: Ekaitz Romero, Jokin Leibar, Iban Agirre, Mikel Urkia, Aritz Garai, Egoitz Atxaga eta Axibar Larrea.



INFANTIL MAILA

Goian: Josu Mugartza, Gaizka Zelaia, Josu Millas, Jon Lertxundi, Mikel Bengoa, Jon Ander Gordoia, Iñigo Markinez, Jon Arroyo, Aimar Lizarra eta Julen Palacios.

Erdian, ezkerretik eskumara: Mikel Moiu, Julen Delgado, Eneko Azurmendi, Jon Irizar, Jesus Mari Zelaia (entrenatzailea), Xanti Lizarra (bigarren entrenatzailea), Jose Mari Lazkano (futbol 8ko entrenatzailea), Jabi Agirre (futbol 8ko bigarren entrenatzailea), Gaizka Irizar, Iñigo Aramburu eta Mikel Marcelino.

Behean, ezkerretik eskumara: Ibai Garai, Aitor Markez, Asier Rodriguez, Gorka Perez, Ibai Moreno, Julen Agirre, Mikel Zubiagirre, Gorka Lazkano, Xabier Odriozola, Abel Barrioueno eta Unai Uribeetxeberria.



ALEBIN MAILA

Goian, ezkerretik eskumara: Iñaki Igartzabal (delegatua), Jon Ander Errasti, Aitor Billar, Unai Lopez, Ander Kortabarria, Xabier Barinagarrementeria, Borja Zarketa, Josu Untzuruntzaga eta Jon Agirre (delegatua).

Erdian, ezkerretik eskumara: Mikel Biain, Unai Bikuña, Koldo Atxaga (bigarren entrenatzailea), Aitor Biain (entrenatzailea), Jon Errasti (bigarren entrenatzailea), Mikel Letamendi eta Jon Regueiro.

Behean, ezkerretik eskumara: Ander Zubiagirre, Julen Anduaga, Iñigo Agirre, Julen Astigarraga, Jon Igartzabal, Julen Castañeda eta Jokin Atxaga.



NESKAK

Goian: Miren Martinez, Ainhoa Anduaga Maiztegi, Ane Bolinaga, Jone Aierbe, Itsasne Letamendi, Arrate Ugarte, Ilargi Gorostegi, Ainhoa Anduaga Moiu, Itziar Zelaia, Olatz Urtzelai eta Alaitz Urrutia.

Erdian, ezkerretik eskumara: Miren Intxausti, Irati Maiztegi, Amaia Mugartza, Ezozi Soba, Nuria Velasco, Jose Mari Lazkano (bigarren entrenatzailea), Fernando Azpiazu (entrenatzailea), Josu Amondarain (delegatua), Amaia Perez, Leire Zumalde, Leire Azpiazu, Arantzazu Sagarzazu eta Amaia Arantzabal.

Behean, ezkerretik eskumara: Aitziber Etxeberria, Zuriñe Madinabeitia, Maialen Lizarralde, Itziar Larrañaga, Ainhoa Fernandez Arroiabe, Maitane Barbero, Marta Vazquez, Zuriñe Lazkano, Amaia Sanchez, Jone Larrea, Idoia Astigarraga eta Itsaso Manias.

ELKARTEAREN NONDIK NORAKOAK

Ibarrean talde gehien dituen elkarte

Udak helburu bat bete du denboraldi honetan: maila guztietan taldeak izatea

Irati Agirreazaldegia

Jokin Antxia UDako presidentek talde bakoitzaren helburuen berri eman digu.

Futbol zortzian dihardu alebin mailako taldeak eta elkartearen helburua da 18 jokalaririk prestatzea hurrengo urteetarako. "Ez da kopuru handia futbol zortziorako, baina partidu ofizialetan ez bada lagun artekoetan denak jokatzeko komeni da", dio Antxiak.

Infantil mailako txikien taldeak lehen urtea du hamaikako moduan eta ikastea da helburua. "Taldea polita da eta gauzak ongi joanez gero, lehen fasean Txapeldunen Liga jokatzeko sailkatuko dira; ondoren, liga horretan, disfrutatuz ikastea da asmoa".

Ohorezko infantil mailako endako garrantzitsua da maila mantentzea Antxiaren esanetan: "Maila mantendu ezean ez da egongo infantil mailako txikien talderik. Hasiara ikusita helburua lortuko dutela uste dut".

Kadete mailan bi talde daude. "Bigarren maila nahiko lasaia da; beraz, ahalik eta lan txukunena egitea da helburua. Talde

polita da eta sailkapenean goiko aldean ibiliko dira". Lehen mailakoek ere denboraldia oso ongi hasi dutela esan digu: "Mailaz igotzen ahaleginduko gara".

Gazteetan beste bi talde ditu UDak. Lehen mailako helburua maila mantentzea da eta "erraz lortuko dute". Helburu bera dute ohorezko mailako gazteek, baina presidentearen ustez, "hasiera kaskarra izan dute. Indar guztia ipini beharko da maila mantentzeko; taldea behintzat ona da eta. Gainera, maila galduz gero lehen mailako gazteentzako taldeak ere galduko luke".

Nesken helburu nagusia errepikatu egingo da aurtengo denboraldian ere: "Ongi pasatzea eta sailkapenean ahalik eta goren amaitzea da asmoa", dio Antxiak.

Bigarren mailako erregionalen taldeari begira positibo azaldu da Antxia: "Aurten ez bada datorren urtean lehen erregionalen mailan ikusten dugu taldea. Maila hori dagokio".

Preferente mailakoak ongi hasi dira eta gora begira daude, sailkapeneko goiko postuetara. "Bigarren itzulian bost onenen artean badaude igotzea izango da helburua", esan du Antxiak.



BIGARREN MAILAKO ERREGIONALA

Goian, ezkerretik hasita: Gorka Etxabe, Ibai Zangitu, Iban Cid, Aitor Carrillo, Dani Torres, Erik Badillo, Mikel Vicente eta Ibon Gonzalez.

Erdian: Jon Davila, Alberto Romero, Ander Bachiller, Gorka Valle (delegatua), Xabi Gartzia (entrenatzailea), Lander Gartzia, Iñaki Gerrikabeitia eta Imanol Pavo.

Behean: Aitor Beloki, Gorka Uribeetxeberria, Jon Kortazar, Andoni Uribarren, Ander Etxagibel, Jon Zabaleta, Josu Martinez, Iñaki Uribeetxeberria.



OHOREZKO MAILAKO GAZTEAK (UDA-ARIZMENDI)

Goian, ezkerretik eskumara: Ander De Luis, Jokin Idigoras, Xabi Gorostidi, Garikoitz Dublan, Julen Ulezia eta Jonathan Perez.

Erdian, ezkerretik eskumara: Imanol Ramos, Julen Arriaran, Oinatz Agirre, Jabier Dublan (delegatua), Imanol Bolinaga (entrenatzailea), Iban Luelmo (laguntzailea), Jon Del Palacio eta Ander Ibañez.

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Mikel Ibabe, Mikel Prat, Unai Iglesias, Mikel Sanchez, Maikel Sanchez, Josu Zubillaga eta Iñigo Prieto.



LEHEN MAILAKO GAZTEAK (UDA-ARIZMENDI)

Goian: Eneko Errasti, Julen Moreno, Mikel Muñoz, Jon Sanchez, Jonathan Perez, Juanjo Caceres eta Markel Ansuategi.

Erdian, ezkerretik eskumara: Juanjo Artzamendi (delegatua), Jose Mari Galante, Alvaro Barriocanal, Mikel Barbero, Aure Calzon (entrenatzailea), Pello Errarte, Eneko Ruiz, Ander Gartzia eta Ander Gartzia.

Behean: Ander Romero, Jon Ansuategi, Joseba Palacios, Andoni Etxenautia, Liher Zubizarreta, Markel Artzamendi eta Jokin Vadillo.



LEHEN MAILAKO KADETEAK (UDA-ARIZMENDI)

Goian, ezkerretik eskumara: Aitor Perez, Beñat Iturbe, Andoni Beitia, Unai Calzon, Igor Okina eta Gartzzi Gorosabel.

Erdian, ezkerretik eskumara: Lander Zamora, Aitor Etxeberria, Haritz Urrutia, Vicente Calzon (entrenatzailea), Asier Martinez eta Joseba Akizu.

Behean, ezkerretik eskumara: Asier Urrea, Gillen Mar, Julen Eraña, Igor Eskibel, Gorka Bollon eta Aitor Grutzeta.



BIGARREN MAILAKO KADETEAK (UDA-ARIZMENDI)

Goian: Aitor Manso, Mikel Alberdi, Mikel Osa, Iñigo Arribaltzaga, Erik Justel, Aitor Arreseigor, Julen Ugarte eta Mikel Mendikute.

Erdian: Iker Agirregabiria, Enrike Gartzia, Iñaki Grutzeta (delegatua), Migel Angel Gartzia (bigarren entrenatzailea), Angel Capellan (entrenatzailea), Alex Sanchez, Marcel Martins eta Markel Guisado.

Behean: Asier Bengoa, Mikel Zabala, Danel Soria, Jokin Urtzelai, Alberto Martin, Josu Cid, Igor Oianguren eta Kepa Grutzeta.



UDA

- **SORRERA:** 1946
- **BAZKIDEAK:** 700
- **TALDE KOPURUA:** 12
- **AURREKONTUA:** 111.600 euro
- **ZELAIA:** Ibarra; nesken taldeek Almenen entrenatzen eta jokatzeko dute.

UDA



OHOREZKO MAILAKO INFANTILAK (UDA-ARIZMENDI)

Goian, ezkerretik eskumara: Joseba Zubizarreta, Xabi Otxoa, Ander Moreno, Axel Errasti, German Unamuno eta Iker Arriolabengoa.

Erdian, ezkerretik eskumara: Ibai Luélmo, Mikel Zubizarreta, Pedro Rodriguez (bigarren entrenatzailea), Iban Rodriguez (entrenatzailea), Alfonso Luélmo (delegatua), Raul Del Pozo eta Ander Errarte.

Behean, ezkerretik eskumara: Ander Barrena, Jon Ander Arrizabalaga, Ander Rajado, Kendrik Kebani, Iker Langarika, Bixen Meabe eta Andoni Iria.



INFANTIL MAILAKO TXIKIAK (UDA-ARIZMENDI)

Goian, ezkerretik eskumara: Garikoitz Igartua, Eduardo Gerrikabeitia, Mikel Fdz. Arroabe, Iker Mtz. Agirre, Danel Iborra, Ander Mendikute eta Jon Ander Azkoitia.

Erdian, ezkerretik eskumara: Ander Lopez Gorka Gartzia, Aitor Irure (entrenatzailea), Santi Morales (entrenatzailea), Baltasar Gartzia (delegatua), Xabier Uriarte eta Mikel Gonzalez.

Behean, ezkerretik eskumara: Josu Arizmendiarieta, Jon Sanchez, Jon Zabala, Jokin Muxika, Gontzal Ezkurra, Joel Berenguer eta Iker Barandiaran.



ALEBIN MAILA

Goian, ezkerretik eskumara: Andoni Otxoa, Josu Etxagibel, Erik Vidriales, David Enekotegi, Mikel Umerez eta Josu Letona.

Erdian, ezkerretik eskumara: Jose Antonio Enekotegi (delegatua), Ander Garai, Angel Felipe, Javier Mar (entrenatzailea), Joseba Church, Aitor Abarrategi, Danel Pando, Kepa Zeziaga eta Juan Antonio Cruz (entrenatzailea).

Behean, ezkerretik eskumara: Igor Altube, Xabi Arrizabalaga, Jon Mendieta, Asier Lazkano, Andoni Uribesalgo, Jon Madinabeitia, Beñat Agirreurreta.



SENIOR MAILAKO NESKAK (ARIZMENDI-ARETXABALETA)

Goian, ezkerretik eskumara: Ainhoa Sanchez, Ane Foronda, Ane Osinaga, Leire Valle, Usune Bengoa eta Maite Duque.

Erdian, ezkerretik eskumara: Jenny Guerrero, Amaia Lizarazu, Maite Iturraran, Aitor Guridi (entrenatzailea), Kattalin Antxia, Eli Berridi eta Sara Usobiaga.

Behean, ezkerretik eskumara: Aida Merino, Eider Zabala, Olatz Igartua, Rocio Romero, Maite Otxoa, Lur Delgado eta Zuriñe Pagaldai.



FUTBOL 8-KO KADETE MAILAKO NESKAK (ARIZMENDI-ARRASATE)

Goian, ezkerretik eskumara: Ane Beraza, Nerea Gonzalez, Gladys Fernandez, Aritz Elortza (entrenatzailea) eta Eider Diosdado.

Erdian, ezkerretik eskumara: Maddi Lakuntza, Iraia San Migel, Irati Urbelua, Jaione Ezeoleza eta Irati Lekue.

Behean, ezkerretik eskumara: Haizea Fernandez, Maria Sierra eta Uxue Otxoa.



FUTBOL 8-KO INFANTIL MAILAKO NESKAK (ARIZMENDI-ARETXABALETA)

Goian, ezkerretik eskumara: Marta Lizarralde, Maddi Iregi, Olaia Zabalo, Elene Berezibar, Nerea Zubillaga, Andrea Paredes, Oihana Aldai eta Ariane Unanue.

Behean, ezkerretik eskumara: Edurne Sagasta, Lore Mar, Eider Murgoitio, Maddi Labayen, Maria Altzola eta Leixuri Nuñez.

ELKARTEAREN NONDIK NORAKOAK

Erregional mailakoak pixkanaka gora eta gazteak maila berrira ohitzen

Erregional mailakoen asmoa da mailaz igotzea; gazte mailakoena, mailari eustea

Irati Agirreazaldegia

Bi talderekin hasi du 2005-2006 denboraldia Antzuola Kirol Elkartek. Bi taldeek Estalako zelaian zein kanpoan ahalik eta emaitzarik onenak eskuratzeko asmoz ekin diote futbol jokoari. Denboraldiaren amaieran ikusiko dugu ahaleginek zertarako balio duten.

Talde nagusiak, bigarren mailako erregionalak, nahiko ongi hasi du denboraldia. Pixkanaka gora doa bigarren erregionalako sailkapenean eta jokalariek gogotsu daudela esan digu Antzuola Kirol Elkarteko presidente Jose Angel Fernandezek.

“Taldea polita osatu dugu aurtentzen. Beste urte batzuetan ez bezala, kanpotik etorritako esperientziadun jokalariek daude. Beste batzuk gazte mailako taldeetik nagusietara pasa dira, eta badira zenbait beterano ere. Zaila da Antzuolan horrelako talde bat osatzea eta batzuek besteei lagunduz baliteke mailaz igotzeko aukera izatea. Hori da, hain zuzen ere, denboraldi honetarako gure helburua”, esan digu Fernandezek.

Bigarren mailako erregionalako jokalariek lehen fasea sailkapenean goi samar amaitu dezaketela uste du Antzuolako presidentek. “Ondoren ikusi beharko da zein taldetan kokatzen gaituzten, eta horren arabera aukera gehiago edo gutxiago izango ditugu gora egiteko. Talde aurkariak nolakoak diren ikusi beharko da horretarako; baina saiatu behintzat saiatuko gara gora egiten”.

GAZTE MAILAKO TALDEA

Joan zen denboraldian igo zen lehen mailara gazte mailako taldea; beraz, maila berri eta ezezagunean jokatzen dihardu orain; horrek dituen abantaila eta desabantailak.

Presidentearen hitzetan, “taldeko jokalariek asko mailatik kanpora geratu dira adinarenatik eta bigarren erregional mailako taldean dihardute gehienek. Beraz, batik bat etxeko partiduetan esperientzia falta sumatu dugu orain artean. Hala ere, taldekideak elkarren artean ongi moldatzen dira. Arazoa da ezagutzen ez duten maila batean dihardutela. Baina orain arte aurkari izan ditugun taldeek ez dute nagusitasun nabarmenik azaldu”.

Denboraldi honetan gutxienez mailari eustea da gazte mailako taldearen helburua eta gutxienez horretan ahaleginduko direla esan digu Fernandezek.

KOPARAKO BI TALDE BERRI

Urtarriletik aurrera kopako txapelketak izango dira jokoan eta



Denboraldiko lehen jardunaldian Antzuolak mendean hartu zuen UDA Estalan; emaitza 3-2 izan zen.

GOIENKARIA

“Zaila bada ere, urtarrilerako beste bi talde osatu nahi ditugu: neskena eta kadete mailakoa”

Antzuola Kirol Elkartean saiatuko dira ordurako beste bi talde sortzen: nesken taldea eta kadete mailakoa. “Hala eta guztiz ere, denboraldi hasieran ibili garen bezala ibilita ordurako ere larri ibiliko gara taldeak osatzeko, ez baitago nahiko neska mutil; are gutxiago talde horiek

prestatuko dituen entrenatzailelerik”, esan du Fernandezek.

Antzuola Kirol Elkartean nahia da zailtasun horiei aurre egitea eta jokatze gogoz dauden futbolari horiei aukera ematea, “eurak izango direlako etorkizunean Antzuolako taldeetako jokalariek”.



J. A. FERNANDEZ |
AKE-KO PRESIDENTEA

Denboraldia hasi berri da, eta elkartearen egoera ez da oso ona, egia esan behar bada. Herriko jendea ez da behar besteraino inplikatzeko eta ondorioz, lanean dihardugunok zailtasun asko izaten ditugu bidean aurrera egiteko, nahiz eta gogorik ez zaigun falta.

Gurea, Antzuolako, ez da elkarte handi bat, baina taldearen tamaina ez da garrantzitsuena. Azken finean, elkarte guztietan egin

Lan handia eta jende gutxi

behar da lan, handia zein txikia izan.

Lanerako jende gutxi gaudenez, gure artean banatu behar da lana, eta beti ezin izaten da modu egokian gauza guztiak egitera iritsi; eta batzutan nahi eta ezin horrek gaintitu egiten gaitu.

Eskean, denboraldia hasten den bakoitzean beti eskean jarduten dugu: zuzendaritzarako jendea behar dela, lanerako kolaboratzaileak behar direla, taldeekin jarduteko entrenatzaileen zein delegatuen beharra dagoela... Baina azkenean betikoak ibiltzen gara elkartearen bueltan lanean.

Azken bi urte hauetan denboraldiak modu politetan

amaitu ditugu. Infantil mailako mutikoen taldea atera genuen, baita nesken taldea ere; bi titulu ere eskuratu ditugu. Baina hasieran sortutako ilusioa horretan geratu da, ilusio hutsean.

Badirudi jendeak nahikoa duela egun seinalatuetan eta partidu esanguratsuetan futbol zelaira azalduta, eta hori ez da horrela. Partidu horiek jokatzerantz behar lan egin behar da, eta jokalariei lan horretan lagunduko dien jendea behar du elkarteak.

Iazko gure erronka nagusia taldeen kirol mailari eustea zen. Ahaleginak egin arren, ez zen helburua erabat bete. Hala ere, gazte mailako

taldeak erronka gaintitu eta mailaz igotzea lortu zuen. Bide beretik jarraitzea edo ahal dela taldea indartzea da aurtengo asmoetariko bat, eta gogotsu jardungo dugu hori lortzeko.

Helburuak eta nahiak betetzeko, ordea, diruak ere paper garrantzitsua jokatzen du elkartearen. Denboraldi honetarako 24.000 euro inguruko aurrekontua du Antzuola Kirol Elkartek. Aurtentzen erabaki dugu lehen aldiz kuota kobratzea jokalariei, orain arte sekula dirurik ordaindu ez badute ere. Horrela elkarteari laguntza ematen diete; eta hala eta guztiz ere, aurrekontua orekatzerantz heldu gara denboraldi amaieran.



ANTZUOLA KE

- **SORRERA:** 1982
- **BAZKIDEAK:** 185
- **TALDE KOPURUA:** 2
Aztertzen dabilta kopako txapelketarako nesken taldea eta kadete mailakoa ateratzea.
- **AURREKONTUA:** 24.000 euro
- **FUTBOL ZELAIA:** Estala

ANTZUOLA KIROL ELKARTEA



BIGAREN MAILAKO ERREGIONALA

Goian: Jon Godoi, Ekaitz Olalde, Ander Santamaria, Xiker Iparragirre, Jose Luis Ses-to (entrenatzailea), Jose Angel Fernandez (presidentea), Pablo Olalde (delegatua), Ibon Urtzelai, Jon Alberdi, Gotzon Zabalo, Haritz Elortza, Jon Arregi eta Xabi Azkarate.

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: Asier Bolinaga, Ibai Azkarate, Josu Asensio, Aitor Godoi, Jabi Berraondo, Iñaki Arbulu, Ieltxu Mendizabal, Aitor Berraondo eta Mikel Idiakez.



LEHEN MAILAKO GAZTEAK

Goian, ezkerretik eskumara: Imanol Lizarralde, Enaitz Lizarralde, Txomin Alberdi, Gaizka Asensio (delegatua), Jose Angel Fernandez (presidentea), Mikel Larrañaga *Maki* (entrenatzailea), Niko Jimenez, Xabi Arbulu, Hoderi Arregi eta Eneko Muxika.

Behen, ezkerretik eskumara: Jon Olivares, Ander Arbulu, Aitor Jauregi, Aitor Aménabar, Asier Longares, Unai Madariaga, Aitor Mendizabal, Julen Larrañaga, Aitzol Iturbe eta Auritz Guridi.

• Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua

• Baldintza ezin hobeak

Tel.: 943 76 19 95
BERGARA



Sukalderako altzariendako osagarriak



etxetresna
elektrikoak



KIROLEAN, BIDELAGUN

Helburuak eta asmoak egia bihurtzeko, baliabideak eta talde-lana dira beharrezkoak. Bizitzako beste hainbat arlotan bezala, kirolean ere bidelagun izango gaituzu.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Karate

Arrasateko Saioa taldeko karatekak ondo aritu ziren

Bergarako Shotokan taldeko kirolariak ere ondo aritu ziren Gipuzkoako txapelketan

Larraitz Zeberio

Tatamiek hartu zuten zapatu arratsaldean Aretxabaletako kiroldegia. Gipuzkoako karate txapelketa jokatu zen bertan, gazte zein kadete mailakoa.

Txapelketan parte hartu zuten hamaika elkarteetatik lau Debagoienekoak ziren, hala nola, Arra-

sateko Saioa elkarte, Bergarako Giartzu, Oñatiko Aloña Mendi eta Bergarako Shotokan.

KUMITE MODALITATEKO SARITUAK

Bera Bera eta Saioa elkarte karatekak nabarmendu ziren gehien bat txapelketa honetan. Debagoieneko kirolariei dago-kienez zazpi eraman zuten sari nagusi bat etxera.

Zazpi sari nagusi Debagoieneko karatekek eskuratu zituzten

Kumite modalitatean Saioa taldeko Carlos Sanchez, Shotokaneko Jon Gonzalez eta Aloña Mendiko Aitor Arnaiz nagusitu ziren, bakoitza bere pisuan. Arrasateko Jon Rodriguezek bigarren egin zuen. Nesketan, Shotokaneko Miren Laskurainek eraman zuen bere kategoriako lehen saria.

Kadete mailan Shotokaneko Giartzu taldeko Jon Gantxegi nabarmendu zen bere kategorian eta Jon Fernandezek bigarren postua lortu zuen.

KATAN ERE SARITUAK

Kata modalitatean debagoiendarrak ez zuten lehen posturik eskuratu. Gazte mailan Carlos Sanchez eta Goizeder Caballero arrasatearrek 3. eta 4. egin zuten. Nesken artean Miren Laskurain berga-



AITOR LIZARRALDE

Gipuzkoako hamar talde aritu ziren. Guztira 71 karateka.

rarra izan zen debagoiendar onena eta hirugarren sailkatu zen.

Taldeko saririk ere egon zen. Arrasateko Saioa taldeak

lehen saria eskuratu zuen gazte mailako mutilen kategorian. Bergarako Shotokan taldea, berriz, kimu mailan nagusitu zen.

• ARETO FUTBOLA, NAZIONAL B MAILA



AITOR LIZARRALDE

ESKORIATZAK 1-5 GALDU ZUEN LIDERRAREN AURKA

Piti Pascual taldeak ez zuen barkatu zapatuan Eskoriatzan. Sailkapeneko liderra da eta igoera du buruan. Etxekoak ondo aritu ziren, kontuan hartuta bost jokalarik min hartuta dituztela eta bigarren taldeko mutilekin aritu zirela. Eskoriatzaren gola Cesarrek egin zuen.

• NAZIONAL B MAILA



AITOR LIZARRALDE

ALOÑAK BERANDU ERREAKZIONATU ZUEN

Aloñak 5-8 galdu zuen Logroñoren aurka Zubikoa kiroldegian. Oñatiarrek lehenengo 10 minutuetan txarto jokatu zuten. Atsedenera 1-6 galtzen iritsi ziren. Bigarren zatian, indarberrituta irten arren, jaurtiketa asko huts egin zituzten eta ezin izan zuten partidua irabazi.

ARREGI

ARROZTEGIA



KONPONKETAK DROKORREAN ETA BERRIKUNTZAK

SUKALDEAK
HORMA
ARMAIRUAK
LEIHOAK
ATEAK
TARIMAK
ESKAILARAK

OSAGARRIAK
FLEX KOLTZOIAK
GRADULUX
PERTSIANAK

ERAKUSKETA

Bidekurutzeta, 38
Tel / Fax 943 76 31 03

ARROZTEGIA

Urteaga, 20
Tel / Fax 943 76 11 73

20570 BERGARA
carp.arregui@telepolis.com
www.goiena.net/blogak/arregi



IGOR ARENAZA | ARETXABAETA FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

"Etxean talde osotua eta konprometitua aurkitu dut"

Xabier Urtzelai

Zapore gaziarekin amaituko duzu Mondraren kontrako derbia.

Bai, txartel gorria ikusi dudanean taldeak egindako lana bertan behera bota dut-eta. Jokalari bat gehiagorekin jarraitu izan bagenu baloiaren jabetza handiagoa izango genukeen eta Mondrak 2-2koa egiteko aukera gutxiago izango zituzkeen.

Harmailetan eztabaidak egon dira: txartel gorria izan da?

Erabaki zorrotzegia izan da, falta ez diodalako atzetik egin, alde batetik baizik, eta ez nuen min egiteko intentziorik. Mondra, baina, apur bat lehenago geratu da hamar jokalarirekin, eta hori berdintzeko-edo erakutsi dit epaileak txartel gorria.

Hainbat urtean kanpoan ibili eta gero itzuli zara Aretxabaletara. Zer moduz?

Oso ondo, taldearekin pozik. Joan zen urtean Murtzia aldean ibili nintzen, Hirugarren Mailako talde batean, eta banekien lehenago edo geroago itzultzeko ordua iritsiko zela. Ilusio handiarekin nabil Aretxabaletan, talde osotua eta konprometitua aurkitu dudalako. Gainera, futbolearen etengabe ikasten da, eta ikasten jarraitzeko asmoa dut.

Lehen mailara begira; Osasunarena da goeneko ez da anekdota.

Hamaika jardunaldi eta gero lehenengo postuan egotea ez da anekdota, gauzak ondo egiten dabilzan seinale, baizik. Gainera, Osasunak ez du punta-puntako jokalaririk, baina guztiak egiten dute lan handia, eta horri ateratzen diote etekina. Entre-



AL

natzaileak ere hainbat urte daromatza Iruñean, eta ondo ezagutzen du taldea.

Clementek lortuko du taldea zuzentzea?

Badirudi Espanyolen kontra beste itxura bat eman zutela.

"Futbolearen etengabe ikasten da, eta ikasten jarraitu gura dut"

Athleticeko jokalariek moralki erreperatuko dituen entrenatzailea behar dute, eta baliteke Clemente izatea horretarako aproposena.

Hurrengo jardunaldian Bartzelona eta Real Madril aurrez aurre. Derbi horrek argituko du zerbait?

Horrelako partiduetan ez dira gauzak larregi argitzen; nahiz eta txarto ibili, derbietan taldeek beste aurpegi bat erakusten dute-eta. Argi daukadana da Bartzelona maila horretan ikusten jarraitu gura dudala. Joko onak irabaz dezala derbia.

Harmailatik

Inoiz baino liderrago



Xabier Urtzelai


Aitzakiarik ez. Osasuna gehiago izan zen Anoetan, eta ez dago bueltarik. Dena dela, badago alde Bartzelonaren eta Osasunaren arteko norgehiagoken artean. Nou Campen Real txotxongiloa izan zen; ez zuen nortasunik erakutsi. Anoetan, berriz, nor baino nor gehiago ibili ziren bi taldeak, eta norgehiagoka lehiatsuan nafarrak izan ziren hobeak.

Hautabide bakarra. Agirrek goitik behera aldatu zuen taldea derbirako, eta ondo asmatu zuen. Esango nuke Amorrortuk ez duela horretarako gaitasunik, edo ez duela horretarako aukerarik ikusten. Azken momentura arte egon zen Mikel Alonsoren eta Xabi Prietoren zain, beste hautabiderik izango ez balu moduan. Mikelek norgehiagoka txukuna egin zuen, baina zenbateraino

komeni da erdiko zelaia bezain postu garrantzitsua azken unera arte min hartuta egon diren bi jokalarirekin osatzea?

Kazetariak pozik. Clementeren aurkezpenean Lamikizek hainbat eskaera egin zituzkien kazetariei, eta horietako bat izan zen entrenatzaile berriari lan egiten uztea, eta elkarrizketarik ez egitea. Eta Clementek ez du besterik egin; ehunka adierazpen, han eta hemen. Lezama aldean lan egiten duten kazetariak ez dira aspertuko, seguru.

Baietz derbia berotu. Batek daki. Akaso, Piterman eta Clemente ederto konponduko dira. Baina, hurrengo jardunaldian puntu gosez dauden Athleticek eta Alavesek derbia jokatuko dute. Metxa piztea baino ez da behar bi horiek sutan ikusteko; eta bi aste dituzte horretarako.



Osasunako zaleak
Pozgarria da bi taldeetako zaleak elkarri animatzen ikustea. Ormaetxearen omenaldian isilune hunkigarria izan zen, eta nafarrek behar den errespetua erakutsi zuten.



Realaren erdiko zelaia
Osasunak hortxe hasi zuen garaipena, erdiko zelaian nagusituz eta baloiaren jabe eginez. Aranburuk ez zuen egun ona izan, eta bigarren zatian Xabi Prieto desagertu egin zen.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

| | |
|---------------------|-----|
| Getafe-Bartzelona | 1-3 |
| Racing-Betis | 1-1 |
| Malaga-Deportivo | 1-1 |
| Celta-Alaves | 2-1 |
| Cadiz-Mallorca | 1-2 |
| Sevilla-Athletic | 0-0 |
| R.Madril-Zaragoza | 1-0 |
| Reala-Osasuna | 1-2 |
| Espanyol-Athletic | 1-1 |
| Vila-real-Valentzia | 1-0 |

HURRENGOAK

| |
|----------------------|
| Vila-real-Zaragoza |
| Sevilla-Betis |
| Cadiz-Valentzia |
| Celta-At. Madril |
| Espanyol-Mallorca |
| Athletic-Alaves |
| Getafe-Osasuna |
| Malaga-Reala |
| R. Madril-Bartzelona |
| Racing-Deportivo |

SAILKAPENA

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---------------|---------|----|---|---|---|----|----|
| 1. Osasuna | 24 | 11 | 8 | 3 | 0 | 16 | 11 |
| 2. Bartzelona | 22 | 11 | 6 | 1 | 4 | 27 | 11 |
| 3. R.Madril | 21 | 11 | 7 | 4 | 0 | 22 | 11 |
| 4. Celta | 20 | 11 | 6 | 3 | 2 | 14 | 11 |
| 5. Vila-real | 19 | 11 | 5 | 2 | 4 | 18 | 12 |
| 6. Sevilla | 17 | 11 | 4 | 2 | 5 | 10 | 6 |
| 7. Deportivo | 17 | 11 | 4 | 2 | 5 | 14 | 12 |
| 8. Getafe | 17 | 11 | 5 | 4 | 2 | 17 | 16 |
| 9. Valentzia | 16 | 11 | 4 | 3 | 4 | 15 | 15 |
| 10. Reala | 16 | 11 | 5 | 5 | 1 | 16 | 21 |
| 11. Athletic | 15 | 11 | 4 | 4 | 3 | 11 | 10 |
| 12. Cadiz | 13 | 11 | 3 | 4 | 4 | 8 | 11 |
| 13. Malaga | 12 | 11 | 3 | 5 | 3 | 15 | 14 |
| 14. Mallorca | 12 | 11 | 3 | 5 | 3 | 11 | 19 |
| 15. Racing | 11 | 11 | 2 | 4 | 5 | 6 | 8 |
| 16. Zaragoza | 10 | 11 | 1 | 3 | 7 | 12 | 15 |
| 17. Betis | 10 | 11 | 2 | 5 | 7 | 8 | 18 |
| 18. Espanyol | 9 | 11 | 2 | 6 | 3 | 7 | 14 |
| 19. Alaves | 8 | 11 | 1 | 5 | 5 | 9 | 16 |
| 20. Athletic | 7 | 11 | 1 | 6 | 4 | 11 | 16 |



Kiniela

KINIELA

| | |
|-------------------------|---|
| 1. Sevilla-Athletic | X |
| 2. Cadiz-Mallorca | 2 |
| 3. Celta-Alaves | 1 |
| 4. Espanyol-Athletic | X |
| 5. Reala-Osasuna | 2 |
| 6. Getafe-Bartzelona | 2 |
| 7. Malaga-Deportivo | X |
| 8. Real Madril-Zaragoza | 1 |
| 9. Racing-Betis | X |
| 10. Levante-Castellon | 1 |
| 11. Murtzia-Recreativo | 2 |
| 12. Albacete-Gimnastic | 2 |
| 13. Valladolid-Hercules | X |
| 14. Lleida-Tenerife | 1 |
| 15. Vila-real-Valentzia | 1 |

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



FUTBOLA | ASTEBURU HONETAN ESTREINATU DA BERRIZ ERE CLEMENTE TALDE ZURI-GORRIAREKIN

Entrenatzaileari leporatu diote, berriz ere, taldearen egoera eskasa

Jose Luis Mendilibar kendu eta Javier Clemente bere ordeztartzea erabaki du Athletic taldeko zuzendaritzak. Horren gainean galdetu diegu futbol-zaleei



Haritz Gallastegi.



Juanjo Arrieta.



Juan Carlos Davila.



Sergio Catalan.



Jabier Azpiazu.



Jokin Etxebarria.

A.G.

HARITZ GALLASTEGI |
KIROL KAZETARIA

"Teknikarien gaitasunaz gainera, jokalariek duten maila ere jakin behar da"

1. Ez da beharrezkoa, errazena da. Futbola topikoz beteta dago eta teoria hori topikoetako bat da. Min txikien ematen duen irtenbidea da. Zuzendaritzak, entrenatzaileak eta jokalariek dira talde baten bizkarrezurra. Futbolariak botatzea ezinezkoa da. Presidenteak, berriz, edozer egiteko gauza dira euren burua kolokan jarri aurretik. Beraz, teknikariak uzten du kargua. Hala ere, erabaki bat hartu aurretik sailkapena baino gauza gehiago begiratu behar dira. Jokalariek duten benetako maila zein den jakiteaz gain, teknikariak duen gaitasuna eta taldeak zelaian ematen dituen tentsioak zeintzuk diren aztertu behar dira. Presidenteek ez dute horrelakorik egiten.

2. Bai, bestela akabo 107 urteko historia! Egoera larrian dagoen talde bat zulotik ateratzeko entrenatzaile batek behar duen guztia dauka Barakaldokoak: esperientzia, egoera latzei aurre egiteko izaera berezia, etxea ezagutzen du eta gustuko du presioa. Clementek bere gain hartuko du presio guztia eta jokalariek esker-tu egingo dute.

JUANJO ARRIETA |
EIBAR TALDEKO ZUZENDARITZA

"Entrenatzailea izaten da koplaturuko, baina pazientzia txikia egon da"

1. Hobetze aldera ez dakit, baina zoritxarrez, entrenatzailea izaten da koplaturuko eta oraingoan Mendilibarri tokatu zaio. Erra-

zagoa da bat kaleratzea hamakak kaleratzea baino! Hala ere, emaitza txarrekin ez diote lagundu eta taldean pazientzia txikia egon da. Azkenean Jose Luis bota egin dute taldetik. Hala ere, nire ustez, Mendilibarrek aterako zukeen taldea dagoen lekutik, entrenatzaile ona delako, baina pazientzia txikia egon da.

2. Clemente pizgarria izango da taldearendako; hala ere, jokalarien portaera ere ezinbestekoa da. Konfiantza eman beharko diote. Dena dela, esperientzia dauka lan horretan; hortaz, dudarik ez dut hortik aterako dena.

JUAN CARLOS DAVILA |
ARRASATE TXURI URDIN

"Kentzea errazena da, baina Mendilibar saltsa gehiegitan sartu da"

1. Batzuetan hori izaten da irtenbidea. Azken baten, pertsonak gara, eta entrenatzailea

eta jokalariek ez badira ondo konpontzen, azkenean hura kaleratzeko bidea errazten amaitzen dute jokalariek.

Hala ere, egia da entrenatzailea kentzea soluziorik errazena izaten dela.

2. Clementeri buruz, ikusiko dugu ea hura izango den giltzarri. Clementek ez du inor axolagabe lagatzen eta jokalariek ondo konpontzen bada eta emaitzak lagun badituzte, aurrera egingo du. Clemente tipo berezia da, eta ligara saltsa itzuli dela esango nuke; aurrerantzean prentsaurrekoak entrenatzailearekin izango dira. Nire ustez, Mendilibarren errua berea izan da Clementerena egiten aritu baita; baina bera ez da Clemente. Saltsa gehiegitan sartu da eta bere arazoak konpontzen ez du jakin. Realari 3-0 sartu zion lehenengo jardunaldian eta harrotu egin zen.

Hala ere, Athleticcek erronka zaila dauka, 28tik 13 irabazi beharko ditu mailari eusteko.

SERGIO CATALAN |
OÑATIKO ATHLETIC PEÑA

"Javier Clementeri denbora eman behar diogu taldearekin lan egiteko"

1. Normalean hori egiten da ia talde guztietan, entrenatzailea aldatzea. Hori da behintzat aukera errazena, entrenatzailea aldatzea jokalariek aldatu baino.

2. Nik uste dut Clementerekin motibazio berria sartuko dela taldean, eta ilusio berriarekin jokatuko dute jokalariek.

Ez dakit Clemente ote den aukerarik onena. Ezaguna da eta esperientzia dauka taldeak egoera kaskarretatik ateratzen. Denbora eman behar diogu lana egin dezan. Denborak esango du Athletic zulotik ateratzeko gauza den edo ez.

Mendilibarrek ez ditu gauzak gaizki egin. Lehenengo maila zertxobait handia gelditu zaio agian. Gaizki hasi zuen denbo-

raldia eta ez du taldea zuzentzen asmatu. Zorte txarra izan du. Joko aldetik ezer gutxi eman du taldeak.

JABIER AZPIAZU |
ALOÑA MENDIKO PRESIDENTEA

"Clementek aurrera aterako du taldea, baina asko lan eginda"

1. Horrelako kasu asko ikusi ditugu. Beti emaitzei begira egoten gara, eta azkenean errazagoa da entrenatzailea aldatzea. Gehiago Athleticen kasuan, harrobi politika duelako. Inguruko jokalariek aritzen da. Erabakia hartuta dago, baina nire ustez Mendilibar ez da egoera honen erantzule bakarra. Jokalarien jarrera ere ez da ona izan. Zuzendaritza batzordeak konfiantza handiago erakutsi behar zion, beste hilabete bateko epea eman. Maila berria zuen eta partidu gutxi egin ditu.

2. Nik uste dut baietz, taldea zulotik aterako duela. Clementek oso ondo ezagutzen du etxea Ibaigantetik hasi eta San Mames edo Lezamaraino. Esperientzia handiko gizona da. Baina ez da erraza izango eta lan handia egin beharko du. Jokalariek beste jarrera bat erakutsi beharko dute eta nik uste dut Clemente bere aginduekin gauza izango dela hori lortzeko. Denok ezagutzen dugu Javi.

JOKIN ETXEBARRIA |
KIROL KAZETARIA

"Clemente salbatzaile legez agertuko da, baina taldea ez dago hain gaizki"

1. Talde baten emaitzetan entrenatzaileak zerikusitua handia du baina erantzukizun handiena jokalariena da. Jokalaria ez bada go motibatuta taldeak ezin du aurrera egin. Argi dago entrenatzaile aldatzea batek taldearen norabidea alda dezakeela, baina ez da faktore bakarra.

2. Nik ez dakit Clementek zer egingo duen. Inguruan asko entzuten ari naizen iritzia da Athletic ez dagoela hain egoera larrian. Lau puntura dago. Nire ustez zuri-gorriek 16. egingo dute aurten eta Clemente taldearen salbatzaile moduan agertuko da, eta hori ez da horrela. Mendilibarrek ez du zorte onik izan, baina ez dut uste botatzeko moduko emaitzak egin dituenik. Beste bizpahiru partidu egiten utziko nioke nik, taldeak erreakzionatzeko gaitasuna duen edo ez ikusteko.



Eraman dotoretasuna zure etxera



Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

Hirugarren denboraldia du Mikel Etxabe aretxabaletarrak bigarren mailako Xerez futbol taldean. Aurten mailako talderik onenetarikoa da Xerez eta zapatuan

Ipuruan izan ziren Eibarren aurkako neurketa jokatzeko. Etxabek aitortu digunez, taldearen helburua denboraldi hasierako bera da: maila mantentzea. Mikeli aurten

amaitzen zaio Xerez taldearekin sinatu zuen hiru urteko kontratua. Denboraldi amaierara arte ez duela ezer erabakiko esan digu.

MIKEL ETXABE | XEREZ FUTBOL TALDEKO JOKALARI ARETXABALETARRA

"Oso berezia da etxetik gertu jokatzeko. Lagun asko ikusten dira"

Larraitx Zeberio

Iaz bigarren mailari eusteko ahalgintetan ibili zineten. Aurten, berriz, goiko puntan zabilzate. Zer gertatu da Xerez taldean?

Aurten taldea askoz ere oso-agoa da eta, nire ustez, jokalaria trebeagoak ditu. Iaz 22 jokalaria ginen taldean. Aurten 25 gara taldean. Hori ere nabaritu egiten da aulkian. Horren guztiaren ondorio dira denboraldi honetan taldea lortzen ari den emaitza hobekak. Saillkapeneko lehen taldea gara eta hori ez da marka makala.

Hirugarren denboraldia duzu Xerez taldean. Emankorra goa izango da aurtengo denboraldia zuretzat, ezta?

Beti da ona taldea ondo ibiltzea eta guretzako pertsonalki ere bai, noski. Azken finean jende gehiagok jartzen dio arreta taldeari eta baita taldeko jokalariei ere. Gehiago ikasten duzu, giroa ere bestelakoa da... Ondo ibiltzeak beti laguntzen du. Giroa hobea sortzen da taldean.

Taldearen aurtengo emaitzak ikusita zeintzuk dira helburuak? Denboraldi hasierako berak dira?

Taldeak oso argi izan du beti aurtengo helburua bigarren mailan mantentzea dela. Hemen jende

oso azkar egiten du berba igotzeko helburu horretaz, baina guk talde barruan argi eta garbi daukagu gure helburua bigarren mailan mantentzea dela.

Argi dago ondo hasi garela aurten eta hasierako helburu hori gero eta gertuago daukagula, baina denboraldia luzea da. Behin bigarren mailan mantentzea lortutakoan ikusiko dugu noraino iristeko gauza garen.

Eta zer nolako giroa duzue aurten taldean? Antza denez, konpondu dira duela bi urteko arazo guztiak.

Iaz konpondu ziren arazo horiek presidente berriaren etorrerarekin. Orain gauzak oso ondo daude. Ez dago duela bi urteko arazo ekonomikorik eta jokalaria pozik gaude alde horretatik.

Eta nola moldatzen da aretxabaletar bat Xerez aldean?

Oso ondo. Dagoeneko badira hiru urte hona etorri nintzenetik eta ohitu naiz hemengo bizimodura. Jende asko ezagutu dut, lagun asko egin ditut eta egia esan, oso ondo moldatzen naiz.

Eta Aretxabaletara etortzen zara noizbehinka?

Ba... ez asko. Urtean bizpahiru aldiz joaten naiz. Entrenamendu asko ditugu eta jaiegun gutxi



AITOR LIZARRALDE

Mikel Etxabe jokalaria aretxabaletarrarekin zapatuan izan ginen, Ipuruan.

bidaiatzeko. Herrira joateko aukera gutxi sortzen zaizkit urtean. Pentsa, uztailean etorri nintzen Xerezera eta Gabonak arte ez naiz Aretxabaletara berriz joango.

Ipuruan jokatu duzue asteburu honetan. Leku berezia da zuretzat?

Noski, berezia da. Lagunak joaten dira ni ikustera, Aretxabaletako jende asko ere bai. Aspaldian ikusi ez duzun jendearekin egiten duzu topo horrelakoetan eta polita da hori, berezia edozein jokalarirendako. Nik, behintzat, gustura hartzen ditut horrelakoak.

Eta euskal taldeen aktualitatea jarraitzen duzu? Zer iruditzen zaizu Athleticen azken fitxaketa?

Niretako nahiko albiste tristea izan da Mendilibarren lana etetea. Bera ezagutzeko aukera izan nuen eta duela bost bat urte Aurrera Vitoria taldean. Entrenatzaile oso ona dela uste dut nik. Ez du batere zorterik eduki Athleticen eta, jakina denez, emaitzek agintzen dute futbolearen. Niri pena handia eman zidan telebistan Athleticetik kalera bota zutela ikusi nuenean.

Ziur nago Mendilibarrek aukera gehiago izango dituela eta badakit emaitza onak lortuko dituela beste talderen batean. Oso ona da bere lanean.

Aurten amaitzen zaizu Xerez taldearekin duzun hiru urteko kon-

tratua. Zein asmo dituzu datozen urteei begira?

Egia esan ez dut oraindik ezer pentsatu. Denboraldia oso luzea da eta goizegi da zer gertatuko den jakiteko. Denboraldiko azken hilabeteak iritsi arte eta burua txapelketatik kanpo dudanean, orduan planteatuko dizkiot horrelakoak nire buruari.

Egia esan, hemen gustura nago baina onartu behar dut beti dudala gogoan etxe aldera egiteko asmo hori. Hori ekain aldera erabakiko dut.

Etorkizunera begira, horrelako talde batean egoteak aukera gehiago ematen dizkizula iruditzen zaizu?

Argi dago interesgarria dela taldea ahalik eta postu altuenean gelditzea saillkapenean. Beti

jartzen dio arreta gehiago jendeak emaitza onak lortzen dituen talde bati.

Uste dut jokalariondako ere irteera aukerak hobekoak eta ugariagoak izango direla horrela. Baina goizegi da oraindik horrelakoak esateko. Ekainera arte behintzat lasai hartuko ditut gauzak nik.

Zure ustez zure ibilbideko denboraldirik borobilen egiten ari zara?

Ez. Aurten neurketa gutxi jokatu ditut, eta egia esan ez dut uste nire ibilbideko denboraldirik onena denik.

Ondo sentitzen naiz bai fisikoki zein moralki eta nire itxaropena hemendik aurrera minutu gehiago jokatzeko da. Horrela izango delakoan nago.

LARRINETXE TABERNA

OHARRA

Arrasateko Udala auzoko
Larrinetxe taberna,
OPORRENGATIK ITXITA.
Abenduaren 1ean zabalduko dugu.

"Aurtengo taldea askoz ere osoagoa da, eta nire ustez, jokalaria talde trebeagoa du"

"Beti da ona taldeak emaitza onak lortzea. Pertsonalki guretzat ere bai"

"Xerez taldearen helburua denboraldi hasierako bera da: maila mantentzea"

"Urtean bizpahiru aldiz joaten naiz herrira. Jaiegun gutxi ditut nahi beste joateko"

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- 'Toribio Jauregi: pilotazale bat' kameraren aurrean erakustaldia zabaldu dute Bergaran | 27
- Sexu-biolentzia salatzeke kartel lehiaketa deitu dute | 27

Patxi Uribarren euskaltzain urgazle aramaioarrarekin egin duen hiztegi jardun dugu | 26

DEBAJAZZ JAIALDIA ESPALOIAN



AITOR LIZARRALDE

Leporaino bete zen Espaloia egubakoitzean Bill Evans eta Soulgrass Band ikusteko, Errabal taldeak antolatutako Debajazz jaialdian.

EUSKAL HERRIKO KONTZERTU BAKARRA | BILL EVANS SAXO-JOTZAILE IPARRAMERIKARRA IZAN ZEN DEBAJAZZ JAIALDIA IXTEKO IZARRA

Folk ikutuko jazz eta rockaren fusio bikaina egin zuen Bill Evansek Elgetan

Bi orduko emanaldi bikaina egin zuten Bill Evans eta bere talde Soulgrass Bandek egubakoitzean Espaloian. 400 lagunek entzun zuten Miles Davisen saxo-jotzailea

Naiara Larrañaga

Euskal Herrian egingo duten kontzertu bakarra egin zuten Bill Evans eta bere talde Soulgrass Bandek egubakoitzean Elgetako Espaloian. Sarrerak aurretik ondo saldu ziren eta azkenean 400etik gora lagun elkartu ziren jazz eta rockaren fusioa entzute-
ra. Saxo-jotzaile estatubatuarrek bere ohiko buruko zinta jantzi zuen eta berehala ekin zion saxoa jotzeari.

Hasierako piezak country samarrak izan ziren eta bazirudien, Christian Howes biolin-jotzailea ere baduenetz taldean, hori izango zela kontzertuaren estilo nagusia. Baina, Evansek jakin zuen jazz eta rock doinue-

tara bideratzen emanaldia. Horretan lagundu zioten Vinny Valentino cool gitarrak, Ric Fierabracci baxu elektrikoak eta Joel Rosenblatt bateriak.

TALDE INDARTSUA

Soulgrass Band talde konpaktua eta indartsua da eta emanaldi beroa egiten jakin zuten Espaloian. Gainera, Evans lider adeitsua da eta bere musikariei bakar-kako lanak egiten maiz laga zien.

Entzuleak ere gustura egon ziren horrelakoetan eta txalorik gehienak orduan entzun ziren. Christian Howes biolin-jotzaile erraldoiak ere emanaldi itzela egin zuen. Aho zabalik laga zuen bat baino gehiago haren atzamar sendoen bizkortasunak; biolina-

ren birtuosoa dela erakutsi zuen tipo ilehori handiak. Bakarkako saioetan berak jaso zuen txalorik gehien eta publikoan giro polita sortu zuen.

Euskal Herriko emanaldi bakarra egin du Bill Evansek Espaloian

Soulgrass Bandek talde konpaktua eta indartsua dela erakutsi du

GIRO BEROA

Debajazz jaialdia ixtera etorri zen Bill Evans Espalaira. Errabal elkarteak antolatutako jazz jaialdiak hilabete batez hainbat jazz emanaldi eskaini ditu Debarroan. Lehenengo saioa Espaloian izan zen Debajazz lehiaketarekin eta egubakoitzekoak zikloa itxi zuen. Emanaldirik jendetsuena izan zen, artista estatubatuarrek ikusmina sortu baitzuen. Ordu laurdeneko atzerapenarekin hasi zuen emanaldia taldeak eta 90 minutuko zuzeneko aurreikusitako bazen ere, gustura aritu ziren musikariak eta ordu erdi gehiago luzatu zuten emanaldia. Entzuleek eskertu zuten erabakia eta giro aparta egon zen emanaldi guztian zehar.

DEBAJAZZ JAIALDIA ESPALOIAN

ZAFARI PROJECT | TALDE BERRIEN LEHENENGO DEBAJAZZ LEHIAKETAKO IRABAZLEAK

Hunkituta eta pozik jaso zuten saria Bill Evansen eskutik Zafari Project taldeko lau kideek

Zafari Project laukoteak datorren hilean ekingo dio diskoa grabatzeari Errabalekoei esker

Marijo Deogracias

Bill Evans eta bere taldearen emanaldiaren ostean, iragarrita zegoen legez, Debajazz musikari berriendako lehiaketako irabazleek hartu zuten Espaloiko taula gaina. Julio Botti (saxo tenorea), Marta Sanchez (pianoa), Francisco Lopez (kontrabaxua) eta Hasier Oleagak (bateria) osatutako laukoak oso pozik jaso zuten saria Bill Evansen eskutik. Hala antolatu zuten Errabal taldekoek sari banaketa.

SARIAREKIN POZIK

Asierrek adierazi zigunez, "Karion taldearen aldeko apustua egin genuen guk. Aurretik ezagutzen nituen eta oso onak dira, eurak ziren irabazleak gure ustez. Sorpresa handia izan da guretzat eta diskoa grabatzeko aukera itzela da".

Marta Sanchezek adierazi zigunez, "lasai etorri ginen lehiaketara eta jotzea zen gure helburu bakarra". Azaldu zigunez, datorren hilean hasiko dira diskoa grabatzen, Errabal elkarteari esker.

Emanaldiaren aurretik izan ginen taldearekin eta poz-pozik zeuden lau musikariak. Saria jaso zutenean, egurrean tailatutako eguzki lorea, taula gainean jarri zuten, emanaldian zortea izateko asmoz. Hala ere, kosta egin zitzaion eguzki-loreari soinua dominatzea, lehenengo hiru piezatan arazoak izan zituzten-eta soinurekin. Baina profesionalak direnez, azkenean lortu zuten irabazleak zergatik izan diren erakustea.

Bi emanaldien artean Euskal Herriko erreportari grafikoan argazki bilduma ederra ikusteko aukera izan genuen.



Hasier Oleaga, Francisco Lopez, Marta Sanchez eta Julio Botti dira Zafari Project laukotea.

DAVID APREA

FordMondeo 0Km

6.000 €
aurrez ditzakezu

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Goatzeko pentsatuak,
irauteko eginak



HIRUGARREN HIP-HOP FESTA | LEYENDA URBANA, NO KREW ETA KULTUR L.A.B. ARRASATEN

Kalitatezko rap musika aurkitzeko ez dagoela zertan oso urrun joan frogatu zuten Gaztetzeko III. Hip-hop festan

Non. Arrasateko Gaztetzean.
Zenbat jende. 150 bat lagun.
Iraupena. Goizaldeko ordu bata arte ibili ziren erimake egiten.

J. B.

Hip-hopak genero moduan izan dezakeen malgutasunaren lekuko izan ziren egubakoitz gauean Arrasateko Gaztetzera gerturatu zirenak. Hip-hop jaialdia aitzaki hartuta, Euskal Herriko raparen erakusle bihurtu zen Uarkapeko oholtza, Leyenda Urbana, No Krew eta Kultur L.A.B. taldeekin. Festa itzela egubakoitzekoa, errima eta mezu zuzenak nonahi. Ia

berrehun lagun batu zituen Arrasateko Gaztetzeko antolatzen duen hip-hop festaren hirugarren edizioak. Oholtzan lehenak Oñatiko Kultur L.A.B.-ekoa izan ziren. Hasiberri hauek (euren hirugarren kontzertua izan zen Arrasatekoa) hip-hop Euskal Herrian kontuan hartzeko joera dela baieztatu beretik ez zuten egin. Beharbada, gainera, azkenaldiko proposamenik originalenetakoa aurkezten dute oñatiar hauek. Latinoamerikar eta afrikar etorkinen seme izanda, berezko nortasuna erakutsi zuten kontzertuan, gaztelaniaz eta saharrez kantatutako abestiek. Etorkizun oparoa antzematen zaio hirukoteari, lehen kontzertuetako bat izateko, ondo

eroso moldatu ziren-eta oholztan. Osteen, Urretxukoak izan ziren errimen arduradunak. Poliki-poliki No Krewkoek giroa berotzea lortu zuten. Kalitatezko rap kontzertua eskaini zuten, nahiz eta zuzenekoekin denbora gutxi daramaten. Giro bikaina sortu zuten gipuzkoarrek.

Azkenak Leyenda Urbana taldeko beteranoak izan ziren. Agerikoa zenez, mailarik onena txantrear hauek eman zuten.

Makina bat lagun igo zituzten Leyenda Urbana taldekoek oholtzara

Jende asko joan zen kanpotik Arrasatera emanaldi honetarako eta nafarrek ez zuten hutsik egin. Ibilbide luzea du taldeak eta zuzenean asko igarri zen zeukaten eskola.

Hori gutxi balitz, ikusleak ere alde zituzten, horietako asko eszena gainera igotzera animatu eta taldearekin repeatzen ibili ziren-eta. Zuzeneko borobila egin zuten Leyenda Urbana taldekoek eta emanaldiarekin gusura zeudela ere igartzen zitzairen aurpegietan; makina bat lagun igo zituzten eurekin oholtzara.

Emanaldi bikainak, rap ona eta jendearen aparteko erantzuna, hortaz, egubakoitzean Arrasateko gaztetzean, dagoneko klasiko bihurtzen ari den Hip-Hop festan.

ANTZERKIA | EUGENIA ARDIAREN BIDIAK
Irudimena lagun, ardi batek hiri grisa kolore biziz jantzi zueneko

Non. Amaia Antzokian.
Antolatzailea. Arrasateko Udala.
Zenbat jende. 150 bat lagun, haurrak eta gurasoak.

J. B.

Haur txikien lehengairik preziatuenera jotzen du zuzenean Agerre taldearen umeentzako lehen ekoizpen honek: irudimenera, hain zuzen ere. Eszenografia eta muntatze soilarekin eta bi pertsoniarekin bakarrik, antzezlanean gai dira hiru eta zazpi urte bitarteko haurrei asmatzeneko jolasa proposatzeko. Pintxelis margolariak koloreekin egiten du amets, baina hiriko grisak bere imajinario guztia kutsatzen du, Eugenia ardiarekin topo egiten duen arte. Larre berde eta oparoetatik datorren protagonistak eguzkia erakutsi eta mundua kolore biziz josita aurkeztuko dio. Mezu apal baina esanguratsu horrekin, naturaren garrantzia hirira ekarri gura dute egileek, margo eta jolasez baliatuta. Haurrek erraz jarraitu eta gozatu dezaketan istorioa da Eujeniarena, zuzena eta mezu garbia daukana. Antzeleek ere, Garbiñe Tolosak eta David Bernuesek, lan polita egiten dute, umeei zuzenduta egonagatik modu sinesgarri eta ulergarrian aurkezten dituztelako euren pertsonaiak.



Pintxelis eta Eugenia, jolasean.

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINU+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

7505
zenbakira

Deiaren prezioa:
0,90 + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jar zaitze zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea duan da eta Ki jaitsera bakarrik ordaindu behar duzue. Kasu guztietan da eta GPRS sistemari alta ematea duan da.
* Euzkaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-ra. / * Movistar: deitu 609-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kalaberu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu **902 01 21 48** telefonora.

ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Real | REAL
Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) | AIZKO
Amore amore (Kandado) | AMORE
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Fermín Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
ER Sukarra (H. Sakarra) | SUKAR
Etsi dican mierda, nosotros amen (La Polka) | ELLOS
Enamorado de la muerte (En) | ENAMO
Etorkizuna (Etsak) | ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
Gora Herria (Nego Gorka) | GORA

Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | HAIZEA
Hegal egiten (Itzi) | HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
Iargia (Ken7) | KEN
Inperuen ate joka (Gatibu) | INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | JOKIN
Kaixo (Urte) | KAIXO
Lau Teiletu (Itzi) | ITOIZLAU
Laztana (Lazeti) | LAZTA
Lotuta egon arren (Kakain) | LOTUTA
Loretxoa (Etxepare) | LORE
Marea Gora (Itzi) | MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love (Hertzainak) | NOTIME
Salvia (La Polka) | SALVE
Sari Sari (Kortatu) | SARRI

Sorginen leizean (Etxepare) | SORGIN
Txabxo (Zarama) | TXATXO1
Txus (La Polka) | TXUS
Trikitixa
Bexamela ta pastela (Marta ta Iñaki) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Iñaki) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxaxo) | ITSAS
Kupela (Epele eta Larrinaga) | KUPELA
Mila galdera (Añel) | MILAI
Nirekin (Garcaso) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Añel) | TXANPON
Folk
Arratsalde honetan (Soren) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxo) | BAI
Bakezaleak (Añel) | BAKE
Bizkaia Maite (Bento Lertxundi) | BIZKAIA

Eperrak (Añel) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun baren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Oñativia) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA
Galiziara noa (Oskorri) | GALIZIARA
Germikako Arbola (Gonzal Mendibil) | GERMIKAKO
Haika Mutu (Mikel Laboa) | HAIKA
Lepoan hartu ta (Pantxo) | LEPONAN
Marrilaren zai (Soren) | MARRILAN
Nere herriko neska maite (Bento Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarín) | NON
O! Ama Euskal Herria (B. Lertxundi) | O! AMA
Tirakui (Oskorri) | TIRA
Txatxamatxatxu (Mikel Urdangarín) | TXATXA
Txoria bori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Oñativia) | ZAINDU

Herrikoia
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marijela (Kepa Junkera) | JAJA
San Fermin | FERMIN
San Martzialak alardea | SAN MARTZIAL
SOINU ERREALAK (2 sms)
Soinu izena | KODEA
Irintzia | IRRINTZI
Txalaparta | TXALAPA

LOGOAK (sms 1)
LAU1
LAU3
NUKLEAR
LORA
SORGIN
ARRANO

JOKOAK (4 sms)
SUDDOKU
BARONROJO
BOINK
RALLYDELUXE
FUTVOLEY
SOBALL

RIP

PUNKAREN 25 URTEKO HISTORIA BIZIA



DVD Erreportajea-elkarrizketak Kontzertuak Argazki galeria Bestelakoak

CD Argitaragabeko 14 abesti

Salgai ohiko
tokietan eta
GOIENAKo
egoitzetan



DVD-CD SALGAI

Patxi Uribarren aramaioarrak, Bostak Bat taldeko lankideekin batera, *Eskola Hiztegia*, *Adorez 5* izeneko hiztegia kaleratu zuen martxoan. Bigarren edizio

bat atera berri dute eta dagoeneko 8.000 ale kaleratu dituzte. Gaur egun Bizkaiko Foru Aldundiko itzultzailea da Patxi, bai eta euskaltzain urgazle ere. Besteak beste,

Karmel, *Anaitasuna*, *Zeruko Argia* eta *Jakin* aldizkarietan argitaratu ditu bere lanak eta joan zen egubakoitzean *Eskola Hiztegia*z aritu zen Aramaion.

PATXI URIBARREN | ESKOLA HIZTEGIAREN EGILE ETA EUSKALTZAIN URGAZLE ARAMAIOARRA

“Euskara ikasten eta sakontzen ari diren ume eta gazteendako da egin dugun hiztegia”

Marijo Deogracias

Nolako hiztegia da *Eskola Hiztegia*?

Hasteko Eskola adiera zabaLEAN hartzen dugula esan behar da, hortaz, euskara ikasten eta sakontzen ari diren ume eta gazteendako hiztegia dela argitu beharra dago. Hala ere, eta hizkuntzaren forma asko jasotzen ditugunez, kontsultarako liburu dela ere aipatu beharra dago. Hiztegiak orokorrak eta mugatuak izaten dira eta gurea, 14.000 berba jasotzen dituenez, ezin da esan orokorra denik, askoz ere berba gehiago daudelako euskaraz, baina ez da mugatua ere. Gure asmoa eskola umeek eta gazteek kontsultarako erraz erabiltzeko hiztegia egitea izan da. Oinarritzko hiztegia dela esango nuke.

Zenbat sarrera ditu oinarritzko hiztegi horrek?

Diotenez, mila bat berbarekin hitz egin daiteke hizkuntza bat; zentzu horretan, 1.700 derrigorrezko berba jasotzen dira hiztegian eta beste 1.300 bat hizkuntza hori osatze aldera, hau da, euskaradun jasoagoa izaten laguntzen dutenak. Zenbakiak hauek dira: 15.845 sarrera, 20.556 definizio, 12.482 adibide, 17.205 sinonimo eta 4.045 antonimo, eta euskalkietako 1.676 sarrera.

Aditzari ere tratamendu berezia eman diozue hiztegiari.

Euskara mota ezberdinak batuz osatu behar dugu gure hizkuntza eta horren alde egiten du gure hiztegiak ere. Hori dela eta, bizkaiera, gipuzkera, nafarrera, Iparraldeko euskara eta bereziki zuberera erabili ditugu hizte-

gian. Iparraldeko euskararekin aparteko ahalegina egin dugu; han ez daukatelako inolako laguntzarik horrelako lanak argitaratu ahal izateko. Horrekin guztiarekin batera, gramatika txikitxo bat ere gehitu dugu eta aditzari dagokionez, ahalegin berezia egin dugu. Hiztegi sarretatik aparte aditz eskema osoa zehaztu dugu, hartara, bizkaieratik batura (2.290 sarrera) eta zubereratik batura (1.920 sarrera) jauzi egiteko aditz zerrendak gehitu ditugu.

Lan horrekin jarraituz, asmoa daukagu Durangoko Azokarako, aditzaren joko berritasuna denez, aparteko liburuki baten argitaratzeko eta aditz trinkoa ere gehitzeko.

Hiztegi *Eskola* hau, 1991n argitaratu zenaren bertsio berria da. Zeintzuk dira aldaketa nagusiak?

“Derrigorrezko 1.700 berba jasotzen dira hiztegian eta beste 1.300 hizkuntza osatzeko”

“Euskalkiak ezagutzeko eta erabiltzeko aukera ere ematen du kontsultarako hiztegiak”


Hasteko, sarrera askoz ere gehiago daudela azpimarratu behar dugu. Gainera, hiztegia osatzeko orduan egin behar izan ditugun ikerketei esker, berben datu base handiagoa osatu dugu. 24.000 berba batu ditugu eta horietatik 15.000 bat sartu ditugu hiztegian. Gehien erabiltzen diren berbak dira horiek. Hala ere, lanari esker, aurten 32.000 berbetara iritsiko gara eta horien kontsulta egin ahal izango da Interneten; baliteke liburu eran ere argitaratzea geroago lan hori.

Osterantzean, hiztegiak duen erabilera erraza azpimarratu nuke. *Eskola* hiztegia da, hau da, umeek eta gazteek kontsultarako erabil dezaten eta bide batez, euskalkiak ezagutzeko eta erabiltzeko aukera izan dezaten. Kontsulta hiztegia den arren, oso praktikoa da *Eskola Hiztegia* eta ematen ditugun adierak ere oso errazak dira ulertzeko.

Nola gauzatu duzue hiztegia?

Hamalau hiztegi aztertu ditugu, ume eta gazteei zuzendutako hamalau hiztegi. Handik gehien erabiltzen diren berbak sailkatu ditugu eta horri bestelako zerrendetatik eta ikerketetatik ateratako berba erabilienak gehitu dizkiegu. Sailkapen horiek egiten dira gehien erabiltzen diren berbak identifikatzeko, eta horren arabera gure hiztegirako aukeraketa egiten dugu. Hortaz, maiztasunaren arabera sailkatu ditugu, beharrezko berbak eta behar-beharrezkoak.

Guk geuk eginiko ikerlanek gainera, azken urteetan egin diren lexikologia alorreko lanak ere kontuan hartu ditugu, bereziki HABEk adineko pertsonen



Patxi Uribarren Aramaion izan zen egubakoitzean.

euskalduntzerako argitaratutako *Euskara-ikaslearen oinarritzko hiztegia* eta, jakina, Euskaltzaindiak finkatutako berbak.

Bitxikeria legez, *Europa* hiztegian erabili ziren esanahietako batzuk ere gehitu ditugu lan honetan.

Aramaion saldu dituzue ale batzuk, baina non eskuratu ahal izango da *Eskola Hiztegia*?

Durangoko Azokara eramanango dugu Adorez bildumako beste hiztegiekin batera, Bostak Bat taldekook erakusmahai jarriko baitugu.

‘Eskola Hiztegia’ bere herrian, Aramaion, aurkeztu zuen Patxi Uribarrenek egubakoitzean

Bostak Bat taldearen izenean arituz Patxi Uribarren euskaltzain urgazle aramaioarra egubakoitzean bere sortze herrian. Kultura etxera aspaldiko ezagunak eta euskara zaleak bildu ziren, Uribarrenek egin zuen aurkezpena entzuteko asmoz. *Eskola Hiztegia* martxoan aurkeztu zutela gogoratu zuen Patxi; Euskaltzaindiaren egoitzan izan zela aurkezpen hura. Egubakoitzean, ordea, Aramaion arituz. Ordubetz jardun zuen hiztegi berrituaren nondik norakoak azaltzen, bai eta hiztegia osatzeko aurretik egin duten lanaren berri ematen ere. Patxiarekin batera, Luis Baraiazarra, Txomin Solabarrieta,

Ricardo Badiola, Juan Luis Goikoetxea eta Gotzon Aurrekoetxea aritu dira hiztegiaren aurkezpenan. Bostak bat taldeak argitaratu dituen *Adorez Hiztegi* hori eta aramaioarrek, sinatutako aleak erosteko aukera izan zuten egubakoitzean, %40ko beherapenarekin.

Hitzaldiaren ostean aritu zen Patxi hiztegiak sinatzen eta gero, luntxera abiatu zen hitzaldian entzule izan zituenekin, kultura etxe ondoko egoitzara.

Durangoko Azokan ere izango da hiztegia eskuratzeko aukera, Bostak Bat taldeak, lehenengoz, erakusmahai jarriko duelako.



Mendiaren eta naturaren gaineko argazki lehiaketa deitu du Aloña Mendik

Bigarren edizioa da, eta berritasun asko ditu: sari garrantzitsuagoak eta, gai aldetik, askatasun handiagoa dago

Leire Kortabarria

II. Mendi eta Natura argazki lehiaketa deitu du Oñatiko Aloña Mendi Kirol Elkarteak mendia sailak. Aurreko edizioak, 2001en, arrakasta izan zuen, mugatua izan arren –Oñatin ateratako argazkiak bakarrik onartzen zituzten–, eta orain, lehiaketa handiagoa egitea erabaki dute, bai gai aldetik, bai sari aldetik ere.

Hala, aurten bi azpi-gai daude: mendia eta natura, batetik –alpinismoa, paisajeak, eskalada...–, eta ingurumenari egindako eraso salaketa, bestetik. Sariak dagokionez, 300 eta 150 euroko sari bana eta mendiko materiala emango dituzte mul-

tzo bakoitzeko hiru onenendako. Norberak ezingo du sari bat baino gehiago jaso.

Lehiaketa zabalik dago 18 urtetik gorako edozeinendako, eta norberak hiru argazki aurkez ditzake gai bakoitzeko. 50x40 zentimetroko euskarrian bidali behar dira lanak Aloña Mendiren egoitzan, Atzeko Kaleko 18-20. zenbakian, abenduaren 1a baino lehen, kartazal baten, lanaren izenburuarekin identifikatuta; beste kartazal baten, egilearen datuak.

Epaia Agustin Gurrutxaga, Josu Garai eta Benito Cantero argazkizale eta mendizaleek emango dute. Argazkiak erakusketan ipini ondoren, egileei bueltatuko dizkiete.

TARTEKIA

Aurrerantzean, lehiaketa urtero deitzeko asmoa du Aloña Mendi elkarteak. Orain lau urteko deialdian 40 argazki inguru jaso zituzten, eta, antolatzaileen esanetan, orokorrean, kalitatezko lanak ziren. Horrek animatuta, lehiaketa garrantzitsuagoa antolatuko du orain Aloña Mendik.

Labur

Sexu-biolentzia salatzeako kartel lehiaketan parte har daiteke

Sexu-biolentzia salatzeako kartel lehiaketa deitu du Beke-k, Bergarako Emakumeen Kultura Elkartek, edozein herriko egileendako. 15 urtetik gorakoek parte har dezakete, bakarka edo taldeka, 50 x 35 zentimetroko kartelekin. Derrigorreko testua da *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!* Lanak kultura etxera eraman behar dira azaroaren 18a bitartean. 200 euroko saria banatuko dute azaroaren 25ean, Nazioarteko Sexu Biolentziaren Aurkako Egunean.

Giza eskubideen gaineko lehen sariketa deitu du Foru Aldundiak

Giza eskubideen gaineko argazki lehiaketa deitu du Gipuzkoako Foru Aldundiak lehenengo aldiz, lurralde horretako argazkilaria afizionatuendako. 1948ko Giza Eskubide Aldarrikapen Unibertsaletik aukeratu dituzte bost artikulua, eta beroiek dira gaia. Kategoriarik dira 12-18 urte bitartekoendako eta 18 urtetik gorakoendako, eta 3.500 euro eta beste hainbat sari emango dituzte. Lanak bidali behar dira Gipuzkoako Argazkilaritza Elkartera, Donostiara, hilaren 25a baino lehen.

Salgai ipini dituzte Arrasateko lau kultura emanaldirako sarrerak

Arrasateko Udalak ekintza asko antolatu ditu azaroan, eta horietako laurako sarrerak salmentan ipini ditu dagoeneko. Honako emanaldietarako sarrerak dira, hain zuzen: *Larru Haizetara* antzezlan (azaroak 13, domeka), *Como Agua para Chocolate* antzezlan (azaroak 27, domeka) eta Ken Zapiti taldearen kontzertua (azaroak 19, zapatua). Sarrerak erosteko, Servi Kutxa kutxazain automatiko sarera edo www.kutxa.net webgunera jo, edo 943 00 12 00 telefonora deitu behar da.

Hitzorduak

ERAKUSKETA | 'Toribio Jauregi: pilotazale bat kameraren atzean' erakustaldia Bergaran

Toribio Jauregi Altzeta (1896-1969) pilotazale eta argazkizale amorratua zen, eta zaletasun biak bat egin zituen. Horien emaitza erakusketan ipiniko dute Bergarako Aroztegi aretoan egubakoitzean, azaroak 11. Bere garai kronika antzeko bat utzi digu Jauregik. Erakusketan, 20 argazki ipiniko dituzte; gainera, Gallas-tegi eta Atano III.ak 1948an jokatutako finaleko irudien DVDa egin dute, eta erakusketaren gaineko liburua salduko dute. Albo-ko argazkia, Jauregiren erretratua, liburuan agertzen da.

Erakustaldiko bisita ordutegia hau izango da: astegunetan, 18:00-21:00, eta zapatuetan, 12:00-14:00.



ZINEMA |

• *Obaba* filma emango dute gaur, astelehena, Arrasaten

Film hori euskaraz ikusteko aukera dago Amaia antzokian, 20:30ean. Montxo Armendaritzen film horretan, *Lourdes* (Barbara Lennie) Obaba herri-ara doa, eta bideo-kamera batekin herriaren eta bizilagunen bizitza harrapatu gura ditu.

• *Princesas* filma emango dute gaur, astelehena, Oñatin Kultura etxean emango dute film hori 19:30ean. Fernando Leon de Aranoa zuzendariaren filma da. *Caye* (Candela Peña) eta *Zulema* (Micaela Nevárez) prostituten eguneroko bizitza eta gogoetak kontatzen ditu.

• *Léolo* filma emango dute eguaztenez, hilak 9, Elgetan Espaloia antzokian, 21:30ean, emango dute. 1992ko film horrek aurkezten du *Léolo* (Maxime Collin) umea eta arazo asko dituen bere familia. Eromenetik ihes egiteko, fantasiazko mundu bat eraikitzen du *Leolo*-k.

• *Gala* filma emango dute Arrasaten zineklub saioan Amaia antzokian izango da dokumental emanaldi hori eguenean, hilak 10, 20:30ean, Udal Emakume Sailak emakumeen gainean antolatu duen zikloaren barne. Elena Dimitrievna Diakonova *Gala*-ren bizitza azaltzen du dokumental horrek. Paul Eluard eta Salvador Dalí margolarien musa

izan zen. Filma Espainiakoa da, 2004koa, eta Silvia Munt da zuzendaria.

• *Hierro 3* filma emango dute Oñatin zineklub saioan

Eguenean, hilak 10, emango dute film hori kultura etxeko zinema aretoan, 20:00etan. Kim Ki-duk korearrak 2004an zuzendutako film honetako protagonista *Tae-suk* (Jae Hee) etxez etxeko publizitate banatzailea da. Horretan dabilela, *Sunhwa* (Lee Seung-yeon) ezagutzen du, senarrak tratatu txarrak ematen dizkion neska.

ANTZERKIA |

• Ipuin bat marrazki bidez kontatuko du *Mattin*-ek *Belardo belar-metaren ibilerak* izeneko ipuina marrazki bidez kontatuko du Iñaki Martiarenak, *Mattin*-ek, eguenean, hilak 10, Arrasateko haur liburutegian, 17:30ean.

ERAKUSKETAK |

• *Gloria Carballo eta Mila Carballoren margo erakusketa* Arrasaten, Harresi aretoan, dago erakusketa hori. Hilaren 26 arte egongo da zabalik honako ordutegian: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

IKASTAROKAK |

• *Bi Internet ikastaro* *Aretxabaletako KZgunean* Bihar, martitzena, etxetik erosten ikastekoa emango dute,

16:00-17:00; hilaren 10ean, eguena, postal bat bidaltzen ikastekoa, 16:00-17:00.

• Hainbat Internet ikastaro Oñatiko KZgunean

Gaur, astelehena, oinarrizko ikastaroa emango dute, 09:00-11:00 edo 18:30-20:30; eta Iberdrola Mikologia delakoa, 16:30-18:30; bihar, martitzena, etxebizitza topatzekoa, 16:30-17:30; eta eguenean, hilak 10, Via-Michelinekin bidaiatzekoa, 16:30-18:30. Izena emateko, deitu 943 71 83 20 telefonora.

LEHIAKETAK |

• Gabonetako postal digitalen lehiaketa antolatu dute

I. Gabonetako Postal Digitalen Lehiaketa deitu du Eskoriatzako Udalak. Edozein motatako irudiek balio dute, eta testuak euskaraz izan behar du. 300 euro emango dizkiote irabazleari, eta bere irudia Udaren Gabonetako mezu guztietan erabiliko dute. Lanak bidali behar dira lehiaketak@eskoriatza.net helbidera abenduaren 2a baino lehen.

• Topagunearen Gabonetako postal lehiaketa

Bere bezeroei Gabonak zoriondu eta urte berri ona opatzeko argazkia aukeratzeko lehiaketa deitu du Topaguneak. Mugaeguna da azaroaren 18a. Argibideak, www.topagunea.org helbidean, 94 621 51 16 telefonoan edo gazteak2@topagunea.com e-posta helbidean.

Eguraldia



Astelehena, 7



Martitzena, 8



Eguaztena, 9



Eguena, 10



Egubakoitza, 11

Asteburuko hotza eta gero, apur bat gora egingo dute temperaturek gaur

Giro ona egingo du gaur. Hego haize ahulak epeltzeko joerari eutsiko dio eta giro atsegina ipiniko du. Zeruia apur bat gehiago estaliko dute goiko lainoek, baina eguzkia bistan izango dugu. Goizeko freskurak uxatu orduko, epel puntua harra-patuko du temperaturek. Eguena bukatzerako baina, frontea

gainean izango dugu. Hala, bihar, euritakoa eskura izan beharko dugu goizetik. Tenperaturak pixka bat igoko dira. Eguaztenean aldatu egingo da zeruaren itxura eta eguzkia ikusteko aukera izango dugu berriz ere. Gauza bera gertatuko da eguenean. Egubakoitzean, berriz goibel eta euritsu.

Goardiako farmaziak

ARRASATE

| | | |
|------------------------|------------|------------------------------------|
| Astelehena, 7 | Morales | Araba etorbidea, 14 (943 79 18 65) |
| Martitzena, 8 | Ruiz Perez | Magdalena, 31 (943 79 14 09) |
| Eguaztena, 9 | Zabala | Zarugalde, 42-44 (943 77 16 30) |
| Eguena, 10 | Azkoaga | Ferrerias, 1 (943 79 15 15) |
| Egubakoitza, 11 | Azkoaga | Iturriotz, 17 (943 79 79 99) |

BERGARA

| | | |
|------------------------|---------|-------------------------------|
| Astelehena, 7 | Zabala | Barrenkale, 25 (943 76 16 87) |
| Martitzena, 8 | Guallar | San Antonio, 5 (943 76 11 05) |
| Eguaztena, 9 | Estella | Matxiategi, 5 (943 76 19 63) |
| Eguena, 10 | Mozos | Iparragirre, 2 (943 76 12 15) |
| Egubakoitza, 11 | Camacho | Oxirondo, 4 (943 76 11 74) |

OÑATI

| | | |
|------------------------|-------------|--------------------------------|
| Astelehena, 7 | Juldain | Kale Barria, 6 (943 78 11 28) |
| Martitzena, 8 | Juldain | Kale Barria, 6 (943 78 11 28) |
| Eguaztena, 9 | Anduaga | San Lorentzo, 3 (943 78 21 16) |
| Eguena, 10 | Anduaga | San Lorentzo, 3 (943 78 21 16) |
| Egubakoitza, 11 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 (943 78 11 28) |

ARETXABALETA

| | | |
|------------------------|--------|----------------------------------|
| Astelehena, 7 | Fraile | Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99) |
| Martitzena, 8 | Fraile | Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99) |
| Eguaztena, 9 | Fraile | Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99) |
| Eguena, 10 | Fraile | Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99) |
| Egubakoitza, 11 | Fraile | Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99) |

Telefono jakingarriak

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

| | |
|------------------------|--------------|
| OSAKIDETZA (Larriald.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA (Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 53 47 20 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 03 54 00 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoa | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |

| | |
|----------------|--------------|
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

GARRAIOAK

| | |
|------------------|--------------|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

DEBAGOIENA

| | |
|------------------------|--------------|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 77 12 28 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Goibeko / Elgeta | 943 78 90 85 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |

| | |
|-----------------------------|--------------|
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Hondakindegia Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |

Kiroldegiak

| | |
|--------------|--------------|
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

Kultura Etxeak

| | |
|----------------|--------------|
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Aramaio | 945 44 53 74 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |

Udalak

| | |
|----------------|--------------|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 31
1 • 6 • 16 • 24 • 30 • 38
Osagarria: 35 | Itzulketa: 8

Martitzena, 1
1 • 25 • 27 • 39 • 40 • 49
Osagarria: 4 | Itzulketa: 0

Eguaztena, 2
5 • 7 • 11 • 21 • 34 • 43
Osagarria: 12 | Itzulketa: 4

Egubakoitza, 4
5 • 7 • 18 • 25 • 42 • 48
Osagarria: 45 | Itzulketa: 7

ONCE

Astelehena, 31 **11.085**

Martitzena, 1 **Jaieguna**

Eguaztena, 2 **81.224**

Eguena, 3 **87.950**

Egubakoitza, 4 **56.040**

Kupoitzarra (107 seriea)

Domeka 6 **92.585**

Kupoitzarra (017 seriea)

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 3
1 • 21 • 24 • 28 • 33 • 38

Osagarria: 48 | Itzulketa: 4

Zapatua, 5
4 • 8 • 18 • 19 • 23 • 30

Osagarria: 49 | Itzulketa: 4

Zapatua, 5 (Saritzarra)

2 • 12 • 22 • 26 • 28

Osagarria: 9

Gazte zerbitzuak

EKINTZAK |

- **Spinning Maratoia.** Azaroak 12, larunbata, Debagoieneko I. Spinning Maratoia egingo da. Bergarako Labegaraieta kiroldegian. Izenemate epea: azaroak 9. Bergara: kirolak@bergara.net edo 943 77 91 67 zenbakian.
- **Donostia Mundu Artean.** X. Donostiako Mundu Artean Solidaritate Jaialdia. Urritik abendura ekintza ugari izango dira: hitzaldiak, erakusketak, musika emanaldiak, proiektzioak... Informazio gehiago: www.donostia.org web orrian.
- **Hitzaldia.** Gipuzkoako Foru Aldundia. 'Zein zerga dira ordaindu behar ditugunak?'. Boluntario, teknikari, begirale eta irabazi asmorik gabeko erakundeetako gazteentzat. Abenduaren 15ean izango da,

19:30etik 21:30era. Epea: Abenduak 10.

IKASTAROKAK |

- **Aisialdiko begiralea.** Bergara. Haurren eta gazteen aisialdiko begirale ikastaroa. 2005eko azaroaren 26tik 2006ko ekainaren 18ra, asteburuetan. Epea: azaroak 19.
- **Sorospen ikastaroa.** DYA Gipuzkoa. Azaroaren 14tik abenduaren 2ra arte (astelehenetik egubakoitzera, 19:30etik 21:30era). Plaza mugatuak dira!

LANA |

- **Garbitzailea.** Bergarako Udala. Bergarako Mizpirualde Zaharren Egoitza Fundazio Publikoan aldi batez garbitzaile lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: azaroak 7.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com



Bertan salgai

ASTELEHENEKO

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruxko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Lucia Olazabal
Urriaren 25ean, 5 urtebetetzea. Urte askotarako. Etxeokak.



ARRASATE
Naia Etxabe
Urriaren 26an, 3 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Gari Urrutia
Urriaren 30ean, 4 urte. Zorionak! Arizmendiko Sanvi Txikiko lagunak.



ARRASATE
Ainhoa Ortega
Urriaren 30ean, 2 urte. Zorionak! Zorionak minina! Etxeokak.



ARRASATE
Lola Perez
Azaroaren 3an, urteak. Zorionak! Arkaitz, Belen eta Unairen partetik.



Julen Michelangeli Lozano
Bergara • 3,670 Kg. Azaroak 2. Gurasoak: Silvana eta Gustavo (Bergara). Argazkian: Julen bere gurasoekin.



Nahia eta June Blazquez Celaia
Oñati • 2,580 eta 2,580 Kg. Azaroak 2. Gurasoak: Nekane eta Ismael (Oñati). Argazkietan: Nahia eta June lo kuman.



ARRASATE
Eñaut Bergaretxe
Azaroaren 6an, 6 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxeokoen partez.



ARRASATE
Elena Isasmendi
Azaroaren 7an, urtebetetzea. Zorionak! Familiaren partez.



ARRASATE
Jokin Perez
Azaroaren 7an, 2 urte. Zorionak Arizmendi-Sanvi txikiko lagunaren partez



ARRASATE
Bittor Iñarra
Azaroaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, familia, Unax eta Gorka.



BERGARA
Ane Mujika
Azaroaren 5ean, 8 urte. Zorionak! Etxeokak, lagunak eta Alazne.



Luken Jimenez Orobenqoa
Arrasate • 3,270 Kg. Azaroak 3. Gurasoak: Txapu eta Olatz (Arrasate). Argazkian: Luken amaren besoetan lotan.



Goiatz Arana Egaña
Eskoriatza • 3,000 Kg. Azaroak 3. Gurasoak: Jaione eta Nestor (Aramaio). Argazkian: Goiatz, Oier osaba eta Olatz izebarekin.



BERGARA
Paul Roman
Azaroaren 5ean, 5 urte. Zorionak! Familiakoak eta Araceli.



BERGARA
Gorka Larrañaga
Azaroaren 7an, 9 urte. Zorionak! Etxeokak eta Martokoko lagunak.



BERGARA
Itsaso Gantxegi
Azaroaren 7an, 8 urte. Zorionak! Etxeokak, lagunak eta bereziki, Jon.



BERGARA
Alex Ormaetxea
Azaroaren 11n, 2 urte. Zorionak! Osaba-izeba eta amama.



BERGARA
Erik Herran
Azaroaren 11n, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



Luken Jimeno De la Cruz
Arrasate • 2,850 Kg. Azaroak 4. Gurasoak: Monica eta Israel (Arrasate). Argazkian: Luken, bere amarekin.



Oxel Artolazabal Martinez
Aretxabaleta • 3,230 Kg. Azaroak 4. Gurasoak: Lore (Aretxabaleta) eta Aitor (Soraluze). Argazkian: Oxel, bapo lo.



BERGARA
Ander Fuentes
Azaroaren 11n, 9 urte. Zorionak! Familiakoak, bereziki Ana arreba.



BERGARA
Idoia Herran
Azaroaren 12an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA
Alazne Mujika
Azaroaren 20an, 4 urte. Zorionak! Etxeokak, lagunak eta Ane.



ESKORIATZA
Ane Eraña
Azaroaren 7an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako etxeokoen partez.



ARETXABALETA
Eneritz Urrutia
Azaroaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, lagunak eta andereño onenari!



Eider Arabolaza Moreno
Arrasate • 2,400 Kg. Azaroak 4. Gurasoak: Miriam eta Jon Mikel (Arrasate). Argazkian: Eider, bapo lo.



ARAMAIO
Ainhoa Vilches
Azaroaren 4an, 6 urte. Zorionak, Leire, amatxo eta aitatxo.



ORMAIZTEGI
Goiatz Arana
Azaroaren 9an, 27 urte. Zorionak eta moltes felicitats. Lanekoak.



Zoriondu ARRASATE IRRATIAN




Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIA**k egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7

ARRASATE IRRATIA



ESKELAK
ASTELEHENKO
GOIENKARIAN

82 euro
943 25 05 02

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 09:00

Lurdes Umerez eskultorearekin berriketan

Asteburuko kirolei Jokin Etxebarria kazetariarekin errepaso egin ondoren, Lurdes Umerez eskultoreari elkarrizketa egingo diote irratiko kideek. Eskoriatzan bizi den azkoitiar honek tamaina handiko lanak egiten ditu. Berea da, esaterako, Musakolako zelaian dagoen astoa.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Udazkeneko saioa' | 12:00

J.A. Urteaga Jose C. Paz herriaren gainean

Astelehenean Oñati Irratiak *Munduari begira* izeneko tartea izango du. Oñatiko anaitze batzordeko kide Jose Antonio Urteagak Argentinako Jose C. Paz herrira egindako bidaiaren eta Quetas indigena komunitatearen gainean berba egingo du.

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 10:30

Umeen elikaduraren gainean, adituekin

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 11:10

Igeldoko metereologia behatokiak, 100 urte

Loiola Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Astean albiste izango direnak sakonean

Gaur telebistan

GOITB



Baserritarren egoeraren gainean berbetan

13:47 Behazulo saioan Aitor Aranburuk azalduko du Hego Euskal Herriko baserritarren egoera.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak.

13:45 Gaurkoak.
14:47 Behazulo saioa.
14:15 Eltze beroa sukaldaritza saioa.
14:30 Eguraldia eta zerbitzuak.
14:35 Lazkao Txiki.
14:45 Albistegi aurrerapena.
15:00 Bidetxurretik. *Akapulko*.
15:30 Eguraldia eta zerbitzuak.
15:35 Lazkao Txiki.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Ilunpean.
16:15 Klip@. Musika.
16:30 Eguraldia eta zerbitzuak.
16:35 Lazkao Txiki.
16:45 Albistegi aurrerapena.
17:00 Didjeridu.
17:30 Motzean eta Zera dio.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ikuskizuna.
18:15 Jaun eta Jabe.
18:45 Albistegi aurrerapena.
19:00 Klip@.
19:15 16mm.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Albistegia.
21:15 Harmailatik.
21:45 Berriak.
22:15 Harmailatik.
22:45 Albistegia.
23:00 Jazz Zikloa.
23:30 Eltze beroa.

11:50 Bertatik Bertara.

12:30 Travel notes.

13:10 Betizu.

14:00 Gaur Egun.

14:35 Postada.

14:40 Eguraldia.

14:45 Goenkale.

16:15 National Geographic.

17:05 Sustrai.

17:35 E-Klipse@.

18:00 Iparraldearen orena.

18:05 Betizu.

20:00 Gaur Egun.

20:45 Eguraldia.

20:55 Bertatik Bertara.

21:45 Goenkale.

22:25 Basetxea Gori-Gori.

23:55 Eguna iruditan.

00:00 Postdata.

00:05 Sautrela.

00:30 Kar Kar Kluba.

00:55 Egi bidean.

01:05 Bakarrik edo...

03:05 Bertatik bertara.

03:45 Benta berri.

04:05 Eklipse@.

04:25 Berriketa gutxi.

ETB 1



Betizuko marrazki bizidunak

07:25 Betizu saioak goizean, eguerdian eta arratsaldean eskainiko ditu marrazki bizidunak

07:00 Tik Tak Circus.
07:25 Betizu. *Doug, Hirukiak, Doremiren magia eta Montana*.

09:15 Eklipse@.

09:40 Bidaide.

10:30 National Geographic.

11:25 Elkartasunaren bideak. *Paraguay inguratuta*.

11:50 Bertatik Bertara.

12:30 Travel notes.

13:10 Betizu.

14:00 Gaur Egun.

14:35 Postada.

14:40 Eguraldia.

14:45 Goenkale.

16:15 National Geographic.

17:05 Sustrai.

17:35 E-Klipse@.

18:00 Iparraldearen orena.

18:05 Betizu.

20:00 Gaur Egun.

20:45 Eguraldia.

20:55 Bertatik Bertara.

21:45 Goenkale.

22:25 Basetxea Gori-Gori.

23:55 Eguna iruditan.

00:00 Postdata.

00:05 Sautrela.

00:30 Kar Kar Kluba.

00:55 Egi bidean.

01:05 Bakarrik edo...

03:05 Bertatik bertara.

03:45 Benta berri.

04:05 Eklipse@.

04:25 Berriketa gutxi.

ETB 2



Txominek Saul erlijioz aldatzea gura du

21:55 Txominek ezin du onartu bere alaba pekatuan bizi izatea. Elizatik ezkontzea gura du, baina...

07:05 Del país de los vascos. *La caza*.

07:30 Rutas de solidaridad. *Filipinas: la casa del sol naciente*.

08:05 Embrujada.

09:00 Fórum.

09:30 El Punto.

10:05 La zona muerta. *Sensaciones vividas*.

11:10 Stargate.

12:05 Se ha escrito un crimen.

13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.

14:58 Teleberri. Juan Carlos Etxebarria eta Estibaliz Ruiz de Azua.

15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.

16:00 Pásalo.

18:05 Cine western.

20:20 Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.

20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrarekin.

21:50 Eguraldia.

21:55 Mi querido klikowsky.

23:00 Nip/Tuck: a golpe de bisturí. *Julia McNamara*.

23:55 El día en imagenes.

00:00 Doctoras de Filadelfia. *Cuerpos extraños, Lecciones respiratorias eta Decisiones precipitadas*.

02:40 Esta es mi gente.

03:20 Date el bote.

04:10 Pásalo.

TVE 1



Mario Andrea kantsolatzan ahaleginduko da

16:00 *Amar en tiempos revueltos* telesailen, Andreak ezin du ahaztu ustez hilda dagoen Liberto.

06:00 Canal24horas.

07:00 Telediario matinal. Igor Gomeze-kin, Susana Rozarekin eta Salvador Martín Mateosekin.

09:00 Los desayunos de TVE.

10:15 Saber vivir.

11:30 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina.

14:00 Informativo territorial.

14:30 Corazón de otoño. Txutxu-mutxuen gaineko saioa Anne Igartururekin.

15:00 Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escarioarekin.

15:55 El tiempo.

16:00 Amar en tiempos revueltos.

16:50 Los plateados. Telesail berria.

18:00 España directo.

19:20 Vamos a cocinar... con Jose Andrés.

20:00 Gente. Sonia Ferrerarekin eta Maria Jose Molinarekin.

21:00 Telediario 2. Lorenzo Milárekin eta Jesus Alvarezekin.

21:55 El tiempo.

22:00 Mira quién baila.

00:15 59 segundos.

02:00 Telediario 3.

02:30 Ley y orden.

La 2



'Los Lunnis' saioa, goizez eta arratsaldez

07:30, 17:30 Umeendako marrazki bizidunekin osatutako saioa goizez eta arratsaldez eskainiko dute bigarren katean.

06:45 Digimon Frontier.

07:15 That's english.

07:30 Los Lunnis.

09:30 Aquí hay trabajo.

10:00 TV educativa: La aventura del saber.

10:55 Diez líneas en el Quijote.

11:00 Las chicas Gilmore.

12:30 Padres en apuros.

13:00 Los Lunnis. *Arthur y el fabuloso mundo de los hechizos*.

15:10 Diez líneas de el Quijote.

15:15 Saber y ganar.

15:45 Grandes documentales. *Diario de los grandes felinos*.

16:55 Pueblo de Dios.

17:30 Los Lunnis.

19:25 Diez líneas de el Quijote.

19:30 Informativo territorial.

20:30 Deportes 2. Liga ACB.

21:00 Apartamento de soltero.

21:30 Miradas 2.

21:45 Sorteo de la Bonoloto.

21:50 La 2 Noticias.

22:30 ¿Qué grande es el cine! *La bella y la bestia*. Zuzendaria: Jean Cocteau (1946).

Aktoreak: Jean Marais, Josette Day.

01:30 Los conciertos de radio3.

Antena 3



'Hombres de negro II' filma, gaur gauean

21:45 Tommy Lee Jones eta Will Smith aktoreek beltzez jantzita jarraituko dute, estralurtarren atzetik.

06:00 Las noticias de la mañana.

08:30 Ruedo Iberoico

10:00 El autentico Rodrigo Leal.

10:30 La mujer en el espejo.

11:00 Cada día.

14:00 Los Simpson. *Homerpalooza eta Verano de un metro y medio*.

15:00 Noticias 1.

15:45 El tiempo.

16:00 Pasión de Gavilanes.

17:00 El cuerpo del deseo.

18:00 Estoy por ti.

19:00 El diario de Patricia.

20:15 ¿Quién quiere ser millonario?

21:00 Noticias 2.

21:45 El peliulón. *Hombres de negro II*. Zuzendaria: Barry Sonnenfeld. (2002). Aktoreak: Tommy Lee Jones, Will Smith. Dagoeneko lau urte pasa dira estralurtarren bilatzaile Jay eta Kay agenteek galaxiako suntsiketa ekidin zutenetik. Kay lasai bizi da orain, agente izateari utzi dio, baina Jayk lanean jarraitzen du.

23:50 7 días, 7 noches.

02:00 Sexo en New York. *Pecado no original*.

02:30 Televenta.

Tele 5



New Yorkeko metroan hildakoa

23:00 Baina, gizon hori ez zen metroan hil. Kirol arriskutsuak egiten zituela konturatuko dira, *CSI Miami*-n.

06:30 Informativos Telecinco matinal.

09:10 La mirada crítica.

10:45 El programa de Ana Rosa.

14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Begoña Chamorroarekin.

15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.

16:30 Grán Hermano. Laburpena.

17:00 A tu lado. Emma Garciarekin.

19:30 Allá tú. Jesus Vazquezekin.

20:30 Informativos Telecinco.

21:15 Camera Café.

22:00 C.S.I Miami. *Tras la caída*. Eraikin batetik gizon bat erori da, eta lurrera erortzerakoan gizon bat harra-patu du. Gura beste lan izango dute Horatioren lankideek.

23:00 C.S.I New York. *Tres homicidios*.

00:00 Plan C. Carolina Ferrerrek aurkeztutako saio berria.

02:15 Informativos Telecinco Noche.

02:45 Madrugada de cine. *El enemigo*. Zuzendaria: Tom Kinninmont. 2001. Luke Perry. George Ashton Ingalaterrara joango da arma biologikoa sortuta.

Astean GOITBn

Astelehena, 7



'Harmailatik' | 21:15

Aretxabaletaren eta Mondraren arteko derbia

Gaur gaueko *Harmailatik* kirol saioan Julen Iriondok atzo Aretxabaletan jokatu zuten derbiaren gaineko jarraipen zabala egingo du. Jokalari onenak, eztabaita sortu dutenak...

Martitzena, 8



'Zera dio' | 14:15

Patxi Zabaleta eta Jon Arretxeri elkarrizketak

Zera dio saioan, Aralar alderdi politikoko Patxi Zabaletari eta Jon Arretxe idazleari eginiko elkarrizketak erreperatuko dituzte martitzen arratsaldean.

Eguaztena, 9



'16mm' | 22:15

Oihan Vegaren 'Long Play' lana, eguaztenean

Azaroaren 7a: 063 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, azaroak 7, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30eara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 36 euro
2006 bukaerara harte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen azaroaren 11n **ELGETAKO ESPALDIA KAFE ANTZOKIAN** izango den "Pan con pan" antzerkirako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)


- Txema Garro Urzelai (Arrasate)
- Buenuena jatetxea (Arrasate)

Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Tomas Jauregi Iparragirre (Antzuola).
- German Bolinaga Askasibar (Arrasate)

Azaroaren 14ko sariak

- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
- Bi gonbidapen Donostiako **AQUARIUMA** bisitatzeko (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



EIBAR-MURTZIA HIRIA

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.
(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)





Hamarrekoa

JOXE LANDA | EGURALDI ADITUA

"Jendeak badu interesa eguraldiarekiko, baina ez dio arretarik jartzen"

Oihana Elortza

1. Lanegunetan zein jaiegunetan irakurri edo entzuten duzu zure eguraldi iragarpena. Gizon fina zara gero! Oso fina. Egunkariak urtean bi egun hartzen ditu bakarrik jai eta baita nik ere.

2. Nork erakutsi zizun eguraldiari kasu egiten? Gure aitak bazuen zaleztasuna. Txantxangorria ganbaran ikusten zuenean, elurra zeterrela esaten zuen, adibidez. Gurasoei baserriko lanetan lagundu guran edo, eguraldiari arreta jartzen hasi ginen.

3. Baserri giroa ondo ezagutzeak lagundu dizu eguraldia ulertzen? Bai. Lehengoek ere esaera eta kontakizun asko zituzten baserria eta eguraldia lotzen zituztenak eta arrazoizko loturak izaten ziren.

4. Nola gogoratzen duzu soldaduska garaia? Melillan egin nuen soldaduska eta hantxe egon nintzen urtebete baino gehiago; 10 hilabete egin nituen etxera, Itziarrera, etorri gabe. Euskaldun batzuk bageunden eta ondo kon-

pontzen ginen, baina behin eta berriz galdetzen nion neure buruari zer arraio egiten genuen han. Gizon egingo ginela esaten ziguten, baina laster ikusi nuen alferrikakoa zela soldaduska.

5. Arantzazun bedeinkatu izan dituzu autoak? 24 urterekin atera nuen gidabaimena eta motor bat izan nuen lehendabizi. Gero, 4-L bat eta harrez gero auto bat baino gehiago izan ditut eta bai, Arantzazun bedeinkatu ditut guztiak.

6. Eguraldia ona edo txarra izaten da beti? Hori-xe galdetzen du bakarrik jendeak, ea eguraldi ona edo txarra egingo duen. Baina norendako ona edo txarra? Ni saiatzen naiz hain hitz motzetan ez erantzuten.

7. Beti egon da eguraldiarekiko interesa? Orain handia dago, bai, baina jendeak ez dio arreta jartzen eguraldiari.

8. Matematikak eta zenbakiak gustuko ei dituzu. Beti gustatu zaizkit eta kooperatiba eta pentsu enpresa sortu genuenean ere,



OIHANA ELORTZA

Itziarkoa da Joxe Landa eta bere aurpegia hain ezaguna ez bada ere, izena etxekoa da asko eta askorendako. Gara egunkarian eta sei irratitan egiten du egunero-egunero eguraldiaren iragarpena. Baita Arrasate Irratian ere. Epe luzerako iragarpenak egiten ere ausartzen da Joxe eta aurreratu digu egubakoitzetik aurrera, *San Martinen udaratxoa* datorrela.

kontabilitate kontuak eraman nituen ondoen.

9. Sagardozalea ere ba ez zara. Sagardotegi sasoiaren asteburu gutzietan afaltzen dugu sagardote-

giren baten, hasi urtarrilean eta apiril erdi ingurura arte.

10. Zenbat anai-arreba zirate? Hamaika, eta behin bakarrik elkartu gara denok gurasoekin.



Biharamuna

Edu Mendibil

Antzinako kontu bat

Gurean diren bazar txinatarren gaineko erreportajea irakurri dut asteburuan: horrelako 210 bazar omen daude Gipuzkoan. Kontuak kontu, Txinako dragoiaren esnatzea aspaldi iragarri zuten ekonomia adituek. Arrasateko *dragoiak* adi egon beharko du.

Bergaran, aspalditik zera irakur daiteke lehengo **Antxoni** tabernako atean: *Próxima apertura de restaurante chino*. Hala ere, udazkena ere etorri da eta jatetxearen arrastorik ez. Bergarako giroa eta euskaldunok txuletarako dugun joera ikusita, atzera egin dute txinatarrek?

Baliteke gure artean diren txinatarrek **Chuang Tzuren** jarraitzaileak izatea. Ipuinak dioenez, antzinako Txinan marrazkilari aparta zen Chuang Tzu. Erregeak karramarro bat marrazteko eskatu zion behin. Chuang Tzuk zera erantzun zion erregeari: bost urte eta hamabi zerbitzari behar zituela lan horretarako. Hala ere, bost urte igaro eta artean marrazkia egiten hasteke zegoen Chuang Tzu. Beste bost urte behar zituela esan zion erregeari eta honek eskaera onartu zuen. Azkenik, hamar urte pasatu eta gero pintzela hartu eta keinu bakar batekin margotu zuen kamarraroa Chuang Tzuk, sekula ikusitako karramarrorik perfektuena, gainera.

Ipuinak erakusten duena Bergaran betetzen bada, pentsa zer nolako *udaberriko rollitoak* eta *ganba chop-sueya* gertatuko dituzten. Dena dela, itxarotea tokatzen zaigu.

zenbaki DOAN

Jaso doan **Asteleheneko Goienkaria** lau astez. Gustuko baduzu **Asteleheneko Goienkaria** jasotzen jarraitu ahal izango duzu (2006. urteko abendura arte) 36 euro bakarrik ordainduta.



Eskaintzaz baliatzeko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 18:30etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa